

Trau ber
tasunaz
sentsibil
zeko tok

**TRATU BERDINTASUNAZ ETA
DISKRIMINAZIORIK EZAZ**

- **SENSTIBILIZATZEKO TOKI-PLANAK
ABIARAZITAKOAN IZANDAKO
EMAITZA ONEKO KASUEN LABURPENA**

izandako
emaitza
oneko



SECRETARÍA DE ESTADO
DE INMIGRACION
Y EMIGRACION
DIRECCION GENERAL
DE INTEGRACION
DE LOS INMIGRANTES



laburpe

Parte hartu duten toki-entitateak:

Udalak: Arona, Ávila, Castelló, Bilbo, Cambrils, Collado Villalba, Gijón, Eivissa, León, L'Hospitalet de Llobregat, Madril, Málaga, Manlleu, Manresa, Reus, Salou, San Javier, Santa Coloma de Gramanet, Donostia, Tarancón, Tarragona, Terrassa, Torre-Pacheco, Vigo, Valentzia, Valladolid. Bai eta Banyolesko Aintzirako Partzuergoa ere.

Adituak:

Carmen Cárdenas, José María Batlles, Macarena Vallejo, Marta Solé, Rosa Bada eta Waltraud Müllauer.

Zuzendaritza eta koordinazioa:

Arrazakeriaren eta Xenofobiaren Espainiako Behatokia: Nicolás Marugán Zalba, Rosa Iturzaeta Manuel eta Antonio García Gómez

Lankidetzta:

CIDALIA, Consultoría técnica en diversidad, SLL sozietatea

Argitalpen ofizialen katalogo orokorra

<http://www.060.es>

**© Lan eta Immigrazio Ministerioa**

Immigrazio eta Emigraziorako Estatu Idazkaritza

Immigranteen Integraziorako Zuzendaritza Nagusia

Arrazakeriaren eta Xenofobiaren Espainiako Behatokia

José Abascal, 39 28071 Madril

Posta elektronikoa: oberaxe@mtin.es

Internet: <http://www.oberaxe.es>

Diseinua eta maketazioa: José María Gómez Benito

Argitalpen Ofizialen Identifikazio Zenbakia (NIPO): 790-10-155-9

Lege-gordailua: M-46138-2010

Inprimaketa: Composiciones Tipográficas Alba, SA



Lan hau klororik gabeko paper birziklatuan inprimatu da

Argitalpen honek Europako Batzordeko Enplegu, Gizarte Gai eta Aukera Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusiaren Enplegu eta Elkartasunerako Europar Erkidego Programak (2007-2013) emandako laguntza jaso du. Programa hau abiarazteko arrazoia izan zen finantza-laguntza ematea Europar Batasunaren helburuak gauzatzeko enpleguaren eta gizarte-gaien alorrean, Gizarte Agendan adierazita geratu zen bezala, eta, hortaz, esparru hauetan Lisboako Estrategiaren helburuak betetzen laguntzea.

Programak zazpi urteko iraupena du, eta EBko 27 estatu kideetan, EFTA-EEAn, izangai diren herrialdeetan eta izangai izan nahi dutenetan enpleguaren eta gizarte-gaien alorrerako politika nahiz lege egokiak eta eraginkorrak garatzen lagun dezaketen interes-taldeentzat egin da.

PROGRESSen xedea da EBren ekarpena indartzea, estatu kideek enplegu gehiago eta hobeak sortzeko eta gizarte barne-biltzaileagoa eraikitzeko egiten dituzten ahaleginei eta hartu dituzten konpromisoei dagokienez. Horretarako, PROGRESSek:

- Azterketa eta aholkularitza politikoa ematen du PROGRESS esparruetan;
- Kontrolatu eta jakinarazi egiten du nola zertzen diren EBren legeak eta politikak PROGRESS esparruetan;
- Estatu kideen arteko transferentzia politikoa, ikaskuntza eta laguntza sustatzen du, EBren helburuez eta lehentasunez den bezainbatean;
- Interes-taldean eta, oro har, gizartearen ikuspuntua zabaltzen du.
- Informazio gehiago: http://ec.europa.eu/employment_social/progress/index_en.html

“Argitalpen honetan jasotako informazioak ez ditu nahitaez adierazten Europako Batzordearen jarrera eta iritzia”.

**TRATU BERDINTASUNAZ ETA
DISKRIMINAZIORIK EZAZ
SENTSIBILIZATZEKO
TOKI-PLANAK ABIARAZITAKOAN
IZANDAKO EMAITZA ONEKO
KASUEN LABURPENA**

AURKIBIDEA

1. AURKEZPEN INSTITUZIONALA

2. PROIEKTUAREN AURKEZPENA

2.1 LABURPENA

2.2 JARDUTE-METODOLOGIA

3. PROIEKTUEN EBALUAZIOA

3.1 PRINTZIPIO OROKORRAK

3.2 EMAITZA ONA IZATEKO JARRAIBIDEAK

3.3 KUDEAKETA-JARRAIBIDEAK

3.4 ZEHAR-PRINTZIPIOAK

4. EMAITZA ONEKO KASUEN AUKERAKETA

5. JARDUERA-ESPARRUAK

5.1 DISKRIMINAZIOAREN PREBENTZIOA ETA TOKIKO GOBERNUEK
SENTSIBILIZATZEN BETETZEN DUTEN EGINKIZUNA

5.2 GENERO-IKUSPUNTUA, TRATU-BERDINTASUNAZ ETA
DISKRIMINAZIORIK EZAZ SENTSIBILIZATZEKO LANEAN

5.3 GAZTERIA ETA IMMIGRAZIOA

5.4 BIZIKIDETZA ETA ESPARRU PUBLIKOAK

5.5 ZERBITZU PUBLIKOETARA SARBIDE HOBEA IZATEKO
SENTSIBILIZATZEA

5.6 ZERBITZU PUBLIKOETARAKO SARBIDEA

6. PROPOSAMENAK ETA GOMENDIOAK

7. BIBLIOGRAFIA

1 AURKEZPEN INSTITUZIONALA

Immigranteen Integraziorako Zuzendaritza Nagusiko Arrazakeriaren eta Xenofobiaren Espainiako Behatokiak berriz ere beste argitalpen bat aurkezten du, Europako Erkidegoko PROGRESS Programaren barruan, tratu-berdintasunaz eta diskriminaziorik ezaz sentsibilizatzeko jarduerak sustatu nahian.

Oraingo honetan, emaitza oneko kasuen laburpena da, baliagarria izan daitekeena, hainbat urtetan munduko zenbait tokitatik iritsitako pertsonak jaso ondoren, Espainiako gizarte aberats eta askotarikoa kudeatzen toki-entitateen esparruan lagun dezaketen estrategiak erabiltzen ahalegintzen diren eragile guztientzat.

Toki-esparruan, dibertsitatearen kudeaketa adar berria da, eta sentsibilizatzea, Herritartasun eta Integrazio Plan Estrategikoan adierazi bezala ulertuta –hau da, "bestearen" estereotipoetan eta pertzepzioetan eragina izan nahi duten ekintzen multzo gisa– nekez neur daitekeen gaia da. Horregatik, garrantzitsua iruditzen zaigu hainbat tokitan emaitza ona izan duten esperientziak argitaratzea, jarraibide eta lagungarri izan baitaiteke gure herrialdeko kulturen arteko bizikidetzaren ikuspuntutik.

Tratu-berdintasunaz sentsibilizatzeko tokiko planak abiarazi eta emaitza onak izan dituzten kasuen laburpen honetakoak aukeratzean, kontuan hartu dira gure ustez sentsibilizatzea denaren barruko esparru zabaleko hainbat ikuspegi. Horrenbestez, kasuei erreparatzean hainbat ikuspuntu baliatu dira: generoa, gazteria, gune publikoen erabilera, auzo-bizikidetzeta eta zerbitzu publikoetarako sarbidea.

Espero dugu Herritarrak Sentsibilizatzeko eta Integraziorako Proiektuaren tresna berri hau (ESCI III), "Sentsibilizatzeko-planak: toki-ingurunean emaitza ona izan duten esperientziak" izenekoak, sentsibilizatzeko eta ez diskriminatze-politikekin zerikusia duten pertsona guztientzat baliagarria izango dela, aurreko argitalpenak bezala, eta, era berean, denon artean sortzen ari garen askotariko gizarte honetan bizikidetzeta orekatua lortzeko balioko duela.

Estrella Rodríguez Pardo

Immigranteen Integraziorako zuzendari nagusia

2

PROIEKTUAREN AURKEZPENA

2.1. LABURPENA

Tratu-berdintasunaz eta diskriminaziorik ezaz sentsibilizatzeko toki-planak abiarazitakoan izandako emaitza oneko kasuen laburpena izeneko lan hau ESCI III Proiektua: Sentsibilizatzeko-planak: Toki-ingurunean emaitza ona izan duten esperientziak direlakoan azken emaitza da. ESCI III Proiektua Europako Batzordearen Enplegu, Gizarte Gai eta Aukera Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusiak enplegu eta gizarte-elkartasunerako egindako Progress (2007-2013) Erkidego Programaren barrukoa da, eta Erkidego Programaren bost jardueresparruetako batean dago txertatuta, *Diskriminaziorik Eza eta Askotarikotasuna* izenekoan, horren helburu nagusia baita, alde batetik, diskriminaziorik ezaren printzipioaren benetako aplikazioan laguntzea eta, bestetik, hura Erkidegoko politiketan sar dezaten sustatzea, honako hauek baliatuta:

- Hobeto ulertzea zein den diskriminazioaren egoera, bereziki, analisiak eta azterketak eginez, eta estatistikak nahiz adierazleak garatuz, hala nola indarreko legeek, politikek eta jardunbideek duten eragina ebaluatuz;
- Europar Batasunak (EB) diskriminaziorik ezaren esparruan dauzkan legeak aplikatzen laguntzea, kontrol eraginkorraren eta profesionalen prestakuntzaren bidez, hala nola diskriminazioaren aurkako borrokaren esparruan espezializatutako erakundearen artean sareak sortuz;
- Sentsibilizatzeko-lana indartzea, informazioa zabaltzea eta diskriminazioaren arloko erronka eta alderdi nagusiei buruzko eztabaida sustatzea, hala nola diskriminaziorik eza Erkidegoaren politiketan sartzea;
- Erkidegoko sare nagusien ahalmena garatzea (adibidez, estatuetako adituena eta GKEena), erkidego-helburu politikoak lortzeko.

ESCI III Proiektua 2009ko abenduaren 1etik 2010eko azaroaren 30era bitarte gauzatu da, eta lan hori Lan eta Immigrazio Ministerioko Immigrazio eta Emigraziorako Estatu Idazkaritzako Immigranteen Integrazio Zuzendaritza Nagusiaren mendeko organo batek egin du, Arrazakeria eta Xenofobiaren Espainiako Behatokiak (Oberaxe).

ESCI I Proiektua: Herritarrak Sentsibilizatzeko eta Integraziorako Estrategiak (2008) delakoaren eta ESCI II: Sentsibilizatzeko Tokiko Planak (2009) izenekoaren barruan egindako lanaren jarraipen moduan aurkezten da. ESCI II Proiektuko jarduerak amaitutakoan, gida bat argitaratu zen: *Tratu-berdintasunaz eta Diskriminaziorik ezaz Sentsibilizatzeko Tokiko Planak Diseinatu eta Egiteko Gida*; gida honela banatu da: 2.100 ale toki-entitateen artean; 67 ale autonomia-erkidegoen artean; 30 ale ministerio-departamentuetan; 350 ale GKEen artean; eta 38 ale arartekoen edo eskualdeetako antzeko organoen artean. Banaketa hori egitean, biztanleen artean immigrante direnen ehunekoa kontuan hartu da.

Erakunde publikoak, pribatuak eta toki- nahiz eskualde-erakundeak sentsibilizatzeko-ekintzetan eta tratu-berdintasunaren nahiz diskriminaziorik ezaren sustapenean sartu eta ari zitezten lortzeko, argitalpen hau eginez geroztik, ESCIren hirugarren aldia hasi zen (ESCI III), helburu hauekin hasi ere: hura jatorria arrazan eta etnien duen diskriminazioaren aurka sentsibilizatzeko eta tratu-berdintasunaren alde aritzeko tokiko planetan hedatzea eta gauzatzea; eta tokian tokiko jardunbide nahiz esperientzia onak identifikatu eta ebaluatzea.

Proiektu berri honen bidez, aurrera egin nahi izan dugu tokiko entitateek sentsibilizatzeko-lanean erabilgaitako estrategien kalitatea hobetzeko bidean, eta, horretarako, babesaz, jarraipenaz eta tutoretzaz baliatu gara, toki-entitateek Tokiko Sentsibilizatzeko Planak diseinatzeaz eta abiarazteaz den bezainbatean, emaitza onak izandako kasuak aukeratu ditugu eta jardunbide onen laburpen hau

landu dugu, zeinaren barruan esperientziak beste nonbait erabiltzeko aukera aztertu den, eta tresna beste ingurune batzuetan abiarazteko gomendioak zehaztu.

Horretarako, lanean jarraitu dugu administrazio publikoekin, gizarte-erakundeekin eta funtsezkotzat jotako eragileekin, herritarrengandik hurbilen dauden mailetatik eragina izan ahal izateko estatuetako eta Europa mailako politiken diseinuan eta haiek abiarazteko lanean.

ESCI III Proiektuaren helburuak honela zehatz daitezke:

Helburu orokorra:

Askotariko gizartearen alderdi positiboen ezagutza areagotzen laguntzea, toki-inguruneetan bizikidetzeta eta gizarteratze-prozesuak sustatzeko, eta, horretarako, arrazagatiko eta etniagatiko diskriminazioaren aurkako tokiko sentsibilizatzeko-planak eta tratu-berdintasunaren aldekoak abiaraztea, eta kasu arrakastatsuak nahiz erreferentziazko ereduak bereiztea.

Helburu espezifikoak:

1. Proiektua eta haren helburuak hedatzea, eta "Tratu-berdintasunean sentsibilizatzeko tokiko planak" abiarazten ari diren toki-entitateak bereiztea, proposatutako jardueren eta neurrien bidez herritarrei laguntzen baitiete pertzepzio eta jarrera hobekak izaten aniztasunari dagokionez.
2. Prozesuaren jarraipen espezifikoa eta laguntza abiaraztea, toki-entitateei babes eta erraztasunak emateko, tratu-berdintasunaz sentsibilizatzeko tokiko planak abiaraz ditzaten; era berean, emaitza ona lortutako kasuak bereizteko oinarriak jartzea.
3. Espainian, toki-esparruan, tokiko sentsibilizatzeko planen aplikazioan izandako kasu arrakastatsuak eta jardunbide onak bereiztea, eta, horretarako, gutxienez, kontuan hartzea arreta nagusia, besteak beste, alderdi hauetan jarri duten sentsibilizatzeko-ereduak, edo aipatu alderdiok barruan jaso dituztenak: genero-kontuak bereziki kontuan hartzen dituen sentsibilizatzeko-modua; gazteei erreparatzen dien sentsibilizatzeko-ildoak; auzo-bizikidetzeta eta gune publikoen erabilera aintzat hartzen dituenak; zerbitzu publikoen erabilerari erreparatzen diona.
4. Tratu-berdintasunaz sentsibilizatzeko tokiko planak abiarazi ondoren atzemandako kasu arrakastatsuen eta jardunbide onen laburpena egitea eta zabaltzea, eta, horretarako, gainerako toki-entitateentzat erreferentzia izan daitezkeen kasu ereduak abiaraztea.

Jarduera horiek guztiak kanpo-lantalde batekiko lankidetzan egin dira; talde hori Arrazakeriaren eta Xenofobiaren Espainiako Behatokiak koordinatu du, eta honako hauek izan dira taldeko kideak: Oberaxeko talde teknikoak; tokiko politiketan eta sentsibilizatzeko-metodologietan espezializatutako sei aditu; eta Cidalia, Consultoría Técnica en Diversidad SLL aholkularitza-sozietatea (aniztasunean eta migrazioetan espezializatua). Hauek izan ziren lantaldean parte hartu zuten sei adituak:

- Rosa Bada, Bartzelonako Udaleko Eskubide Zibilen zuzendaria.
- José M. Batlles, Almeriako Diputaziokoa, eta Marta Solé, Bartzelonako Diputaziokoa; biak Espainiako Udalerrien eta Probintzien Federazioak (FEMP) proposatu zituen aditu gisa.
- Carmen Cárdenas, Espainiako Gurutze Gorriak kolektibo ahulentzat daukan Enplegu Planeko teknikaria (Bulego Nagusia).
- Waltraud Müllauer-Seichter, doktorea Gizarte Antropologian eta Kulturean (UNED).
- Macarena Vallejo, Espainiako Gazteriaren Kontseiluko Immigrazio, Herritartasun Eskubide eta Gizarte Mugimenduetarako sailaren arduraduna.

2.2 JARDUTE-METODOLOGIA

Sentsibilizatzeko Planak: toki-ingurunean emaitza ona izan duten esperientziak – ESCI III proiektu espezifikoaren barruan finkatutako helburuak betetzeko, proiektuari lotutako lantaldeak jarduera hauek egin zituen:

- a) identifikatzea zer toki-entitatek zuten proiektuan parte hartzeko interesa, proiektuaren barruko bi jarduera nagusiak garatzeko, eta haiek abiarazteko, bai eta hautatutakoekin harremanetan jartzea ere; jarduera nagusi horiek hauek ziren:

- b) proiektuan parte hartzen zuten toki-entitateei laguntzeko eta aholkularitza teknikoa emateko prozesua garatzea, eta
- c) sensibilizatzeari lotutako esperientzia eta jardunbide arrakastatsuak aukeratzea, bereziki kontuan hartuta gai jakin batzuen inguruan sensibilizatzearekin zerikusia zutenak; gai horiek hauek ziren: generoa, gazteak, auzo-bizikidetzak edo gune publikoen erabilera, eta zerbitzu publikoen erabilera.

a) Parte hartuko zuten toki-entitateak bereiztea eta aukeratzea

Proiektuan parte hartu nahi zuten toki-entitateak honela bereizi eta aukeratu ziren, honela sortu zen haiekiko harremana:

1. fasea. Zenbait oinarri erabaki eta haien arabera egin zen lehenengo aukeraketa:

- Lehenik eta behin, biztanle-irizpideak kontuan hartu ziren; besteak beste: atzerritar jatorriko biztanleek udalerrian zuten presentzia eta ordezkartza; 2004 eta 2009 artean izan zuten bilakaera; eta haien aniztasuna, lurraldean zeuden nazionalitateei zegokienez.
- Bigarrenik, toki-entitateen tipologia-aniztasuna kontuan hartu zen, bai biztanle-kopuruari zegokionez, bai autonomia-erkidegoetik lurralde-ordezkaritzari zegokionez.

Irizpide horiek kontuan hartuta, 165 udalerririk aukeratu ziren; udalerririk hogeita hiru probintziatarikoak ziren, eta Espainian bizi ziren atzerritar jatorriko biztanleen %85,19 biltzen zuten hamazazpi autonomia-erkidegoetakoak (Espainiako Estatistika Institutuak 2009ko abendurako emandako datuen arabera).

2. fasea. Hautatutako toki-entitateek proiektuan parte hartzeko gonbidapena jaso zuten, eta bakoitzari buruzko informazioa biltzeko datu-baseak sortu ziren. Bereizitako 165 toki-entitateei bidali zitzaizkien gonbidapena.

3. fasea. Gonbidatutako toki-entitateen jarraipena egin zen, kasu arrakastatsuen aukeratze- eta laguntze-prozesuan parte hartzeko interesa zuten udalen behin betiko multzoa eratzeko. Irizpide orokor moduan, arrazagatiko edo etniagatiko diskriminazioaren aurka lanean ari ziren edo lan egiteko interesa zuten udalak aukeratu ziren, eta arreta berezia jarri zen ESCI III Proiektuak zehaztutako garrantzi bereziko esparruetan.

Azkenean, toki-entitate hauek adierazi zuten parte hartu nahi zutela:

AUTONOMIA-ERKIDEGOA	PROBINTZIA	UDALA
Andaluzia	Málaga	Málaga
Asturias	Asturias	Gijón
Balearrak	Balearrak	Eivissa
Kanariak	Santa Cruz Tenerifekoa	Arona
Gaztela-Mantxa	Cuenca	Tarancón
Gaztela eta Leon	Ávila Leon Valladolid	Ávila Leon Valladolid
Katalunia	Bartzelona	Manresa Santa Coloma de Gramanet L'Hospitalet de Llobregat Manlleu Terrassa
		Tarragona Cambrils Reus Salou
		Girona Banyoles
Galizia	Pontevedra	Vigo
Madril	Madril	Madril Collado Villalba
Murtzia	Murtzia	Torre - Pacheco San Javier
Euskal Autonomia Erkidegoa	Bizkaia	Bilbo
	Gipuzkoa	Donostia
Valentzia	Valentzia	Valentzia
	Castelló	Castelló

b) Udalentzako Aholkularitza Teknikoaren metodologia eta edukiak

ESCI III Proiektuan parte hartu zuten tokiko entitateak askotarikoak eta heterogeneoak zirela eta, jarraipen- eta aholkularitza-prozesuaren lehen ezaugarria banan-banako izatea izan zen, betiere jardura-irizpide komun batzuen barruan, eta prozesuaren ardatz nagusia proiektuaren bigarren fasean egindako *Tokiko Sentsibilizatzeko Planak Diseinatu eta Egiteko Gida* aplikatzea izan zen.

Jarduteko irizpide komunak jardura hauetan oinarritu ziren:

- a) Jarraipena eta aholkularitza hasi aurretik, zenbait alderdi bereiztea.
- b) Udalaren diagnostiko orokorra egitea.
- c) Diagnostiko espezifiko egitea.
- d) Sentsibilizatzeko-plana garatzeko gomendioak prestatzea.

Hitz batean, proposamenaren bidez lan-protokolo bat garatu nahi izan zen, irizpide komunetan oinarritua, aukera emango zuena toki-entitateekiko jardura-prozesu bat zehazteko, emaitzak eta produktuak antzekoak eta homologagarriak izanik (oinarrizko informazioa zehaztea, galdera-sorta bat erabiliz; eta diagnostiko orokorreko fitxa egitea), horretarako toki-testuinguru bakoitzerako egokienak ziren metodologia eta tresna espezifikoak erabilia.

Proiektuaren faseetan baliatuko zen lan-metodologian ados jartzeko, talde teknikoak banan-banan bisitatu zituen parte hartu behar zuten toki-entitateak. Toki-esparruko ekintzen arduradunekiko erlazio hori funtsezko elementua izan zen ESCI III Proiektuaren garapenean, ez bakarrik informazio gehiago eman eta lantaldearekiko koordinazio-lanak erraztu egin zituelako, bai eta ukitutako toki-entitateetako esparru-arduradunek eta teknikariek parte-hartze eta inplikazio handia izan zutelako ere.

Diagnostiko orokorra

Jarraipen- eta aholkularitza-faseko lehen ekintzan, diagnostiko orokor bat egin zen proiektuan parte hartu zuen toki-entitate bakoitzerako eta, hartan, informazio hau sistematizatu zen:

INFORMAZIO-MOTA	DATUAK	METODOLOGIA
Datu soziodemografikoak	<ul style="list-style-type: none">• Biztanleak guztira• Atzerritar jatorriko biztanleen kopurua eta bilakaera• Atzerritar jatorriko biztanleen ehunekoa eta bilakaera• Banaketa nazionalitateen arabera• Banaketa sexuaren eta adinen arabera	Talde teknikoak egina, Espainiako Estatistika Institutuaren Biztanleen Udal Erroldako datuetan oinarrituta
Politika publikoen azterketa	<ul style="list-style-type: none">• Jardura-mota• Integrazio/Bizikidetzeta edo Herritartasun Programa edo Planarekiko lotura• Ekintzen zeharkakotasun-maila (Udaleko beste esparru batzuek ekintzetan parte hartzea)• Erabilgaitako baliabide-motak• Finantza-bidea (propioa, diru-laguntzak eta abar)• Gizarte-erakundearen jardurekiko lotura: GKEak/Immigranteen elkarteak	Parte hartu zuten udalei bidalitako galdera-sorta labur batean oinarritutako lana Parte hartu zuten erakundeek emandako dokumentuen bilketa
Oharpenak eta gomendioak	Txosten laburra eta talde teknikoak Sentsibilizatzeko Plana gauzatzeko egindako proposamena	Proiektuko talde teknikoak eta adituen taldeak iradokita

Erakunde parte-hartzaile bakoitzari buruzko hasierako diagnostikoa proiektuko talde teknikoak egin zuen, toki-entitateetako teknikarien eta arduradunen garaian garaiko lankidetzarekin, eta galdera-sorta bat hartu zen hura egiteko oinarritzat, geroagoko jarraibide izan zitezkeen jardura-ildoak bereizteko lehen urrats moduan; diagnostikoa, gainera, dokumentu irekia eta malgua zen, hurrengo lan-faseetako hausnarketak jasotzeko.

Diagnostiko espezifikoa

Diagnostiko orokorra egin ondoren, toki-entitateetako arduradunekin eta teknikariek diagnostiko espezifikoa egitea izan zen hurrengo helburua. Horretarako, bisita egin zitzaion proiektuan parte hartu zuen toki-entitate bakoitzari, helburuak hauek izanik:

- a) Toki-entitateetako arduradunekin egiaztatzea proiektuko talde teknikoak egindako diagnostiko orokorra, eta hartan sakontzea, besteak beste gai hauek kontuan hartuz:
 - a.1) Gizarte-jardunbide eta -diskurtsoen azterketa; hau da, erreferentziazko gizarte-testuinguruko pertzepzioak, aurreiritziak eta estereotipoak aztertzea.
 - a.2) Udaleko edo toki-entitateko jarduera eta ekintza diskriminatzaileen berri izatea: atzemandako bizikidetza-arazoak, diskriminazio-egoerak eta abar.
- b) Lan birtualerako metodologiaren aurkezpena: lan egiteko online modalitate bat sortu zen (<http://www.esci3.com>), geroago bai toki-entitate parte-hartzaileen artean bai haien eta proiektuko talde teknikoaren artean sareko lan- eta koordinazio-plataforma gisa erabili zena.
- c) Lan egiteko plan eta egutegi bat erabakitzea toki-entitate bakoitzarekin; zeregin hori 2010eko ekainetik urrira bitarte gauzatu zen, eta bere helburua izan zen tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren esparruan emaitza ona emandako ekintzak eta esperientziak batera identifikatzea; hain zuzen ere, geroago, talde teknikoak eta adituen taldeak ekintza-esperientzia horiek ebaluatu zituzten, erreferentziazko eredu izan zitezkeen jardunbide onak atzemateko.

Sentsibilizatze-planak egiteko gomendioak

Laburpen honen argitalpena gauzatzear dagoen honetan, zenbait txosten eta gomendio bilduko dituen txosten labur bat egiten ari da, proiektuan parte hartzen duten toki-entitateak sentsibilizatze-esparruan egiten ari diren jarduerak bideratzeko eta/edo finkatzeko.

Txosten horren oinarriak hauek dira: alde batetik, proiektuko talde teknikoak egindako diagnostiko orokorrak eta espezifikokoak; bestetik, adituen taldeak kasu arrakastatsua identifikatzeko fasean ebaluatutako jardunbideei buruz emandako iritziak.

c) Emaitza ona izan duten kasuak bereizteko eta hautatzeko metodologia

Lan-fasea eta emaitza ona izan duten kasuak bereizteko eta aukeratzeko erabilitako metodologia nabarmenki oinarritu ziren proiektuan parte hartzen ari ziren toki-entitateentzako laguntza-prozesuan. Besteak beste, toki-entitateetara egindako bisitei esker asko ikasi ahal izan zen toki-mailako ekimenei eta esperientziei buruz, eta, horrenbestez, errazagoa izan zen haiek bereiztea eta kasu arrakastatsua hautatzea.

Funtsezko bi kontzeptu zehaztea izan zen emaitza ona izan duten kasuak bereizi eta hautatzeko metodologiaren abiapuntu; honako hauek:

- a) *Herritartasun eta Integrazio Plan Estrategikoko sentsibilizatze* kontzeptua (2007-2010), jada ESCI II Proiektuan ere erabilia, azpimarratu egiten baitu sentsibilizatzea epe luzeko prozesu bat dela, hala nola pertsonen eta taldeen ideietan, pertzepzioetan, estereotipoetan eta kontzeptuetan eragina izan nahi duen ekintza-multzo bat, gizartean, banan-banan eta taldeetan nagusi diren jardunbideetan agertzen diren jarrerak aldatzea xede duena.
- b) eta tratu-berdintasunaren nahiz diskriminaziorik ezaren esparruan jardunbide onaz lantaldean egindako definizioa, esaten baitu sentsibilizatzearen esparruan prestatutako metodologia, tresna edo jarduera bat dela, argi erakutsi duena gauza dela aldaketak eragin eta emaitza onak lortzeko, tratu-berdintasunaren esparruan etniagatiko eta/edo arrazagatiko diskriminazio-faktoreak desagerrarazteari dagokionez.

Bi kontzeptu horietatik abiatuta, eta Europako Batzordeak proposatutako metodologian oinarrituta, lantaldeak proposamen metodologiko bat landu zuen, jardunbide onak atzemateko eta aukeratzeko balioko zuten irizpideak zehaztu zituen, eta, horretarako, zenbait aldagai baliatu zituen, lau ardatz edo eremu orokorragotan bilduta. Aldagai horiek abiapuntutzat hartu eta zenbait adierazle zehaztu ziren, sentsibilizatzearen eta diskriminaziorik ezaren arloko jardunbide onak aukeratzeko/ebaluatzeko. Hurrengo matrizean, jardunbide onak ebaluatzeko proposatutako ardatzak/eremuak ageri dira, hala nola haietako bakoitzean kontuan hartutako ebaluazio-irizpideak.

ARDATZAK	RIZPIDEAK	BAREMAZIOA
Printzipio orokorrak	Berrikuntza eta sormena Aldagarritasuna Ikuspegi osoa	%20
Arrakasta-ildoak	Eragin positiboa Eraginkortasuna Efizientzia Iraunkortasuna	%30
Kudeaketa-ildoak	Planifikazioa Lidergoa Neurtze- eta egiaztatze-sistemak	%20
Zeharkako printzipioak	Herritarren inplikazioa Genero-ikuspuntua Kulturarteko ikuspuntua Adin-ikuspuntua	%30

Printzipio orokorren ardatzean, sentsibilizatzeko-proiektu eta -programetan elementu berritzaileak eta sortzaileak sartzea neurtzen da nagusiki, bai tresnei eta kudeaketa-metodoei dagokienez, bai ematen den zerbitzu-motari dagokionez. Era berean, esperientzia batek esperientzia bera sortu zen testuingurua ez bezalako beste batzuetan errepikatua izateko zer aukera ematen duen neurtzen da, hala nola zer gaitasun duen bere egiteko nola eragin nahi dien faktoreei buruzko ikuspegi osoa, hala, ekimena garatu bitartean, hainbat eragile instituzional.

Arrakasta-ildoei lotutako ardatzean hauek ebaluatzen dira: finkatutako helburuak lortu diren; ekimen batean ikus eta neur daitezkeen ondorio onuragarriak; zer lotura dagoen lortutako emaitzen eta erabilitako bitartekoen artean; zer jarraitasun-maila daukan ekimenak toki-administrazioaren antolaketan; eta zer aukera dituen denboran irauteko.

Kudeaketa-ildoari dagokion ardatzean kontuan hartzen da komunitatearen garapen-prozesurik abiarazi den (betiere komunitatearen parte-hartzea bere barruan jasota, ekintzen planifikazioan eta garapenean funtsezko alderdia den aldetik), eta neurtu egiten da zer gaitasun duten sustatzaileek eragile garrantzitsuak motibatu eta inplikatuko ekintza haien gauzapenean. Era berean, aintzat hartzen da gauzatutako ekintzen ebaluazio- eta jarraipen-sistemarik abiarazi den, eta izandako ondorioak eta eragina gainbegiratzeko diren, aurreikusitako helburuez den bezainbatean.

Zeharkako printzipioen ardatzean, berriz, emakumeen eta gazteen behar eta egoera espezifikoek zeharkako ikuspuntutik erreparatzen dieten ekintzak ebaluatzen dira. Gainera, herritarrek egoeraren gaineko diagnostikoa egiten, politikez hausnartzen nahiz haiek diseinatzen eta sentsibilizatzeko-ekimenak garatzen kulturarteko ikuspuntu batetik zer-nolako inplikazioa izan duten ebaluatzen da; izan ere, inplikazio hori lurraldean finkatutako gizarte-erakunde garrantzitsuetan parte hartuz edo parte hartzeko beste mekanismo batzuen bidez gauzatzen da.

Jardunbide onak ebaluatzeko irizpideen definizioan ados jarri ondoren, adierazle batzuk proposatu ziren, bereizitako ekimenak lantaldeak erabakitako barematze-sistemaren arabera ebaluatu ahal izateko. Informazioa errazago bildu eta sistematizatzeko, tresna metodologiko bat garatzea proposatu zen; tresna horrek, fitxa moduan, aukera eman beharko zuen ekimen edo jardunbide bakoitzaren ebaluaziorako irizpideei buruzko informazioa lortzeko.

Fitxak ESCI III Proiektuko lantaldeak prestatu zituen, eta jarduera-esparrutan antolatu ziren: generoa, gazteria, bizikidetzeta eta gune publikoak, eta zerbitzu publikoen erabilera. Guztira, 37 esperientzia sistematizatu ziren, bildu eta aditu-taldeari igorri zitzaizkionak, aurrez adierazleek erabakitako proposamenaren arabera ebalua zitzen.

Horrenbestez, ekimenak aukeratzeko eta emaitza oneko kasuen laburpen honetan jasotzeko erabilitako metodologia hau izan da: aditu bakoitzak ekimena ebaluatzea eta, ondoren, ebaluazio guztien sistematizazio orokorra egitea.

3 PROIEKTUEN EBALUAZIOA

Atal honetan, hausnarketa egiten da ebaluazioei buruz, eta proiektuan erabakitako ardatzetako bakoitzean aztertutako irizpideetan sakontzen da. Nahiz eta ESCI III Proiektuaren xedea ez izan sentsibilizatzeko proiektuen ebaluazio sakona egitea, proiektuan zehar izandako lan-prozesuari esker hauek egin dira:

- a) sentsibilizatzeko proiektuak laburpen honetan sartzeko erabili beharreko ebaluazio-irizpideez eztabaidatzea eta ados jartzea,
- b) udalek eta toki-entitateek sentsibilizatzeko arloan egindako ekintzez informazio eta dokumentazio garrantzitsua izatea.

Horrenbestez, eta aztertutako proiektuen ebaluazioa egiteko batere asmorik gabe, egokitzen jo da ESCI III Proiektuan zehar hasitako lana jarraitzeko aukera ematen duen faktore gisa aurkeztea proiektuen ebaluazioaren emaitza generikoak, ebaluazioak datu interesgarriak ematen baititu, bai toki-entitateen jardunbideak eta esperientziak ezagutzeko, bai bereizten hasteko zein diren jardunbide eta esperientzia horietan sendotzat eta ahultzat jo ditzakegun alderdiak.

Proiektu honi lotutako udalen proiektuen identifikazioa lehenagoko lan-faseek erraztu dute; bereziki, udal parte-hartzaile guztietara egindako bisitekin batera toki-entitateei emandako aholkularitza teknikoak. Aurretiko jarduera horren ondorioz, esan dezakegu udal parte-hartzaileek izandako ia sentsibilizatzeko ekimen guztiak bereizi direla.

Lan-prozesu horretan 72 sentsibilizatzeko ekimen erregistratu ziren. Haiei guztiei buruzko informazioa eskatu zen jardunbide onen identifikazio-fasearen hasieran, eta 20 udalerritako 64 proiektuari buruzko informazioa lortu zen. Talde teknikoak, azkenean, ESCI III Proiektuaren helburuak kontuan hartuta, 37 ekimen hautatu zituen 64 ekimen haien artean, emaitza oneko kasu moduan ebaluatutako izateko.

Taula honetan, ESCI III Proiektuaren fase honetan ebaluatutako 37 proiektuak azaltzen dira:

TOKI-ENTITATEA	EBALUATUTAKO PROIEKTUAREN IZENA	HELBURUAK	HARTZAILEAK
Ávila	Ikastetxeetan sentsibilizatzeko programa	Ikasgelan, ikasleak elkartzeko eta bizitzeko gune bat sortzea, tolerantzian eta elkarrekiko errespetuan oinarrituta	Haur Hezkuntzako ikasleak. Lehen Hezkuntza eta Bigarrena, hiriko ikastetxeetan matrikulatuak
	Gaztelaniari eta Gaztelaniako Kulturari buruzko programa integrala immigranteentzat	Ávilako hirian gizarteratzeko eta parte hartzeko bidea erraztea, hizkuntza-gaitasunetik abiatuta	Ávilako immigranteak
Pla de l'Estany-Banyoles-eko Gizarte Ongizaterako Partzuergoa	Esperientziak Trukatzeo Belaunaldiarteko eta Kulturarteko Proiektua	Belaunaldien eta kulturen arteko harremana sustatzea, adin eta kultura-jatorri desberdineko pertsonen artean elkarrekiko ezagutza handitzeko	Lehen Hezkuntzako 6. mailako bi ikasle-talde
	Canaleta auzoko Festa Nagusia berreskuratzeko belaunaldiarteko proiektua	Auzotarren arteko bizikidetzaren arazoak guthitzea	Canaletako auzotar guztiak
Bilbo	Emakumea, Osasuna eta Indarkeria	Emakume gazteak prestatzea, edukien zabalte- eta prebentzio-lana egin dezaten, osasunari, indarkeriari, sexualitatea bizitzeko erari eta kultura-identitateari dagokienez	Emakume gazteak, 17 eta 35 urte bitartekoak lehentasunez

TOKI-ENTITATEA	EBALUATUTAKO POIEKTUAREN IZENA	HELBURUAK	HARTZAILEAK
	Zineskola — Balioetan hezte	Nerabeen gurasoak sentsibilizatzea, irakasleekin batera parte har dezaten beren seme-alaben heziketan, berdintasun-, errespetu- eta tolerantzia-balioetan oinarrituta, aniztasunean errotutako bizikidetzak sustatzeko	Bilboko 10 ikastetxetako DBHko 1., 2. eta 3. mailako ikasleen gurasoak
	Gureisia Programa—Kirol-gune publikoetan parte hartzea	Kulturarteko planteamenduetatik abiatuta parte hartzea, aniztasuna hobeto kudeatzeko immigranteak protagonista dituzten aisialdi- eta kirol-arloetako ekimen ez-formalek okupatutako guneetan	Udalaren kirol-guneen erabilzaileak
	Gazte laguntzaileak	Ikasle iritsi berrien eta gainerako ikasleen arteko bizikidetzak hobetzea bigarren hezkuntzako ikastetxeetan	Cambrils herriko bigarren hezkuntzako ikastetxeetan ari diren bertako gazteak
Castelló	Ikasle/Bitartekari proiektua	Kulturarteko bizikidetzak hobetzea ikastetxeetan	Castellóko BHI bateko hezkuntza-komunitatea
	Kulturak Hurbiltzen	Kulturarteko bizikidetzak sustatzea Castellón bertan	Castellóko biztanle guztiak
	Kulturartekotasuna erlijio-esparruan	Erligioak elkarri hurbiltzea eta haiek Castellóko biztanle guzti-guztiei hobeki ezagutaraztea	Castellóko biztanle guztiak
	Emakumearen Kulturarteko Mahaia	Kultura desberdinetako emakumeen arteko elkartasuna sustatzea eta babestea eta, horretarako, harrera-talde baten sorrera bultzatzea, Emakumearen Kulturarteko Mahaia inguruan antolatuta	Auzo-elkarteak, ikastetxe eta institutu publikoak edo itunduak, immigrante-elkarteak, erkidegoko elkarteak, emakume-elkarteak eta interesa duten beste hainbat pertsona
	Berdintasun eta Autonomia Proiektua	Gizon-emakumeek etxeko lanetan berdintasun parte hartu behar dutelako ideia zabaltzea adin txikikoen artean, eta autonomia bultzatzea etxeko lanei dagokienez	Valentziako Generalitat-en harrera-zentroetan barneratutako adin txikiko lagundu gabeak
Collado Villalba	V. Elkartasun Astea	Herritartasun-kontzientzia osoa sustatzea	Herritar guztiak; gazteak, bereziki
Donostia	“Donostia Elkarrekin” komunikazio-proiektua. Donostiako biztanleen artean gertatzen diren migrazio-fluxuei buruzko sentsibilizatzeko kanpainak egiteko	Komunikazio-ardatzak azpimarratzea, oinarri izan daitezkeen donostiarrak sentsibilizatzeko komunikazio-kanpaina eta -ekintza egokiak egiteko eta, horrenbestez, errealitatea faltsutzen duten eta gizarte-hipokrisia justifikatzen duten diskurtsoak agerian uzteko	Donostiar guztiak
Gijón	Arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako jardunaldiak	Hirian bizi diren pertsona guztien integrazioa bultzatzea, haien jatorri etnikoa edo kulturala edozein izanda ere, eta jarrera arrazista nahiz xenofoboak aurre hartzea	Gijóngo biztanle guztiak
Leon	Leon anitza eta askotarikoa	Gizarte sentsibilizatzeari bultzada ematea, immigranteak errazago gizartera daitezkeen	Leongo biztanle guztiak
	Herritartasuna Eraikitzen	Migrazio-prozesuak eta -fenomenoak hobeto ulertzen laguntzea, haien ekarpenak nabarmentzea eta aurreiritziei nahiz estereotipoei aurre egitea	Hauek izan dira lehiaketaren xede: publizistak, hedabideetako profesionalak, gazte sortzaileak eta, oro har, herritar guztiak
Madril	Gune publikoen dinamizazioa	Honako hauek lortzeko ekimenak egitea: herritarren arteko bizikidetzak hobetzea, gizarte-harremanak eta kulturen arteko elkarrekiko errespetua sustatzea eta gune publikoen erabilera zuzenari buruzko informazioa ematea herritarrei	Madrilgo biztanle guztiak
	Atzeritarrei aholkularitza juridikoa emateko udal-zerbitzua, bai eta arrazakeria-, xenofobia-, transfobia- eta homofobia-kasuetarako ere	Zerbitzuarekin, tramitazioarekin eta aholkularitzarekin zerikusia duten gaiei buruzko kontsultak ebaztea doako justiziako espedientei dagokienez, eta gizarte sentsibilizatzeko jarduerak egitea	Tratu-berdintasunerako eskubidea urratzen zaien pertsonak eta erakundeak, edo arraza, etnia, kultura, erlijio nahiz sexu-jaiduragatik arrazoiengatik diskriminatutakoak

TOKI-ENTITATEA	EBALUATUTAKO POIEKTUAREN IZENA	HELBURUAK	HARTZAILEAK
Málaga	Prestakuntza Gela-Herriartasun eta Bizikidetza Eskola	Málaga hirian bizi diren immigranteen enplegarritasuna hobetzea	Lan egiteko adinean dauden bi sexuetako immigranteak, baldin eta, Málaga erdialdeko barrutian bizitzeaz gain, gizartean nahiz lan-munduan sartzeko bidea egiten ari badira
	“Mugarik gabeko” Mundu Txapelketatxoa	Hiriko immigrante-elkarteek parte har dezaten sustatzea, bai eta gizartera daitezen ere, askotarikotasunean eta lehiakortasun jatorrean oinarritutako kirol-jardunaldi batzuen bidez	Hainbat herrialde eta kolektibo ordezkatzan dituzten futbol-taldeek parte hartzen dute
Reus	Gizalegea eta Bizikidetza	Bizikidetza- eta gizalege-arauez sentsibilizatzea gehiegizko erroldatze-egoerak atzeman diren auzo-komunitateetan	Reusko auzo bateko biztanleak
San Javier	Hormarekiko integrazio-tailerra	Baztertua gelditzeko arriskuan dauden gazteek beste gizarte-kolektibo batzuekin parte hartzea	Gazteak, immigranteak izan zein ez, hiri-artean interesa dutenak
San Javier	Hormarekiko integrazio-tailerra	Baztertua gelditzeko arriskuan dauden gazteek beste gizarte-kolektibo batzuekin parte hartzea	Gazteak, immigranteak izan zein ez, hiri-artean interesa dutenak
	Oroitzapenaren soinuaren tailerra	Baztertua gelditzeko arriskuan dauden gazteek beste gizarte-kolektibo batzuekin parte hartzea	
Tarragona	Nire eskaileran elkar ulertzen dugu	Auzotarren arteko bizikidetza hobetzen laguntzea haien egungo kulturarteko testuinguruan, parte hartzen ikasiz eta auzotarren eskaileretako elkarrekin ahaldunduz	Tarragonako auzo bateko biztanleak
	Escampa	Immigrazioaren irudi publikoa hobetzea eta askotarikotasuna ezaugarri duen gizarte honen alderdi onak sustatzea	Tarragonako biztanleak oro har eta, bereziki, Sant Salvador, Torreforta, Barris Maritims eta Campclar auzoetakoak
	Hiitz egin dezagun	Espainiako gizarteak migrazio-fenomenoa hobetu uler dezan bultzatzea, kulturarteko bizikidetza hobetzea (askotarikotasuna aintzat hartuz eta tolerantzia-balioak sustatuz), eta immigranteen jatorriko kulturak ezagutzen laguntzea (gizarte osoa aberasten baitu kulturalki)	Berriz bildutako gazteak eta emakumeak (nagusiki baina ez soilik), baldin eta ez badakite ezer hizkuntza, hurbileko inguruneaz, ohiturez, kulturaz eta funtsezko arau zibikoez
	Eta zuk, nola egiten duzu?	Jarrerak aldaraztea immigranteei dagokienez	Bertako biztanleak eta hirira bildu diren atzerritarak
Terrassa	Bizikidetzaren sustapena	Terrassako II. barrutiko gizarte- eta hirigintza-kalitza hobetzea	Terrassako II. barrutiko auzoetako biztanleak
Torre-Pacheco	Kontatu zuk: herritarrek elkartzeko, herritarrek parte hartzeko kulturarteko gunea	Kultura-trukea eta Torre-Pachecon bizi diren gazte eta emakume immigranteen parte-hartze aktiboa sustatzea, eduki teknologikoa eta ikus-entzunezkoa duten jardueren bidez	Torre-Pachecon bizi diren haurrak eta gazteak, bertakoak nahiz immigranteak
Valentzia	Diberzinema. Kulturarteko bizikidetzarako zinema	Hiriko ikasleen arteko kulturarteko bizikidetza sustatzea, ikus-entzunezko hizkuntza erabiliz gizarte- eta hezkuntza-tresna gisa	Munduko jolasen erakusketa-tailerra Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko (5. eta 6. mailetakoa) eta Bigarren Hezkuntzako lehen zikloko (DBHko 1. eta 2. mailetakoa) ikasleentzat da Film luzea DBHko bigarren zikloan (DBHko 3. eta 4. mailetan), Batxilergoan, Prestakuntza-zikloetan, Hasierako Lanbide Kualifikazioan eta Herri Unibertsitateetan ari diren ikasleentzat da
	Pasatu Bola: integrazioa zure eskuetan dago	Valentziarren artean integrazioari, tolerantziari, errespetuari, elkartzunari eta jadanik beren errealitatearen barruan dauden kultura- eta gizarte-errealitate berrien aitopenerari lotutako heziketa sendotzea	Valentzia hiriko familiak, ikastetxeetako ikasleak, futbol-eskolako kideak, immigranteen elkarrekin dagoen kideak

TOKI-ENTITATEA	EBALUATUTAKO POIEKTUAREN IZENA	HELBURUAK	HARTZAILEAK
	Hezkuntza-zorroa	Eskola-komunitate osoarentzako hainbat jarduera iritsaraztea hiriko hezkuntza-sarera, ikasturtean zehar balia daitezen, elkarguneak sortu eta, horren ondorioz, kulturarteko bizikidetzarantz egin ahal izateko	Valentzia hiriko hezkuntza-komunitate osoa
Valladolid	VI. Kulturarteko Astea	Kulturarteko bizikidetzat sustatzea ikuspuntu ludiko eta parte-hartzaile batetik, eta gizarte sentsibilizatzea aintzat hartuta	Valladolideko biztanle guztiak

Ebaluatutako 37 esperientziak heterogeneoak dira, bi ikuspuntu analitikotatik behintzat:

- a) Lehendabizi, 18 toki-entitateen jarduerari dagozkien, baina entitate horiek oso ezaugarri desberdinak dituzte alde askotatik: biztanle-kopurua, udal-mota, sentsibilizazio-jardueretarako baliabideak eta abar. Horrenbestez, esparru honetan ebaluatutako proiektuei lotutako entitateen tipologia hau proposatu dugu:

400.000 biztanle baino gehiago	200.000 biztanle eta 400.000 biztanle artean	100.000 biztanle eta 200.000 biztanle artean	50.000 biztanle eta 100.000 biztanle artean	50.000 biztanle baino gutxiagoko toki-entitateak
Madril Valentzia Málaga	Bilbo Gijón Terrassa Valladolid	Castelló Donostia Leon Reus Tarragona	Ávila Collado Villalba	Cambrils Banyoles San Javier Torre-Pacheco

- a) proiektuen ezaugarriak ere oso desberdinak dira, bai jardueren eta hartzaileen motagatik (batzuk herritar guztientzat dira; beste batzuk udalerriko auzoetako jarduerak espezifikotarako edo biztanle-multzo jakinentzat), bai egindakoak gauza desberdinak izateagatik. Orain, labur azaltzen dira ardatz bakoitzean ebaluatutako irizpideak, eta lan-prozesuan aurkitutako alderdi nabarmenenak azpimarratzen dira, bidea eman baitezakete proposamenak eta gomendioak egiteko, nola toki-entitateentzat, hala tratu-berdintasunean eta diskriminaziorik ezean sentsibilizazio-ekintzak egiteko interesa duten gizarte-eragile guztientzat.


Emaitzen aurkezpena generikoagoa da; hau da, ez da sakontzen udal edo toki-entitate bakoitzak lortutako ebaluazioen emaitzetan, azterketa orokorra interesgarriagozat jotzen baita, tratu-berdintasunaz eta diskriminaziorik ezaz sentsibilizatzeko lanean dauden joera komunak aldetik.

3.1. PRINTZIBIO OROKORRAK

Printzipio Orokorren ardatzaren azterketari esker, hiru alderdi ebaluatu ahal izan ditugu tokiko jardunbideen eta esperientzien garapenean:

Irizpideak	Definizioa
Berrikuntza eta sormena	Elementuak sartzera, sortzea eta/edo hobetzea sistema batean, kudeaketari nahiz ematen den zerbitzuari lotuta egiten diren jardueren bidez, haien barne-funtzionamendua perfektionatzeko, eta jarduerak horien emaitzak ageriko eragina izanik.
Aldagarritasuna	Esperimentu batek daukan ahalmena, bere funtsezko elementuak errepika daitezkeen emaitza ona lortzeko aukera handiarekin, sortu zirenekoa ez bezalako testuinguru batean.
Ikuspegi osoa	Ekimen baten ahalmena, eragin nahi dien faktoreez ikuspegi osoa izatekoa, eta hainbat eragile instituzional ekimenaren garapenera biltzekoa.

Aztertutako 37 proiektuetan hiru irizpide horiez egindako ebaluazio orokorra 1. grafikoan dugu ikusgai:



Oro har, proiektuen ikuspegi osoak lortu du baliorik onena (3,15 puntu, gehieneko puntu-kopurua 5 izanik); hau da, beste gobernu-erlo batzuk ekintzan inplikarazteko eta proiektuen bidez aldatu nahi diren faktoreez ikuspuntu zabala izateko gaitasunak.

Tokiko Sentsibilizatzeko Planak Diseinatu eta Egiteko Gidan aipatuta zegoen zeinen garrantzitsua den beste udal-esparru batzuekin batera lankidetzan aritzea sentsibilizatzeko-ekintzetan¹, batez ere haien xedea biztanle-sektore espezifikoak izanez gero. Integraltasunaren alderdi zehatz horrek lortu du puntu gehien esperientzien eta ekimenen ebaluazioan.

Azpimarratu behar da ikuspuntu osoaren irizpidean kontuan hartzen zela, halaber, tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza lortzeko neurriak edo ekintzak izatea. Esan dezakegu tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren gaineko diskurtsoa ez zela ia batere agertzen edo, behintzat, esplizituki adierazten ebaluatutako sentsibilizatzeko-esperientzietan. Sentsibilizatzeko-ekintzei “kulturen arteko hurbiltze” moduan heltzen zaie, eta, horregatik, komunitate immigranteen gizarte- eta kultura-ezaugarriei buruzko informazioa ematea da xedea, baina herritartasuna, tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza sustatzeko diskurtsoak eta ekintzak ia ez dira agertzen ebaluatutako proiektuetan eta ekimenetan. Hortaz, etorkizunean sakondu beharko den alderdi garrantzitsuenetako bat da.

Aldagarritasun irizpideari dagokionez, beharbada, beharrezkoa da premisa bat ezartzea: aztertutako proiektuetako batek ere ez du jasotzen irizpide hori bere formulazioan edo ebaluazioan. Hau da, arduradun politikoen eta teknikoek ez dute aintzat hartzen aukera hori beren ekimenak abiaraztean. Hala ere, jardunbideak eta esperientziak beste gizarte- eta lurralde-testuinguru batzuetara egokitzeko aukera izan da faktore balioetsiena. Horrenbestez, erabilitako teknikak eta tresnak, esperientziak eta abar hobeto eta gehiago zabaltzea, komunikatzea eta informatzea bitarteko garrantzitsua izan daiteke sentsibilizatzeko-esparru honetan diharduten toki-entitate guztientzat, ebaluatutako esperientzien moldakortasuna eta aplikagarritasuna kontuan hartuta.

Sormenari eta berrikuntzari lotutako irizpidean da handiena ebaluatutako ekintzak hobetzeko tartea. Izan ere, bai jardunbideen tipologiari bagagozkio, bai erabilitako metodologiei erreparatu gero, pentsatzen da alderdi horretan oraindik ere aurrera egin daitekeela nabarmen epe labur eta ertainean. Horretarako, toki-entitateen arteko sare-lanari bultzada ematea eta, arrakastak bezala izan daitezkeen zailtasunak ere ahaztu gabe, jarduerak eta esperientziak hobeto ezagutzea, beharbada, lan-estrategia ona izan liteke sormen- eta berrikuntza-osagaia neurri handiagoan jasotzen duten ekintzak gauzatzeko.

¹ Tokiko Sentsibilizazio Planak Prestatu eta Egiteko Gida, Lan eta Immigrazio Ministerioa, 2009, 67. eta 77. orrialdeak.

Orain, ebaluatutako ekimen batzuetan aipatutako irizpideak azpimarratuko ditugu:

Irizpideak	Toki-erakundeak
Berrikuntza eta sormena	<i>Eta zuk, nola egiten duzu?</i> deritzon Tarragonako ekimenak oso metodologia sortzailea proposatzen du hainbat ekintzaren garapenean, auzo-elkarteek aukera izan dezaten harrerako jarduerak prestatzeko biztanle iritsi berrientzat, bai eta horiei jakinarazteko ere zer elkarte-sare duten ingurune hurbilenean.
Berrikuntza eta sormena	Tarragonako biztanleentzako sentsibilizatzeko-mezuak zabaltzean ezohiko euskarriak erabiltzeak ere (besteak beste, haizemaileak, autobusetarako esekigailuak eta ordenagailuko sagua jartzeko alfonbra txikiak) areagotu egiten du ekimenaren ahalmen sortzaile hori. Terrassako Udalaren Bizikidetzaren Sustatzeko Programaren esperientziaren helburua udal-barruti bateko bizikidetzaren kalitatea hobetzea da, hartan gatazkak eta borrokak izan direlako, aniztasuna arazoan erdian egonik. Gune publikoetan eta auzo-komunitateetan gertatzen diren gizarte-gatazkei aurre egiteko metodologia berri baten aplikazioan dago oinarrituta, eta metodologia hori pixkanaka abiarazten da, lan pertsonalizatua eta tokian tokikoa abiapuntuz hartuta, eta helburu hauek ditu: hezkuntza, prebentzioa, auzoetako kale-dinamizazioa, egoiliarren parte-hartzea eta harremanak izateko guneen sorrera, topikoak eta estigma negatiboak hausteko eta pertsonak elkarrengana hurbiltzeko.
Aldagarritasuna	Castellóko Udalaren <i>Erljio-esparruko Kulturartekotasuna</i> proiektuaren xedea da erlijioetara hurbiltzea eta Castellóko herritarrek haiek ezagutzea. Horretarako, Eguberrietako kontzertuak eta udaberriko jaialdia egiten dira, bai eta kulturen arteko erlijio-foro bat ere, hiru hilean behin biltzen dena. Reusko Udalaren ekimena (<i>Gizalegea eta Bizikidetzaren</i>), berriz, Reusko auzo batean egindako proiektu pilotu batean dago oinarrituta; izan ere, ekimena udalerriko beste auzo batzuetan gauzatzea da helburua. Okupazio handiko hainbat etxebizitza zeudela ohartzean, informazio-triptiko bat egin zen bizikidetzaren eta gizalege-arauei buruz, auzoko etxe guztietan banatu zena. Auzotarrek eta bertoko erakundeek ere parte hartu zuten bizikidetzaren eta gizalege-arazo nagusiak zein ziren zehazteko orduan; ondoren, kartel bat eta triptiko bat prestatu ziren hainbat hizkuntzatan, arazo horiek jaso eta aztertzeko.
Ikuspegi osoa	Cambrilsko Udalaren <i>Gazte Laguntzaileak</i> izeneko esperientzian, ikuspegi osoak emaitza on-ona lortu du ebaluazioan, ikastetxeetara iritsi berriak diren atzeritar jatorriko gazteen gaiari hezkuntza-komunitatearen inplikazioarekin heldu baitio, ikasle eta laguntzailez osatutako taldeak sortzearen eta metodologia nahiz jardueraren berezi batzuk prestatzearen bidez; izan ere, gazteek ikastetxean harremanak izateko eta elkar ezagutzeko aukera ematen dute metodologia-jardueraren horiek, eta aurrea hartzen diete gazteen motibaziorik ezari, bakartzeari eta jatorriko nazionalitatearen arabera taldeak sortzeko tentazioari. Ekimenean, halaber, hiriko eragile instituzional askok parte hartzen dute (Gazteria Zuzendaritzak, Hezkuntza Sailak, Kirol Sailak, Kultura Sailak, Festa Zuzendaritzak, Herritarren Parte-hartze Sailak, Udaltzaingoak, Turismoko Udal Patronatuak, Irrati eta Telebistako Udal Patronatuak).

3.2. ARRAKASTA-ILDOAK

Arrakasta-ildoan azterketari esker, lau alderdi ebaluatu ahal izan ditugu tokiko jardunbideen eta esperientzien garapenean:

Irizpideak	Definizioa
Eraginkortasuna	Jarritako helburuak lortzea.

Eragin positiboa	Ekimen baten ondorio positibo behagarriak eta ebaluagarriak.
Efizientzia	Lortutako emaitzen eta ekimenean erabilitako baliabideen arteko erlazioa.
Iraunkortasuna	Ekimena tokiko administrazioaren antolaketan zer neurritan barneratu den, eta zer aukera dituen irauteko.


Arrakasta-ildoen ardatzaren ebaluazioan, iraunkortasunak lortu du balio handiena (2,68 puntu 5etik). Irizpide horretan, zenbait faktore kontuan hartu dira: ekimenean irauteko zer aukera duten, zenbaterainokoa den haien kanpo-mendekotasuna (batez ere aurrekontuari dagokionez), eta ea txertatuta dauden jardura-plan edo -programa zabalago batzuetan, edo haien mende dauden, bereziki immigranteak integratzeko planen kasuan (izenean nahiz jardueretan izan daitezkeen berezitasunak aintzat hartuta).

Iraunkortasunaren barruan, bi alderdi azpimarra ditzakegu, aditzera eman baitiezagukete sentsibilizatzeko ekimenak gero eta barneratuago daudela toki-entitateetako gobernuen politiketan eta ekintzetan²:

- a) alde batetik, aztertutako esperientziek integrazio-plan edo programekin duten lotura-maila. Erlaziozko ebaluazio-ereduen garapenean, irizpide hau sentsibilizatzeko ekimenean osotasun-irizpideari lotuta egon liteke, heldu beharreko gaiei buruzko ikuspegi zabalagoa adierazten baitigu, zeharka bada ere.
- b) bestetik, denboran zeharreko iraupena eta ekimenaren esperientzia-urteak. Erlaziozko ikuspuntu edo eredu batetik, etorkizunean kontuan hartu beharko litzateke nola erlazionatzen den denboran zeharreko iraupen hori teknika eta metodologia sortzaileak eta berritzaileak abiaraztearekin.

Emaitza onena lortu duten irizpideen sailkapenean, bigarrena eraginkortasuna da, zeinak zerikusia baitauka helburuak ondo zehaztearekin eta haien betetze-mailarekin. Aztertutako esperientzien eraginkortasunak balio handia lortu arren, esan behar da balio horretan eragina izan duela kasu batzuetan proiektuen ebaluazioaz informazio gutxi izateak (berriro helduko diogu horri kudeaketa-ildoen ardatzean) eta, horrenbestez, helburuak zer neurritan lortu diren behar bezala ezin ebaluatu ahal izateak (ikus 2. grafikoa).

Arrakasta-ildoen batez besteko balioak



Gogoeta bera egin daiteke baita eragin positiboari buruz ere, zeinak, besteak beste, proiektuan parte hartu dutenen gogobetetze-mailarekin eta ekimenaren ondorio positibo behagarri eta

² Tokiko Sentsibilizazio Planak Prestatu eta Egiteko Gidan argi adierazten zen sentsibilizazioa arraza- eta/edo etnia-jatorriagatik diskriminazioa borrokatzeko estrategia egokia zela, baina ez estrategia bakar moduan, kolektibo eta komunitate jakin batzuekiko aurreiritzi eta estereotipoen sorreran eragina duten faktoreen gaineko ikuspuntu zabal batean integratutako estrategia moduan baizik.

ebaluagarriekin baitu zerikusia. Ebaluazio orokorrean, ziur aski, eragina izan du ebaluatutako kasu batzuetan informazio gutxi izatea lortutako emaitzei buruz.

Efizientiaren ikuspuntutik, lehen adierazitako hori are nabarmenagoa da. Proiektu baten efizientzia-mailak hartara bideratutako baliabide ekonomikoekin zerikusia duenez gero, oso informazio gutxi izan dugu esperientzietarako aurrekontuei eta baliabideei buruz, eta horrek haien efizientzia ebaluatzea zaildu du.

Esparru horretan, estrategiak zerikusia dauka, ziur aski, sentsibilizatzeko-jardueretan inplikaturik dauden eragile sozial eta instituzionalen artean konfiantza-giroa sortzeko ahalmenarekin, giro hori beharrezkoa baita garrantzi bereziko zatitako informazioak eta dokumentazioak partekatu ahal izateko (adibidez, esperientzien ebaluazioen emaitzak eta haietara bideratutako baliabideenak).

Irizpideak	Toki.entitateak
<p>Eragin positiboa</p>	<p>Bilboko Udalaren <i>Emakumea, Osasuna eta Indarkeria</i> izeneko proiektuaren esperientziak eragin handia izan du proiektuaren hartzaile izandako pertsonen artean. Bilboko emakumeen udal-kontseiluak adierazitako behar batetik sortu zen; izan ere, esan zuten beharrezkoa zela sexu- eta ugalketa-osasunaren esparruan lan egitea, prebentzioaren, informazioaren eta prestakuntzaren bidez. Programaz baliatuta, emakume gazteak hezten dira, erreferentziako pertsonak izan daitezzen beren inguruneetan, kolektiboetan edo parte hartzen duten gizarte-esparruetan. Piztu duen interesaren ondorioz, hasieran uste baino bi aldiz emakume gehiago prestatu dira, eta beste prestakuntza-fase bat planifikatu da 2010. urterako.</p> <p>Madrilgo Udalaren <i>Gune Publikoen Dinamizatzaileak</i> izeneko ekimenaren helburua da Madrilgo herritarrentzat hainbat jarduera, ekintza eta lan gauzatzea, herritarren arteko bizikidetzak hobetzeko, kulturarteko gizarte-harremanak hobetuz eta herritarrak sentsibilizatuz gune publikoen erabilera zuzenaz, kulturen arteko elkarrekiko errespetuaz eta herritar guztiak elkarrekin behar bezala bizi daitezzen gune komun bat eraikitzeko beharraz den bezainbatean. Madrilgo 21 barrutietako 51 dinamizatzaileei esker, jarduera-kopuru handia egin ahal izan da auzoetan, eta gune txiki zein ertainetan diharduten hainbat motatako gizarte-erakundeekin koordinatu ahal izan dira ekintzak.</p>
<p>Efizientzia</p>	<p>Torre-Pachecoko Udalaren esperientzia (<i>Kontatu zuk</i>) gazteak eta adin txikikoak sentsibilizatzeko eta parte hartzera bultzatzeko proiektua da. Programa honen barruan egindako jardueren bidez kultura-trukea eta Torre-Pachecon bizi diren gazte eta emakume immigranteen parte-hartze aktiboa sustatu dira, eduki teknologikoa eta ikus-entzunezkoa duten jardueren bidez.</p> <p>Metodologia eta tresna berrien nahiz sortzaileen erabilera funtsezkoa izan da gazteen artean proiektuko jardueretan parte hartzeko interesa eta motibazioa sustatzeko; horrenbestez, esperientziaren helburuak neurri handian lortu dira.</p>
<p>Iraunkortasuna</p>	<p>Ávilako Udalaren <i>Ikastetxeetan Sentsibilizatzeko Programa</i> premia baten ondorioz sortu da: jarrera intoleranteak eta xenofoboak agertu dira haurren eta gazteen artean, eta beharrezkoa da horri aurrea hartzea. Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeekin koordinatuta egin beharreko zenbait jarduera biltzen ditu programak bere barruan, eta helburu nagusi bat dauka, ikasleak sentsibilizatzea ikasgeletako aniztasun etnikoaz eta kulturalaz, hala nola arrazakeriaren eta intolerantziaren prebentzioa.</p> <p>Programa hainbat sailekin dago koordinatuta (Haurtzarora, Gazteria, Animazioa, Emakumea, Oinarrizko Ekintza eta Gizarteratzea, Parte-hartzea, Enplegua, Kultura eta Kirolak, Estatistika) eta etengabe gauzatzen ari da 2005/06 ikasturteaz geroztik. Ávilako Udalak soilik finantzatzen du, eta horrek argi uzten du noraino dagoen sartuta ekimena udal-agendaren barruan.</p>

3.3 KUDEAKETA-ILDOAK


Kudeaketa-ildoen ardatzaren azterketan, hiru irizpide agertzen dira, aurkeztutako toki-jardunbideen eta -esperientzien edukia ebaluatzeko aukera ematen dutenak.

Irizpideak hauek dira:

Irizpideak	Definizioa
Planifikazioa	Komunitatean garatzeko prozesu bat finkatzea, hari buruzko ikuspuntu dinamiko batetik abiatuta eta, horrenbestez, komunitatearen parte-hartzea eta inplikazioa bere barruan hartuta funtsezko alderdi gisa.
Lidergoa	Ekimen baten bultzatzaileek hura bai aurreikusitako helburuen arabera bai zerikusia duten eragileen parte-hartzea eta motibazioa sustatuz garatzeko daukaten gaitasuna.
Neurtze- eta egiaztatze-sistema	Sistemak ezartzea gauzatutako neurrien jarraipena eta ebaluazioa egiteko, eta jarduera horiek aurreikusita zeuden helburuei dagokienez zer ondorio dituzten kontrolatzeko.

Ardatz honetan, azpimarragarria da ebaluatutako irizpideetako batek ere ez duela "nahikoa" gainditu, eta batez besteko balioa gehieneko 5etik 2,41 puntukoa izan dela (ikus 3. grafikoa).

Kudeaketa-ildoen batez besteko balioak



- a) Neurtze- eta egiaztatze-sistemen kasuan, esan behar da ia aztertutako esperientzia guztiek sistema desberdinak dituztela gauzatutako ekimenak neurtzeko. Hala ere, egia da, halaber, aztertutako esperientzia guztietan bat datozela neurtzeko sistema horiek ekimen bakoitzerako espezifikoak diren neurketa-adierazle kuantitatiboen garapenarekin. Esperientziak aztertuta, ezin ondoriozta daiteke ekimen bakoitzerako *ad hoc* adierazleak ez diren beste neurtze- eta egiaztatze-sistema espezifiko batzuk daudenik, edo haiei buruz gogoeta egin denik, eta, horren ondorioz, nabarmen zailagoa da erabakitzea zein den haien eraginkortasuna, efizientzia eta eragin positiboa, bai eta beste esperientzia batzuekin alderatzea ere. Alde horretatik, ESCI III Proiektuaren barruan, neurtze- eta egiaztatze-sistemei buruzko hasierako gogoeta sustatu da, bai eta eztabaida bat proposatu ere, tratu-berdintasunaz eta diskriminaziorik ezaz sentsibilizatzeko esperientzia bat ebaluatzean kontuan har daitezkeen irizpide eta adierazleei buruz. Lan- eta gogoeta-dokumentu bat prestatu da, eredu bat proposatzen duena ESCI Proiektuaren faseetako lan-esperientzian oinarrituta, eta egoki daitekeena edo orientazio gisa balio dezakeena tokiko gobernuztat, sentsibilizatzeko-esparruan dihardutenean.
- b) Planifikazio irizpideari dagokionez, kontuan hartu behar da zein den proiektu honen abiapuntuan sentsibilizatzeari buruz dagoen ikuspegia; izan ere, proiektuaren arabera, sentsibilizatzeko-lana ekintza-multzo batez osatuta dago, eta ekintza horiek planteatutako helburuak lortzeko esparru komun eta partekatu baten barruan daude; hau da, jarduera-

estrategia planifikatu bat dago (horren ondorioa da tokiko sentsibilizatzeko-planak egiteko gida proposatzea). Irizpide hau ebaluatzean faktore hauek kontuan hartu dira: ea diagnostikorik dagoen, diagnostikoetan zer metodologia erabili diren eta ea jarduteko egutegi zehatzik dagoen, hala nola zer neurritan bete den eta gauzatu bitartean zer ustekabe gertatu diren. Faktore horiei dagokienez, balioetsi beharrekoa da jardueren eta ekintzen kronogramak egotea, ondo zehaztuta daudelako, baina beti ez dago informazio egokirik ustekabeei eta egutegi horiek bete artean izan daitezkeen arazoei buruz, nahiz eta hori aukera handia izan ikasteko eta esperientzia lortzeko.

ESCI III Proiektuaren barruan dauden datuak aintzat hartuta, badirudi diagnostikoen esparruan eta aplikatutako metodo eta tekniken esparruan dagoela toki-entitateen jardunbideak hobetzeko aukera argia. Izan ere, aztertutako esperientzia gehien-gehienetan ez dirudi aldarazi nahi duten egoeraren diagnostikoan oinarritzen direnik; aitzitik, badirudi proiektuan esku hartzen duten profesionalen errealitateaz duten ezagutzan oinarritzen direla. Jakina, profesionalen ezagutza hori ez da intuizioan oinarritzen, oso irizpide eta informazio baliagarri batzuetan baizik, eta irizpide-informazio horiek, askotan, esperientziaren eta eragindako egoerei buruzko ezagutza zuzenaren emaitza dira. Horren adierazgarria da toki-gobernuetako profesionalen konpromiso- eta inplikazio-maila izatea ESCI IIIko talde teknikoak gehien balioetsitako faktoreetako bat toki-entitateetara egindako bisiten fasean. Zalantzarik gabe, sentsibilizatzeko-ekintzak sustatzeko eskura dauden aktibo nagusietako bat da.

Horregatik, guztiz egokitzat jotzen da ez bakarrik giza taldeen profesionaltasuna eta esperientzia izatea, bai eta tresnen eta tekniken aplikazioan lan egitea ere, sentsibilizatzeko-ekimenean oinarri diren egungo irizpideak zertan bermatu izateko.

Irizpideak	Toki-entitateak
<p>Planifikazioa</p>	<p>Donostiako Udalaren Donostia-Elkarrekin <i>Komunikazio Proiektua</i> donostiarrek udalerrian bizi diren etorkinez dituzten pertzepzioei, balioei eta jarrereri buruz ikerketa-diagnostiko sakon bat egitean datza. Ikerketatik abiatuta, diskurtsoak identifikatu egiten dira eta 2008tik 2010era bitarte hileroko planifikatutako Komunikazio Proiektuko jardueren hartzaile diren donostiarren tipologia egiten da. Gainera, Proiektua Immigrazio-esparruko Jarduera Planari lotuta dago, eta azken horretan donostiarrentzako komunikazio-ekintzak egitea aurreikusten da.</p> <p>Castellóko Udalaren <i>Ikasle/Bitartekari</i> esperientziak funtsezko helburu hau du: kulturarteko bizikidetzaren hobetzea hiriko ikastetxeetan. Horretarako, hezkuntza-komunitatean lan egiten da, berdin artean jardungo duten gazte bitartekariaren prestakuntza egin ere, komunikazioa eta bizikidetzaren hobetzeko, parte-hartzea sustatzeko eta hezkuntza-komunitatea gatazken prebentzioan inplikatzen. Proiektuaren oinarrian ikerketa/diagnostiko bat dago, baliagarria izan zena atzeritarrekiko jarrerak eta pertzepzioak aztertzeko eta I Immigrazio Plana (2006tik 2009ra bitarteko indarraldikoa) garatzeko; bada, <i>Ikasle/Bitartekari Proiektua</i> esperientzia horretan dago txertatuta.</p>
<p>Lidergoa</p>	<p>Gijóngo Udalak antolatzen duen esperientzia <i>–Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurkako Jardunaldiak–</i> martxoaren 21ean Arrazakeriaren eta Xenofobiaren Aurkako Eguna egitean datza, eta horren kariatara jardunaldi batzuk antolatzen dira, nagusiki martxoan zertzen direnak eta urte osoan zehar planifikatutako zenbait ekintza biltzen dituztenak.</p> <p>Jardunaldiak antolatzeko ekimena Gijóngo Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Sailari dagokio, erakunde publiko eta pribatuz osatutako lantalde zabal eta askotariko bat osatzen baitu horretarako.</p> <p>Valentziako Udalaren <i>Hezkuntza-zorroa</i> proiektua Immigranteen Integrazioarako I. Udal Planaren barruan dago, eta “Valentzia, kulturen mosaikoa” bizikidetzaren programa osatzen duten jardueretako bat da; programa horren helburu behinena hirian kulturartekotasuna sustatzea da prebentzioaren eta elkarrekiko</p>

	<p>ezagutzaren ikuspuntutik, eta bere barruan hainbat proiektu prestatzen dira, zenbait esparrutan sentsibilizatzeko ekintzak jasotzen dituztenak, immigrazioaren errealitate berriari erantzuteko. Proiektuaren xedea da hiriko hezkuntza-sarera helaraztea eskola-komunitate osoarentzako (irakasle, ikasle eta gurasoentzako) jarduera batzuk, ikasturtean zehar eman daitezen, elkarteko guneak eta tokiak sortzeko eta, horrenbestez, kulturarteko bizikidetzaranzko bidean aurrera egin ahal izateko. Bertan, lehenago hiriko ikastetxeetan jarduerak egin dituzten gizarte-ekimeneko zazpi entitaterekin esperientziak jasotzen dira.</p> <p>“Tots a una por la diversidad” (“Denok batera aniztasunaren alde”) deritzon zorroko proiektua Immigrazioaren Babes Zentroak garatzen du, gizarte-ekimeneko zazpi entitaterekin batera. Gizarte-erakundeak hauek dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Errefuxiatuen Babeserako Valentziar Elkarte (AVAR) - Bakearen, Desarmearen eta Askatasunaren aldeko Mugimendua - Intolerantziaren aurkako Mugimendua - Jarit Elkartea Zibila - València Acull (Valentziak hartzen du) - La Casa Grande (Etxe Handia) - Aracova
<p>Neurtze- eta egiaztatze-sistema</p>	<p>Banyolesko Aintzirarako Planaren barruko Gizarte Ongizateak eginiko <i>Canaleta auzoko festa nagusia berreskuratzeko belaunaldiarteko proiektua</i> izenekoa Tokiko Gizarteratze Planaren diagnostikoan oinarritzen da; izan ere, diagnostikoak azaltzen du Canaleta auzoak, besteak beste, bizikidetzari eta gune publikoen eta ludikoen erabilerari lotutako arazoak dituela. Banyolesko Canaleta auzoan dauden bizikidetzarazo larriak atzeman ondoren, auzoko festa nagusia berreskuratzea proposatzen da, eta, horrenbestez, hainbat jarduera interesgarri egitea, parte-hartezko eta belaunaldiarteko esku-hartze ildo bati jarraitzeko, inguruko gizarte-eragileen inplikazioaren bidez.</p> <p>Proiektuak zer emaitza dituen jakiteko, jarraipen- eta ebaluazio-metodologia zehatz bat prestatu da, bai profesionalak bai proiektuan parte hartzen dutenak inplikatzen dituena.</p> <p>Madrilgo Udalaren atzeritarrentzako orientazio juridikorako eta arrazakeria-, xenofobia-, transfobia- nahiz homofobia-kasuetarako udal-zerbitzua Madrilgo Udalaren eta Madrilgo Abokatuen Elkargoaren arteko hitzarmen bidez garatzen da, eta zerbitzu bat ematea erabakitzen da, atzeritartasun-, arrazakeria-, xenofobia-, transfobia- eta homofobia-alorreko kontsultei erantzuteko, eta doako laguntza juridikoaren eskaerak tramitzeko, laguntza hori beharrezkoa izan eta lege ezarritako baldintzak betez gero.</p> <p>Abokatuen Elkargoak atzemandako kasu guztien jarraipen osoa egiten du, hala nola gauzatutako ekintzen ebaluazio-memoria osoa.</p>

3. 4 ZEHAR-PRINTZIOAK

Kudeaketa-ildoei dagokien ardatzaren azterketari esker, lau alderdi ebaluatu ditugu toki-jardunbideen eta -esperientzien garapenean:

Irizpideak	Definizioa
<p>Herritarren inplikazioa</p>	<p>Herritarrek, dela lurraldeko gizarte-erakundeen bidez, dela parte hartzeko beste mekanismo batzuen bidez, egoeraren diagnostikoan, eztabaidan eta politiken diseinuan parte hartzea, hala nola sentsibilizatzeko ekimenen garapenean.</p>
<p>Genero-ikuspuntua</p>	<p>Ekimenaren garapenean emakumeen (bereziki emakumezko etorkinen) behar eta egoera espezifikoak kontuan hartzen dira.</p>

Kulturarteko ikuspuntua	Ekimenaren garapenean zer neurritan jaso den kulturarteko ikuspuntua.
Adin-ikuspuntua	Ekimenaren garapenarekin zerikusia duten adin-taldeen behar eta egoera espezifikokoak kontuan hartzen dira.

Kulturarteko ikuspuntua izan da oro har gehien balioetsitako irizpidea (3,22 puntu, gehieneko puntuazioa 5 izanik). Puntuazio hori, lehenago adierazi bezala, ekimen gehien oinarrian "hurbilketa kulturala" egotearekin lotu behar da; horrenbestez, ez da harriztekoa alderdi honi balio handia eman izana.

Dudarik ez dago elementu positiboak daudela balioespen horretan, baina, era berean, azpimarra dezakegu arrisku bat egon daitekeela ikuspuntu honetan, kulturalismo gisa defini dezakeguna; hau da, aldagai kulturalaren mende jartzea harekin zerikusirik ez duten faktoreak. Alde horretatik, ohartarazi nahi dugu aukerakoa dela alderdi anitzeko ikuspuntuak erabiltzea, bereziki garrantzitsuak baitira tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren esparruan. Gehien balioetsitako bigarren irizpidea adin-ikuspuntua izan da. ESCI III Proiektuaren lantaldearen garapenean, irizpide hau sentsibilizatze-ekimenen garapenean jaso beharreko elementu gisa ebaluatzea proposatu zen, bereziki ekimen horiek diskriminaziorik ezari lotuta badaude, eta adina funtsezko faktorea bada alderdi honi dagokionez.

Esan dezakegu irizpideari azkenean emandako balioa, ziur asko, lantaldeak hasieran uste baino handiagoa izan dela. Baliteke hori ebaluatutako ekimenen artean gazteei hezkuntza-esparruan bezala gune informaletan ere zuzendutako ekimenen kopurua handia izatearen ondorioz gertatzea. 37 esperientzietatik 11 gazteentzakoak dira, eta balio orokor hobea lortu dute alderdi honi dagokionez, argiago ikusten edo zehazten dutelako zein diren adin-talde horren behar eta egoera espezifikokoak. Hala ere, salbuespenak salbuespen, ebaluatutako ekimenek oraindik ez dituzte barnebiltzen zenbait kolektibok adin-taldekak dituzten behar espezifikokoak. Ziur asko, irizpide honetaz oraindik ez da planteatu gogoeta zabalago bat sentsibilizatze-ekintzetan, baina, ESCI II Proiektuaren esperientzietatik abiatuta, uste dugu kontuan hartu beharko litzatekeela adin-taldeetarako jardueren eta ekintzen diseinuan.

Hala ere, ESCI III Proiektuko lantaldea, beharbada, herritarren inplikazioari eta genero-ikuspuntuari lotutako irizpideen balio txikiak harritu dute gehien. Izan ere, ESCI II Proiektuan sentsibilizatzeaz esaten zen ez bakarrik jarduteko estrategia planifikatu bat dela, bai eta honako hau ere: "... komunitatea garatzeko tresna, gizarte-jarrerak eta -jardunbideak aldarazteko balio duena, komunitatearen eta komunitate horretako eragileen parte-hartzearen bidez"³.


Aztertutako esperientziez egindako ebaluazioaren argitan, argi dagoela ematen du honako hau ideal bat dela, eta tokian tokiko gure jardunbide eta esperientzietan oraindik bide luzea geratzen zaigula jomuga horretara iritsi arte. Izan ere, badirudi aurrera egiten ari dela nabarmen beste udal-sail batzuetan, baina ez du ematen gauza bera gertatzen denik beste gizarte-eragile batzuek komunitatean (lotura eta interes komun jakin batzuk izan eta lurralde berean bizi diren pertsonen multzo gisa ulertuta)⁴ duten parte-hartzean.

Zoritxarrez, ezin dugu inolako arrazoirik eman azaltzeko zergatik gertatzen den hori, ESCI III Proiektuaren helburuetako bat sentsibilizatze-ekimenak identifikatzea eta hautatzea baitzen, eta ez emaitza onen edo txarren kausetan sakontzea. Hala ere, talde teknikoak uste du beharrezkoa dela kontu horretaz ohartaraztea eta herritarrek sentsibilizatze-esperientzien diseinu, garapen eta ebaluazioan duten inplikazio eta parte-hartze eskasaren arrazoiak sakontzea. Bukatzeko, azpimarragarria da, halaber, zer balio gutxi eman zaion genero-ikuspuntuari aztertutako esperientzietan. Lehenik eta behin, nabarmendu behar da 37 ekimenetatik bi baino ez zirela emakumeentzat. Ekimen horiek lortu dute puntuazio orokor onena genero-ikuspuntuari dagokionez; esperientzietan oro har, berriz, ia ez zegoen informaziorik irizpide horri buruz. Hipotesi moduan, esan genezake berdintasun-sailak toki-gobernuetan asko zabaldu izanak, ziur asko, eragina izan dezakeela beste udal-sail batzuek bultzatzen dituzten ekimenean; kasu honetan, immigrazio-politiken ardura duen sailak sustatutakoetan.

³ Ikus Herritartasun eta Integrazio Plan Estrategikoa, Lan eta Immigrazio Ministerioa.

⁴ Ikus Tokiko Sentsibilizazio Planak Prestatu eta Egiteko Gida, 26. orrialdea.

Aztertutako 37 proiektuei dagokienez, lau irizpide horiei emandako puntuazio orokorra 4. grafikoan azaltzen da.



Irizpideak	Toki-entitateak
Herritarren inplikazioa	<p>Valladolideko Udalaren <i>VI. Kulturarteko Asteak</i> Valladolideko herritar guztientzako hainbat jarduera biltzen ditu, herritarrak sentsibilizatzea eta kulturarteko bizikidetza sustatzea xede dutenak. Proiektuak ikuspuntu ludikoa, parte-hartezkoa dauka, gizartea sentsibilizatzearen aldekoa, harrerako gizarteak eta herritar berriek elkar ezagutzea dakarten esperientziak partekatzea oinarri hartuta. Ekimena Immigranteak Integratzeko I. Udal Planaren barruan (2005-2008) dago; gainera, 2009. urtean, immigrazio-arloko urteko planifikazioan sartu dute. Gizarte-eragileen parte-hartzeari ematen zaio lehentasuna erabilitako metodologian; izan ere, programazioak hiriko Immigranteen Kontseiluari aurkezten zaizkio (organo horretan hainbat eragile daude ordezkatuta: immigranteen elkarteak, immigranteei laguntzeko GKEak, sindikatuak, administrazioak...).</p> <p>Aldian behin bilerak egiten dira aipatu astearen barruko jarduerak prestatzeko, jarduera horiekin zerikusia duten eragileekin egin ere, elkarrizketa berrelikatu egiten da, eta teknikoki nahiz ekonomikoki bideragarriak diren proposamenak jaso.</p> <p>Valentziako Udalaren <i>Diberzinema, kulturarteko bizikidetzarako zinema</i> proiektua da hiriak Tolerantziaren Mundu Eguna (azaroaren 16a) ospatzearekin bat egin izanak adierazteko dituen moduetako bat. Hiriko eskola-umeen arteko kulturarteko bizikidetza sustatzea da proiektuaren helburua, eta ikus-entzunezko hizkuntza erabiltzen du gizarte- eta hezkuntza-tresna gisa.</p> <p>Proiektua antolatu den bigarren urtean hainbat jarduera egin dira hiriko eskola-umeentzat, jarduera horiek elkartasun- eta desberdinarekiko onarpen- eta tolerantzia-tresna gisa ulertuta.</p> <p>Gizarte Ongizate eta Integraziorako Zinegotzigoak, Lan eta Immigrazio Ministerioak eta Bancaja fundazioak proposatzen eta finantzatzen dute jarduera, Immigrazioari Laguntzeko Zentroak (CAI-AMICS) koordinatzen du, eta erakunde publiko nahiz gizarte-erakunde asko eta askotarikoak lankide izan dira.</p>
Genero-ikuspuntua	<p>Málagako Udalaren <i>Prestakuntza Gela/Herritartasun eta Bizikidetza Eskola</i> deritzonak gizarte- eta lan-munduan sartzeko bidea Málaga hiriko zenbait gizarte-entitatetan egiten ari diren immigranteen enplegarritasuna hobetzea du xede. Horretarako, bi ekintza-mota egiten dira:</p>

	<ul style="list-style-type: none"> - Alde batetik, eta immigranteei begira, lau prestakuntza-ekintza egiten dira urtero, Málagaan zabaltzen ari diren zenbait lan-sektoreekin zerikusia dutenak. - Bestalde, zerikusia duten eragileei zuzenduta (herri-administrazioak, enpresaburuak eta gizarte-erakundeak), urtero prestakuntza- eta gogoeta-jardunaldi batzuk antolatzen dira, "Aniztasuna eta lan-merkatua" gaitzat hartuta. <p>Proiektuaren hartzaileei dagokienez, azpimarratzekoak dira familia-kargak dituzten edo gizartetik baztertuta gelditzeko arriskuan dauden emakumeentzako jarduerak; bestela, genero-ikuspuntua inplizituki dago adierazita proiektuko ekintza guztien garapenean. Castellóko Udalaren <i>Berdintasuna eta Autonomia</i> esperientzia gazteek Castelló hiriko harrera-zentroetan duten egoeraren azterketa laburrean dago oinarrituta, azterketa horrek argi erakusten baitu gazte-multzo handi samar bat dagoela, harrera- eta/edo abegi-zentroetatik pasatu ondoren laguntza berezia behar duena, alde batetik, autonomia lortzeko etxeko lanetan, eta, bestetik, lan horiek emakumeenak soilik ez direlako kontzientzia hartzeko. Horrenbestez, 50 orduko prestakuntza-modulu batzuk prestatu dira helburu hauekin: alde batetik, adingabeak sentsibilizatzea eta haien artean zabaltzea emakumeek eta gizonek etxeko lanetan neurri berean parte hartu behar dutelako ideia; bestetik, etxeko lanekiko autonomia sustatzea.</p>
<p>Kulturarteko ikuspegia</p>	<p>San Javierko Udalaren <i>Oroimenaren soinuak</i> tailerra 2009ko Imajina Proiektuko jarduera-programazioaren barruan dago. Atzerritar jatorriko 10-14 urte bitarteko gazteekiko tailer/esku-hartze bat da, gazte horien soinu-memoria berreskuratzea xede duena (haiek beren jatorriko herrialdeekin harremanetan jartzearen bidez). Tailerrean Ekuadorko, Kolonbiako eta beste hainbat herrialdeetako zenbait gazte parte hartu dute, eta amaieran arte-instalazio bat sortu da, herriko gazteek eta haien senide zein lagunek ikusi ahal izan dutena.</p> <p>Banyolesko Aintzirarako Plan barruko Gizarte Ongizate Partzuergoaren <i>Esperientziak Trukatzeko Belaunaldiarteko eta Kulturarteko Proiektua</i> Herritartasun eta Immigrazio Planaren nahiz Mendekotasun egoeren Prebentziorako Zerbitzuaren ekimen pilotua da. Proiektuaren xedea belaunaldiarteko eta kulturarteko harremana sustatzea da, kultura-jatorri eta adin desberdineko pertsonen orain baino gehiago elkar ezagut dezaten. Horretarako, bertako 6-10 pertsona helduk eta kultura-jatorri desberdineko 12 urteko haurrek osatutako talde bat osatzen da. Bi multzo horiek harremanetan jartzen dira ikastetxe bateko ikasgela batean, bi une historiko desberdinetako pertsonen arteko harremanekin, haurtzaroarekin, lurraldearen historiarekin, aisialdiarekin zerikusia duten esperientziak partekatuzko.</p>
<p>Adin-ikuspuntua</p>	<p>Leónko Udalaren <i>Herritartasuna eta Kulturartekotasuna</i> esperientziaren xedea migrazio-prozesuak eta -fenomenoak hobeto ulertaraztea da, eta, horretarako, haien ekarpenak azpimarratzen ditu, aurreiritziei eta estereotipoei aurre egiten die eta aniztasuna ezaugarri duen gizartearen alderdi positiboak nabarmentzen ditu. Hori dela eta, "Kartelak, kontakizun hiperlaburrak eta testu-mezuak" lehiaketa antolatu da, hiru adin-multzotan banatuta: 16 urtetik gorakoak, 18 urtetik gorakoak eta 12 urtetik 16 urtera bitartekoak. Immigranteak Leon hirian nola integratzen diren aztertu da lanetan eta, lanen kalitatea ez ezik, hizkuntza berdintasunezkoa, positiboa eta kultura-aniztasunaren aberastasunera irekia erabili den ere kontuan hartu da.</p> <p>Collado Villalbako Udalaren <i>V. Elkartasun Astea</i> gizarte sentsibilizatze eta mobilizatze Tokiko Ekintzen Proiektuaren barruan dago. Herritartasun-kontzientzia orokorra sustatzea da helburua eta, horretarako, adin-multzo bakoitzari egokitutako zenbait jarduera-mota antolatzen dira astean zehar.</p>

4 EMAITZA ONEKO KASUEN AUKERAKETA

ESCI III Proiektuaren garapenari esker, toki-entitateak gizarteratze-, sentsibilizatzeko eta kulturarteko bizikidetzaren esparruan gauzatzen ari diren jarduerak, proiektu eta programa asko identifikatu ahal izan genuen. Ez da erraza askotariko eta kultura anitzeko gizarte baten eraikuntza-prozesuei estu lotutako gizarte-interbentzioaren multzo handiak argi bereiztea; are gutxiago sentsibilizatzeko arloko esperientzia eta jardunbide espezifikoak aukeratzeko, sentsibilizatzeko garrantzi bereziko zehar-esparrua izaki.

Emaizta oneko kasuak ebaluatu eta aukeratzeko metodologia aurreko atalean azaldu da. Hala ere, nabarmen daiteke proiektu honetan, hasieran, emaitza oneko kasuen identifikazioa eta aukeraketa lau esparru jakinetan planteatzen zela:

- Generoa.
- Gazteak.
- Bizikidetzaren eta gunen publikoen erabilera.
- Zerbitzu publikoetarako sarbidea.

Multzoak elkarren baztertzaila ez izatea da arazo nagusietako bat, hala nola zenbait ekimen multzo batean baino gehiagotan sailkatu ahal izatea, zergatik eta, helburuetan adierazitakoaz haratago, beren helburuek nahiz jarduerak zehatzek dauzkaten ezaugarriengatik. Horrenbestez, errealitatea askotarikoagoa eta konplexuagoa dela kontuan hartu behar dugu hasieratik, eta, beraz, azterketarako multzoak ezin dira guzuzen itxiak izan; alderantziz, baizik.

Proiektuan parte hartutako toki-entitateekiko lan-prozesuari esker ohartu ahal izan gara toki-entitate parte-hartzaileen lehentasunak gazteen, bizikidetzaren eta gunen publikoen esparrurantz aldatzen ari direla.

ESCI III Proiektuari dagokionez, bi zirkunstantzia horiek izan dute eragina emaitza oneko kasuen hautaketan. Aukeratutako 37 esperientziak sistematizatu eta ebaluatu ondoren, sei proiektu hautatzea erabaki zen:

- *"BIZIKIDETZAREN SUSTAPENA" PROGRAMA*. Terrassako Udala.
- *"GUNE PUBLIKOEN DINAMIZAZIOA" PROGRAMA*. Madrilgo Udala.
- *"EMAKUMEA, OSASUNA ETA INDARKERIA" PROGRAMA*. Bilboko Udala.
- *"KULTURARTEKO ASTEA"*. Valladolideko Udala.
- *"KONTATU ZUK" PROGRAMA*. Torre-Pachecoko Udala.
- *"DONOSTIA ELKARREKIN" KOMUNIKAZIO-PROGRAMA*. Donostiako Udala.

Ondoren, aukeratutako esperientzia bakoitza aurkeztuko dugu, eta hauek azpimarratuko ditugu: esperientziari lotutako udalaren testuinguru sozial eta demografikoa; jardunbideak esperientzia garrantzitsua izatea eragin duten alderdiak; esperientziaren helburuak; esku hartzeko, jarraipena egiteko eta eragina ebaluatzeko metodologia; onuradun diren herritarrak; eta erabilitako bitartekoak. Gainera, ikasketaren eta aldagarritasunaren ikuspuntutik garrantzitsuak diren faktoreak ere nabarmenduko ditugu.

■ BIZIKIDETZA SUSTATZEKO PROGRAMA. Terrassako Udala

Azken bost urteetan (2004-2009) atzerritar jatorriko biztanleen kopurua bikoiztu egin da Terrassan; horrek esan nahi du hiri horretako biztanle-kopuruaren gehitze-tasa askoz handiagoa izan dela Bartzelonako probintziako gainerako udalerrietakoa baino. Aldi horren hasieran, herritarren %8 zen atzerritarra; amaieran, berriz, %15; gainera, espainiar jatorriko biztanleen kopurua handitzen ari zen hirian. Bataren zein bestearen ondorioz, ia 22.000 pertsona gehiago bizi ziren bertan aldiaren amaieran hasieran baino; hau da, %10 baino zerbait gehiago.

Nazionalitateei dagokienez, azpimarragarriena marokoar jatorriko biztanleen kopuru handia da, Terrassako atzerritar guztien %41 baino gehiago baitira. Marokoar jatorriko biztanleekin batera, ekuadortar jatorrikoena da multzo handiena (%10); gainerako nazionalitateei dagokienez, berriz, batek ere ez du gainditzen atzerritar jatorriko biztanleen %5eko kopurua.

Terrasan, sentsibilizatzeko-jarduerak *Bizikidetza Sustatzeko Programaren* mende daude, eta programa hori Herritartasun eta Eskubide Zibiletarako Zerbitzuak bultzatu du, hiriko beste zerbitzu, entitate eta erakunde batzuekin batera. Lehendik egiten ari zen informazio- (prebentzio-) eta prestakuntza-lana baztertu gabe, oraindik ere beharrezkoa baita, eta oinarritzko laguntza-zerbitzuak emateari utzi gabe, Udalak erabaki du beharrezkoa dela herritar nazionalen eta atzerritarren arteko loturak sendotzea eta, horrenbestez, pertsonen gizarte-harremanei eragitea, kulturarteko bizikidetza indartuz.

Udalak ez du espezifikoki garatu inolako immigrazio- eta herritartasun-planik edo -programarik, baina bizikidetza hobetzeko helburuari lotutako programa garrantzitsu batzuk abiarazi ditu, eta *Erakundeen arteko Sareak Sustatzeko Proiektua*, *Bizilagunen arteko Gizarte Sareak Sustatzeko Proiektua* eta beste zenbait ekimen garatu.

Gaur egun, horrelako jardueren ardura Herritartasun eta Eskubide Zibiletarako Zerbitzuarena da. Etorkizun hurbilean, Gizarte Zerbitzuek bat egingo dute aurrekoarekin, hiriko zenbait aldetan komunitate-lana batera egiteko.

Zergatik da garrantzitsua ekimena?

Terrassako II. Barrutian (Can Anglada, Montserrat, Vilardell eta Torre-sana auzoak) hainbat faktore gertatzen dira batera, lurraldea bi mailatan banantzea ekartzen dutenak: alde batetik, auzo-unitateen artean, eta horrek gizarte-taldeak lurralde txiki eta hurbil batean bereizita garatzea ekartzen du; bestetik, ekialdeko ingurua Terrassako gainerako hiri-barrutitik bereizi egiten da. Egoera horrek gizarte-gatazkako testuinguru iraunkor bat sortu du, periferiako auzo pobre eta hondatuaren berezko gizarte-, ekonomia- eta hirigintza-arazoekin ez ezik, herritarren arteko desberdintasun etnikoei lotutako bizikidetza-arazoarekin ere zerikusia duena. Horregatik, programak lehentasuna eman dio "bizikidetzaren sustapenaren" barruan sare-lana ahalbidetu eta sendotu duen proiektu bati, eta, gizarte-bizikidetzaren hobekuntza bermatzeaz gain, entitate sozial eta instituzionalen arteko sare-lana sustatu du.

Zertan datza esperientzia?

Ekimenaren deskribapen laburra	Auzoetarako Plana: Esku-hartze Integrala Terrassako 2. Barrutian delakoaren barruan, besteak beste, Bizikidetza Sustatzeko Plana izeneko zehar-programa garatu da. Terrassako Udalak bere kudeaketa sektoreka antolatzen du, udal-sailak eta udal-institutuak (kanpokoak) baliatuz. Bi motatako sektore-organo horiek dute erabakitze ahalmena, eta II Barrutiko Auzoetarako Planeko programak kudeatzen dituzte. Hala bada, udal-sail edo institutu bakoitzak arduradun bat (denbora partzialean) eta teknikari bat (denbora osoz) eman ditu, eta haien ardura izan da beren eskumenekin zerikusia zuten programak garatzea. Bizikidetza Sustatzeko Programaren kasuan, ardura duen saila Herritartasun eta Eskubide Zibiletarako Zerbitzua da; gainera, iritsi berrientzako harrera-programa ere koordinatzen du.
---------------------------------------	---

	<p>Programa guztietako teknikariek Auzoetarako Planaren Bulegoan lan egiten dute batera; bulegoa Can Anglada auzoan dago, eta esku-hartze integraleko proiektua kudeatu eta garatzeko sortu da bereziki.</p> <p>Planak, bere helburuak lortzeko, jarduera integral urbanistiko, ekonomiko eta sozial bat aurreikusten du lurralde osoan, arazo gehien duten kolektiboek lehentasuna emanez (haurrak eta gazteak, adinekoak, immigranteak) eta barrutiaren eraldaketan eragin handiena duten elementuak erabiliz jarduteko zehar-ardatz moduan (genero-berdintasuna; kultura; jarduera ekonomikoaren sustapena, merkataritza- eta lehengoritze-jarduera erakartzeko guneetatik abiatuta; eta gizarte-bazterkeriaren aurkako borroka).</p>
Helburua orokorra	II. Barrutiko gizarte- eta hirigintza-kalitatea hobetzea
Helburu espezifikoak	<p>“Herritartasun zibikoa” sustatzea eta eraikinetako komunitate-guneetan eta gune publikoetan dauden bizikidetzaz gatazkei aurre egitea, batez ere prebentzioaren ikuspuntutik.</p> <p>Elkartze-sare formalak eta informalak sustatzea (iritsi berrien artean bereziki) eta, horrenbestez, auzotarrek elkar ezagut dezaten bultzatzea, bizikidetzaz arazoaren prebentzioan eta bitartekotzan laguntzeko elementu gisa. Barrutian dauden zerbitzu, instituzio eta entitateetako kideak sentsibilizatzea migrazioaren errealitateaz.</p>
Proiektua gauzatzearekin zerikusia duten eragileak	<p>Arduradun politikoak</p> <p>Teknikariak</p> <p>Gizarte-entitateak</p> <p>Bizilagunen komunitateak</p>
Esku hartzeko metodologiaren deskribapena	<p>Gune publikoetan eta auzo-komunitateetan gertatzen diren gizarte-gatazkei aurre egiteko metodologia berri baten aplikazioa garatu da; metodologia hori pixkanaka abiarazi da, lan pertsonalizatua eta tokian tokikoa abiapuntutzat hartuta, eta helburu hauek ditu: hezkuntza, prebentzioa, auzoetako kale-dinamizazioa, egoiliarren parte-hartzea eta harremanak izateko guneen sorrera, topikoak eta estigma negatiboak hausteko eta pertsonak elkarrengana hurbiltzeko.</p> <p>Programako beharrak, proposamenak eta ekintzak batera zehaztu dira lantalde baten zenbait saiotan; izan ere, haietatik sortu dira programan jasotako lan-esparruak.</p> <p>Bizikidetzaz sustatzeko programa Auzoetarako Plana, 2. Barrutiko (Can Anglada, Montserrat, Torre-sana eta Vilardell) Esku-hartze Integraleko Proiektua delakoan abiarazitako programetako bat da, baina funtsezko eginkizuna betetzen du eraikinetako komunitate-guneetako eta gune publikoetako gatazken prebentzioan; horregatik, Auzoetarako Planeko beste programekiko zeharkakoa da, eta arduradunek laguntza eta aholkua ematen diete gainerako programa guztiei (Parte-hartzea, Iritsi berrien Harrera, Lehengoritze eta Merkataritzaren Sustapena, Gazteak, Kultura, Kirolak eta Adinekoak).</p>
Ekimenaren edukiak	<p>Proiektuaren lan-esparruak:</p> <p>1) Bizilagunen komunitateak</p> <p>Bizilagunen komunitateetan bizikidetzaz ona izateko gida prestatu da. Programako informazio-taldeak etxez etxe azaltzen du Bizikidetzaz Sustatzeko Programa. Jabetza Horizontalaren Legeari buruzko Orientazio eta Aholkularitza Zerbitzua sortu da Terrassako Abokatuen Elkargoarekin hitzartuta. Laguntza ematen dute bizilagunen komunitateak eratzeko horrelakorik ez duten eskaileretan.</p> <p>Materialak atera dira bizilagunen komunitateentzat: bizilagunen arteko bizikidetzaz onerako kartela eta jabetza horizontalaren legeari buruzko dosierra; bata zein bestea orientazio-zerbitzuak legeaz emandako prestakuntza-saioetan erabili eta azaldu dira.</p> <p>Gainera, aurrekoarekin batera, “Lant dezagun bizikidetzaz, lant dezagun prebentzioa” proiektua gauzatu da. Haren bidez argi azaltzen da zein diren jarduteko oinarrizko arauak larrialdietan, eta</p>

	<p>aholkuak ematen dira etxeko ezbehar ohikoenak ez gertatzeko. Proiektuak zenbait xede ditu; alde batetik, bizilagunek jarrera arduratsua izatea; bestetik, litezkeen arriskuei buruzko informazioak bidea ematea ez bakarrik familiaren segurtasuna sendotzeko, bai eta bizilagunen komunitate osoarena ere, bizilagunen arteko harremanak eta bizikidetzaren sustatzeaz gain.</p> <p>2) Gune publikoak Informatzaileen taldeak gatazka-gune nagusiak atzematen ditu, bai eta haietan presentzia handiena duten taldeen dinamikak ere, eta gune publikoetan esku hartzeko proposamenak egiten ditu. Era berean, gune publikoen erabilerarekin zerikusia duten gatazken konponketan ekarpenak egin ditzaketen gizarte-eragileekin eta komunitate-liderrekin jartzen da harremanetan. Gune publikoan prestakuntza-jarduerak (hizkuntza-ikastaroak) eta parte-hartzeak (munduko dantzen tailerra, antzerki soziala genero-harremanari buruz) egin dira. Pilaketei buruzko interbentzioak egin dira (dendetan jarritako informazio-kartelen bidez, eta zuzenean esku hartuz kalean sortutako pilaketetan, oinezkoak igarotzea eragozten zutenean).</p> <p>3) Prestakuntza eta informazioa Katalana, gaztelania eta hitz egiteko oinarriko arabiera ikasteko doako ikastaroak antolatu dira. Gainera, bi hitzaldi egin dira helduen eskolan; bata, bizilagunen komunitateetako bizikidetzari buruz; bestea, jabetza horizontalaren legeari buruz. Era berean, zazpi hitzaldiko ziklo bat egin da, "Elkarrizketak" izenekoa, zeinean hainbat arlotako zenbait adituk ikuspuntu asko eman baitituzte migrazioari buruz. Hezkuntza-modulu batzuk prestatu dira hezkuntza-sistema araututik kanpo geratzen diren immigrante gazteentzat.</p> <p>4) Parte-hartzearen eta boluntarioraren sustapena Xedea da bizilagunen integrazioa eta elkar-ulertzea sustatzeko proiektuetan eta auzoa dinamizatzeko ekintzetan parte hartu nahi duten boluntarioen ekarpena bultzatzea (irradi-tailerra, munduko sukaldaritzen tailerra, Can Angladako solasaldiak, Katalunia/Latinoamerikari buruzko eztabaida-tailerra, "Bizikidetzaren eraikitzen dugun: ezagutu zure bizilagun senegaldarrak"). Horretaz aparte, informatzaile-taldeak auzoetarako plana bizilagunei eta merkatariei azaldu die, eta, era berean, bost hitzaldi informatibo egin dira, bertaratutakoen kezken berri izateko balio izan dutenak. Emakumeekiko jarrera desegokiez sentsibilizatzeko hitzaldiak ere egin dira (antzerki sozialaren jarduerari lotuta).</p>
<p>Ekimenaren hartzailerik diren herritarren ezaugarriak</p>	<p>2. barrutiko auzoetako bizilagunak.</p>
<p>Ekimenerako baliabideak</p>	<p>Giza baliabideak: 30 pertsona (arduradunak eta teknikariak). Kataluniako Gobernuak, Terrassako Udalak eta Lan eta Immigrazio Ministerioak batera finantzaturako proiektua.</p>
<p>Ekimenaren jarraipen-ebaluazio-sistemaren deskribapen laburra</p>	<p>Programaren jarraipen bikoitza egiten da. Alde batetik, Auzoetarako Planaren Bulegoa dago; bestetik, Terrassako Udalaren Herritartasun eta Eskubide Zibiletarako Zerbitzua. Era berean, programaren arduradunak eta Gurutze Gorrikoak bilerak egiten dituzte hamabostean behin.</p> <p>II. Barrutiko Auzoetarako Plana bi motatako koordinazioan dago oinarrituta:</p> <p>a) Programen barruko koordinazioa. Udal-sailen eta -instituten barruko koordinazioa da.</p> <p>b) Programen arteko koordinazioa. Programen arteko bi koordinazio-organo daude; alde batetik, planaren barruko programa guztietako teknikarien taldea dago, hamabost egunean behin bildu ohi dena; bestetik, ezohiko bilerak egiten dira gai jakin batzuk aztertzeko,</p>

	<p>zerikusia duten teknikariek eta planeko programa guztietako arduradunen taldeak parte hartzen dutela. Programa gauzatu bitartean egindako jarraipenari esker zenbait arazo atzeman eta haien konponketa proposatu ahal izan da:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Zailtasunak atzeman dira bizikidetzari modu orokorrean heltzean administrazioaren barruan, bai eta zeharka lan egitean ere. 2. Zailtasunak iritsi berriei lehen harrera egitean. 3. Udalak mesedea immigranteei baino egiten ez dielako zurrurruak eta ustea. 4. Entitate autoktonoek irekiak izateko duten zailtasuna, Erkidegokoak ez diren atzerritarrak aipatu elkarte horietan sartzeari dagokionez. Konponbideetako asko Bizikidetzaren Sustatzeko Programaren garapenak diseinu-fasean aurreikusi ez ziren oztopo jakin batzuk planteatu ahala aplikatu ziren. <ol style="list-style-type: none"> 1. Alde batetik, bultzada eman zitzaien hizkuntza-gaitasunak sustatzeko ikastaroei. Bestetik, harrerako bulego integratu bat abiarazi da, non informazio pertsonalizatua eta gizarte-, lan- nahiz bizikidetzaren esparruetan orientazioa ematen baitzaie iritsi berriei. 2. Migrazioari buruzko prestakuntza- eta sentsibilizazio-ekintzak garatu dira: udal-teknikarientzako prestakuntza-ikastaroak (ahozko arabiera-ikastaroak, "Elkarrizketak" zikloa, hirian elkarren ondoan bizi diren errealitateak ezagutzeko eta ikasteko tailerrak...). Hiri-esparruan, "Nor gara?" erakusketa egin da migrazio-fenomenoak Terrasan daukan garrantziari buruz. 3. Migrazioari buruzko kontra-argudiatze- eta sentsibilizazio-kanpainak. "Nor gara?" erakusketa dela eta, hainbat jardura antolatu dira aurreiritzietan eta estereotipoen aurka egiteko. 4. Elkartze-sarearen dinamizazioa eta bitartekotza, hurbiltasuneko ekintzak barne, atzerritarrak bizilagunen, merkatarien eta abarren elkarteetan errazago sar daitezten.
<p>Aurreikusitako lekualdatze-sistemaren deskribapen laburra</p>	<p>Beste leku batzuetara aldatzeari dagokionez, Bizikidetzaren Sustatzeko Programa beste auzo batzuetan aplikatu daiteke, baina beti leku bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartu behar dira.</p> <p>Bizikidetzaren sustatzeko neurriek jarraipena izateko, beharrezkoa da pertsonen, administrazioen, bizilagunen elkarteek eta entitateek bizikidetzaren arazoei aurre egiteko era berriak balioestea eta auzoetarako plana zertu ondoren erabiltzea. Herritarrei dagokienez, erroka garrantzitsuenetako bat, adibidez, iritsi berriak bizilagunen elkarteetan eskubide osoko kideztat onartzea da. Administrazio publikoari bagazoz, prozesu honen ondoren, zeinean sustatu egin baita arduradun politikoen eta teknikariek askoz elkarrekin handiago izatea beren zereginetan, lan egiteko era berri eta zeharkakoago hori barneratzea da erroka nagusia, eta abiarazitako ekimenak udal-jardunaren barruan sartzea.</p>
<p>Lortutako emaitzak, proposamena egitea ekarri zuen diskriminazio-egoera desagertzeari/hobetzeari dagokionez</p>	<p>Udalak helburuen lorpenaz egiten duen ebaluazioa ez da kuantitatiboa, baina lortutako emaitzak deskribatu egiten dira:</p> <p>Ekintzak gauzatzeari dagokionez, emaitza onak lortu dira. Bai truke-guneen sorrera (adibidez, munduko sukaldaritzaren tailerra, Can Angladako solasaldiak, munduko belaunaldiarteko jolasak) bai jadanik sortuta zeuden harreman-guneetan izandako parte-hartzea (adibidez, adinekoen almortzuetan) bereziki eraginkorrak izan dira topikoak gaitzetzeko eta barrutiko biztanleen arteko harreman-maila handitzeko. Udalaren lan bateratu eta zeharkakoari dagokionez, nabarmen egin da aurrera programa oso bateratuak garatzeko bidean.</p> <p>Hala eta guztiz ere, eragin orokorraren ikuspuntutik, Bizikidetzaren Sustatzeko Programaren emaitzak epe ertainean eta luzean agertu beharko liriteke, bai barrutiko gune publikoetan eta bizilagunen elkarteetan gatazka-maila jaisteari dagokionez, bai Udalaren kudeaketa mailari dagokionez (zeharkakoagoa eta migrazioaren errealitatearekiko sentsibilizazio handiagoa).</p>

Zer ikas daiteke ekimen honetatik?

Ikuspegi osoa. Garatutako proiektuak alderdi urbanistikoa, ekonomikoa eta soziala integratu ditu lurraldearen barruan, arazo gehien duten kolektiboak eta gizarte-bazterkeriaren aurkako borroka lehentasunezko helburutzat hartu ditu, eta barrutiaren eraldaketan eragin handiena duten elementuak jarduteko zeharkako ardatz gisa erabili ditu; honako hauek, hain zuzen ere: genero-berdintasuna, kultura eta jarduera ekonomikoaren sustapena.

Kulturarteko ikuspuntua. Elkartze-sare formalen eta informalen sorrera sustatu du (iritsi berrien artean bereziki) eta, horrenbestez, auzotarrek elkar ezagut dezaten bultzatu du, bizikidetzaz- arazoaren prebentzioan eta bitartekotzan laguntzeko elementu gisa.

Berrikuntza. Boluntarioek bai auzoa dinamizatzeko ekintzetan bai bizilagunek elkar uler dezaten eta integra daitezen lortzeko proiektuen garapenean parte hartzea sustatu du; gainera, gatazkak konpontzeko ekarpenak egin ditzaketen gizarte-eragileak eta komunitate-liderrak bere barruan hartu ditu, eta eraikinetako gune publiko eta komunitarioetako bizikidetzaz- arazoei heldu die, nagusiki prebentzioan oinarrituta.

Iraunkortasuna. Ekimena 2004tik gauzatu da, eta bere plangintza-prozesuari eta esku hartzeko metodologiari esker, ikasi eta ekintza berriak garatu ahal izan dira, gauzatu bitartean egindako jarraipenaren eta ebaluazioaren emaitzetatik abiatuta.

■ GUNE PUBLIKOEN DINAMIZAZIO-PROIEKTUA. Madrilgo Udala

Azken hamar urteetan, Madrilgo immigranteen kopurua hamar bider handiagoa egin da. 2009an, milioi erdi pertsona baino gehiago ziren atzerritarrak (hiriko biztanleen ia %15); pertsona horiek 183 herrialdeetatik iritsi ziren. Hispanoamerikatik iritsitako pertsonak hirian bizi diren atzerritar guztien %57 dira; hurrengoak Europako Batasunekoak dira (%24,3). Asiarrak %8 dira, eta afrikarrak %7,6. Nazionalitateen arabera, ekuadortarrena da kolektibo handiena; atzetik, errumaniarrak, boliviarrak, perutarak eta kolonbiarrak datoz. Sei herrialde horietakoak Madrilen bizi diren atzerritarren %53,8 dira. Marokoarrak, dominikarrak, paraguaitarrak eta brasildarrak ere kolektibo garrantzitsuak dira.

Kolektibo nazional horien guztien artean, emetasun-tasa handienak hirira oraintsuen iritsitako immigranteenak dira, bai Erkidegoak ez diren Europako kolektiboetan (Errusia eta Ukraina), bai azken urteetan Hego Amerikatik iritsi direnetan (Bolivia eta Paraguai). Dinamika hori dela eta, immigrazio-arloko udal-politika 90eko urteen amaieran hasi zen, eta 2004an abiarazi zen haren planifikazioa, Kulturarteko Gizarte Bizikidetzarako Madrilgo I. Plana onartzearekin batera; geroago, planaren ebaluazioa egin zen, 2007an argitaratu zena.

Gaur egun, Kulturarteko Gizarte Bizikidetzarako Madrilgo II. Planean (2009-2012) dago finkatuta nola jardun gizartratze- eta bizikidetzaz-esparruan, eta arrazakeriaren kontra sentsibilizatzeko eta borrokatzeko jarduera-ildo berezi bat jasotzen du.

Familia eta Gizarte Zerbitzuetarako Gobernu Saila da gaiaz ardura den unitatea (zehazki, Immigrazio eta Garapenerako Lankidetzaz Zuzendaritza Nagusia), baina koordinazio estua dago saileko beste zuzendaritza nagusi batzuekin, neurri handi batean immigranteentzat diren gizarte-politikak egiten baitituzte. Era berean, akordio espezifikoak egin dira immigrazioari lotutako beste udal-sail eta -unitate batzuekin, hala nola Enplegu, Etxebizitza eta Herritarren Arretarako sailekin nahiz Udaltzaingoarekin.

Zergatik da garrantzitsua ekimena?

Proiektuak, Madrilgo hainbat hiri-gunetan herritarren eta kulturen arteko bizikidetzaz sustatzeko jarduerak, ekintzak eta programak egiteaz gain, aukera eman du esku hartzeko metodologia bat garatzeko, auzo- eta komunitate-dinamizazioa kulturarteko gizarte-bitartekotzarako tresnekin integratzen duena.

Era berean, proiektuari lotutako jarduera ugarien garapenak bide eman du Immigratio eta Lankidetzaren Zuzendaritza Nagusiaren, Gizarte Zerbitzuetarako Saileko beste departamentuen eta hiriko 21 barrutietako gizarte-etxeen artean egindako kudeaketaren zeharkakotasuna hobetzeko; aldi berean, zerbitzu publikoen hobekuntza bermatu da, eta herritarren parte-hartzea nahiz gizarte-entitateekiko eta immigranteen eta bizilagunen elkarrekin harremana sustatu da.

Zertan datza esperientzia?

<p>Ekimenaren deskribapen laburra</p>	<p>Proiektuko jardueren, ekintzen eta lanen xedea herritarren arteko bizikidetzaren sustatzea da, kulturarteko gizarte-harremanak sustatuz eta bizilagunak sentsibilizatuz gune publikoen erabilera zuzenaz, kulturen arteko elkarrekin errespetuaz eta herritar guztiak elkarrekin bizi ahal izateko gune komun bat sortu beharraz.</p> <p>Gune publikotzat elkartzeko guneak hartuta, baldin eta haiek zaintzeko ardura udal-administrazioari badagokio: plazak, berdeguneak, parkeak, lorategiak, kaleak; zerbitzuak kulturartekotasunean, gizarte-dinamizazioan, bitartekotzan eta komunitate-esparruko esku-hartzean prestatutako 51 dinamizatzaile dauzka (2009). Dinamizatzaile horiek esku hartzeko darabilten metodologia barrutien azterketan, ezagutzan eta diagnostikoan nahiz herritarren parte-hartze aktiboa sustatzen duten ekintzen diseinuan dago oinarrituta.</p> <p>Zerbitzuak lurralde-izaera nabarmena du. Hura diseinatzeko, hiru aldetan banatzen du Madril: Iparraldea, Erdialdea eta Hegoaldea. Dinamizatzaileak hiriko 21 barrutietan daude kokatuta. Gune publikoen dinamizatzaileen taldea gizarte-zerbitzuen arduradunekin koordinatzen da, beren jardura bat etor dadin barruti bakoitzeko plan eta programekin. Gainera, modu koordinatuan lan egiten da gainerako profesionalekin (gizarte-zerbitzuetako zonako taldeak, gizarte-hezitzaileak, auzo-dinamizatzaileak eta abar), eta esku-hartze osoa egiten da lurraldean.</p>
<p>Helburu orokorra</p>	<p>Herritarren arteko bizikidetzaren sustatzeko jarduerak, ekintzak eta programak egitea, gizarte-harremanak eta kulturen artean elkarrekin errespetua bultzatzea eta herritarrei informazioa ematea gune publikoen erabilera (Madrilgo II. Kulturarteko Bizikidetzaren Plana).</p>
<p>Helburu espezifikoak</p>	<p>Madrilgo hiri-guneen azterketan, ezagutzan eta diagnostikoan oinarritutako esku hartzeko metodologia erabiltzea, herritarren parte-hartze aktiboa sustatuko duten ekintzak prestatzeko.</p>
<p>Proiektua gauzatzearekin zerikusia duten eragileak</p>	<p>Programa Errefuxiatuei Laguntzeko Espainiako Batzordearen Madrileko atalak gauzatu du (CEAR-Madrilek); izan ere, gizarte-erakunde horrek abegi-jarduerak prestatu, laguntza sozial eta juridikoa eman eta sentsibilizazio-kanpainak egiten ditu hainbat esparrutan, betiere immigranteen eta errefuxiatuen mesedetan.</p> <p>Eragile sortzaileak/birsortzaileak: Zerbitzua Madrileko Udaleko beste zuzendaritza batzuekin batera ematen da (adibidez, Samur Social-ekin eta 21 barrutietako gizarte-etxeekin batera). Era berean, ekintzak toki- eta barruti-mailetan diharduten auzo-dinamizatzaileekin, gizarte-hezitzaileekin, immigranteen elkarrekin eta gainerako gizarte-entitate nahiz GKEekin koordinatzen dira.</p>
<p>Esku hartzeko metodologiaren deskribapena</p>	<p>Metodologia aktibo bat erabiltzen da, jardun behar den inguruaren ezaugarrien azterketa, ezagutza eta diagnostikoa abiapuntutzat hartu eta herritarren parte-hartzea bultzatzea, kulturarteko bitartekotzaren elementuak komunitate-dinamizazioarekin batera erabiliz.</p> <p>Komunitate-dinamizatzailearen jardunaren faseak hauek izan dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Barrutiko bizikidetzaren egoerari buruzko diagnostikoa. - Jarduera-programaren planifikazioa. - Programa abiaraztea eta gauzatea. - Barrutiko bizikidetzaren egoeraren ebaluazio jarraitua. Metodologia,

	<p>gainera, ezaugarri hauetan oinarritzen da:</p> <p>Jardutean, beti zeharkako ekintza-ildo bat sustatzen da: jarrera arrazistei eta xenofoboiei aurrea hartzea.</p> <p>Bitartekotzan espezializatutako komunitate-dinamizatzaileen jarduera espezifikotik printzipio orokorren arabera lan egiten da: aldeei laguntzea, aldeen protagonismoa, bitartekoaren neutraltasuna, distantziakidetasuna. Gune Publikoen Dinamizazio Zerbitzua Madril hiriko hogeita bat barrutietan dago kokatuta, eta komunitate-esparrua jomugatzat hartuta dihardu; hau da:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Berdeguneak eta aisialdirako guneak (parkeak, lorategiak). - Kirola egiteko guneak. - Plaza eta kaleak, elkartzeko edo biltzeko gune izaki beren ezaugarri urbanistikoaren ondorioz. <p>Gune Publikoak Dinamizatzeko Sektoreak, gainera, egoitza nagusia dauka erdialdeko barrutian kokatuta. Egoitza horretatik kudeatzen da antolakuntza guztia, eta lantaldea biltzeko lekua da.</p>
Ekimenaren edukiak	<p>Komunitate-dinamizatzaile bakoitzak banakako lan-plan bat egiten du hileroko, barrutiko programen atalburuak helarazitako ildo nagusiak kontuan hartuta, eta atalburu horren ardura da plan horiek gainbegiratzea. Gauzatu baino aste bat lehenago entregatzen da plana, eta barruan, gutxienez, honako hauek jasotzen ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Helburuak - Helburuak betetzeko egin beharreko jarduerak - Kronograma - Gizarte Zerbitzuetarako Zentroan beste profesional batzuekin egin beharreko koordinazio-bileretarako lanorduen aurreikuspena, entitate esleipenduneko koordinatzaileekiko bileretarakoa eta komunitate-lanerako orduena. <p>Hileko lan-plana Barrutiko Gizarte Zerbitzuetarako Zentroarekiko koordinazio-denboran prestatzen da.</p>
Ekimenaren hartzaile diren herritarren ezaugarriak	<p>Madril hiriko biztanle guztiak.</p>
Ekimenerako baliabideak	<p>Giza baliabideak: Koordinatzaile nagusia Lantaldeen bi koordinatzaile 51 komunitate-dinamizatzaile Administrazio-laguntzaile bat</p> <p>Finantza-baliabideak: Madrilgo Udaleko Familia eta Gizarte Zerbitzuetarako Gobernu Saileko Immigrazio eta Garapenerako Lankidetzaren Zuzendaritza Nagusiaren finantzatutako programa.</p>
Ekimenaren jarraipen-/ebaluazio-sistemaren deskribapen laburra	<p>Amaierako Memoria egin da (2009), non Madrilgo 21 barrutietako bakoitzean egindako jarduerak guztiak zehazten baitira. Barrutiz barruti deskribatzen da nola aukeratu diren esku hartzeko guneak, zer jarduerak egin diren, zer baliabide (instituzional nahiz sozial) dauzkan barrutiak eta zein diren koordinazio-guneak.</p>
Herritarren inplikazioa	<p>Espazio Publikoen Dinamizazio Zerbitzuak kalean oinarritzen du bere lana, auzotarrekiko eguneroko lanean, haien ingurunean eta aisialdirako dauzkaten uneetan.</p> <p>Auzoetan bizi diren hainbat jatorritako biztanleen arteko harremanezko dinamiken behaketa-lana etengabea da.</p> <p>Kalean ematen den denborak dinamizatzaile-taldeko kideek egiten duten lanaren %80 hartzen du, eta horrek esan nahi du ordu asko pasatzen direla auzotarrek hitz egiten, haien beharrak orientatzen, baliabideetara bideratzen eta auzotarrak elkartzeko gune positiboak sortzen.</p>

Zer ikas daiteke ekimen honetatik?

Planifikazioa. Egindako ekintzek lotura estua dute Madrilgo Kulturarteko Bizikidetzarako II. Planaren helburuekin. Gune publiko bakoitzean garatu beharreko ekintzen oinarrian dagoen metodologiak barruti bakoitzaren eta jardun behar den gunearen azterketa, ezagutza eta diagnostikoa hartzen ditu bere barruan, eta, aldi berean, herritarren parte-hartzea sustatzen du.

Ikuspuntu osoa. Ekimenak, bere garapenerako, eragile instituzionalen parte-hartzea jasotzen du. Zerbitzuak kulturartekotasunean, gizarte-dinamizazioan eta komunitate-arloko esku-hartzean prestatutako 51 dinamizataile izan ditu (2009), eta dinamizataile-talde horrek hiriko 21 barrutietako gizarte-etxeekin koordinatu du bere lana. Ekintzak toki- eta barruti-mailetan diharduten auzo-dinamizataileekin, gizarte-hezitzaileekin, immigranteen elkarteekin eta gainerako gizarte-entitate nahiz GKEekin koordinatzen dira.

Aldagarritasuna. Metodologia aktibo bat erabiltzen baita, jardun behar den inguruaren ezaugarrien azterketa, ezagutza eta diagnostikoa abiapuntutzat hartu eta herritarren parte-hartzea bultzatzen duena, kulturarteko bitartekotzaren elementuak komunitate-dinamizazioarekin batera erabiliz. Programak lana kalean oinarritzen du, auzotarrekiko eguneroko lanean, haien ingurunean eta aisialdirako dauzkaten uneetan; horregatik, esperientzia erraz alda daiteke beste toki-testuinguru batzuetara.

Efizientzia. Programak planteatu ziren helburuak bete ditu, baliabideak helburu horiek lortzeari begira egokitu dira, eta kulturarteko bizikidetzaren nahiz gune publikoen erabilera sustatzeko erabakitako ekintzak egitea bermatu da.

■ EMAKUMEA, OSASUNA ETA INDARKERIA PROGRAMA. Bilboko Udala

Bilbon, atzeritar jatorriko biztanleen kopurua bikoiztu egin da 2004tik 2009ra bitartean, eta atzeritarrak biztanle guztien %8,5 dira (27.976 pertsona). Atzeritar jatorriko biztanleen ia %48 Latinoamerikatik iritsi da, eta haien artean azpimarratzekoak dira boliviarrak (%17,21) eta kolonbiarrak (%13,19), bai eta, neurri apalagoan, ekuadortarrak eta paraguaitarrak ere. Errumaniarrak eta marokotarrak %8,02 eta %7,20 dira hurrenez hurren. Senegaldarrek eta aljeriarrek ere presentzia handi samarra dute; horrenbestez, argi geratzen da askotarikoa dela immigranteen jatorria.

Bilboko Udala hainbat jarduera egiten ari da "Immigrazio Programaren" barruan, herritarrak Bilboko aniztasunean integratzeko eta bizikidetzaren egokitasuna izateko helburu orokorarekin. Udala herritarrengandik hurbilen dagoen administrazio publikoa denez, bertatik erantzun nahi zaio immigrazioaren errealitate berri eta konplexuari kasu egiteak dakarren erantzukizunari, helburua gizarte-trinkotasuna eta bizikidetzaren sustatzea izanik, eta, horrenbestez, estrategia komun bat dago, atzeritik iritsitako immigranteen integrazio-esparruan politika publikoak antolatzeke, adostasunean oinarrituta eta zerikusia duten sektore guztiek parte hartuz.

Immigrazio-programak hiru ekintza-ildo estrategiko garatu ditu: atzeriko immigranteentzako gizarte-laguntza, kulturarteko bizikidetzaren eta gizarte-partaidetza. Integrazioarekin eta kulturarteko bizikidetzaren sustatzearekin zerikusia duten eragileen artean atzeriko immigranteak eta bertako pertsonak daude, hala nola erakundeak, eta, horrenbestez, Immigrazio Programako jardueren azken hartzailak gaiarekin zerikusia duten hiru aldeak izan dira.

Duela gutxi, Udaleko Berdintasun, Lankidetzaren eta Herritartasun Sailak bizikidetzaren plan bat prestatu du, gaur egun udalbatzaren aztertzen ari direna onartu ala ez erabakitzeko.

Zergatik da garrantzitsua ekimena?

"Emakumea, Osasuna eta Indarkeria" programa 2008. urtetik gauzatzen ari da jarduera prebentibo moduan, funtsezko bi helburu hauek betetzen dituen metodologia batean oinarrituta: autolaguntzarako prestakuntza eta ezagutza herritarren artean azkar zabaltzea. Berritasun nagusia sentsibilizazio-guneen antolaketa da, haietako bakoitzak bere nortasuna baitauka, eta bere edukia, "nahierara" prestatuak, programako gai nagusien inguruan parte hartzen duten pertsonen arabera:

emakumeen identitatea, gorputzaren ezagutza osasunari lotua, kontrazepzioa, indarkeriaren prebentzioa.

Esku hartzeko garatutako tresnen artean, genero-ikuspuntua edo kulturarteko ikuspuntua oso garrantzi handikoa da. Jardueren hartzaile diren taldeen jatorri-aniztasun handia dela eta, jarduerak lagungarriak izan daitezke osasun-errutinetan izan ohi diren oztopoak (bai eta, askotan, haiekin batera hizkuntza-trabak ere) gainditzeko.

Hasierako esperientziak munta handiko eragin ugaltzailea izan du herritarren parte-hartzearen ikuspuntutik.

Zertan datza esperientzia?

<p>Ekimenaren deskribapen laburra</p>	<p>Programari esker, emakume gazte batzuk prestatzen dira (gehienez ere 20 orduz), emakume horiek erreferentziatzeko pertsonak izan daitezkeen beren inguruneetan, kolektiboetan, parte hartzen duten gizarte-esparruetan, eta, horrenbestez, osasun- edo prebentzio-agente bihurtu ondoren, jakinaraz dezaten modu ugaltzailean prestaketa-ikastaroan ikasitakoa, eta emakumeentzako elkarguneak eta eztabaidarako guneak sor ditzaten, tailerrak antolatzearen bidez, emakumeekin eztabaidatzeko osasunari, indarkeriari, sexualitatea bizitzeko moduari, identitate kultural eta sexualari, amatasunari eta parte-hartzaileentzat interesgarritzat jotako beste zenbait gairi buruz. Agenteek, beraz, parte hartzera bultzatzen dute, gogoetarako guneak sortuz udalerriko zenbait gunetan, eta hainbat estrategia eta baliabide erabiliz horretarako.</p>
<p>Helburu orokorra</p>	<p>Emakume gazteak prestatzea, zabalkunde- eta prebentzio-agenteak izan daitezkeen osasunaren, indarkeriaren, sexualitatea bizitzeko moduaren eta identitate kulturalaren alorretan.</p>
<p>Helburu espezifikoak</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Eragin zuzena izatea 300 pertsonarengan eta, komunikabideen bidez, zeharkako eragina askoz gehiagorengan. - Osasunaren hobekuntza eta autoezagutzan laguntzea. - Bilbon bizi diren jatorri desberdineko emakumeek parte hartzeko guneak sortzen laguntzea. - Emakumeak ahalduntzen laguntzea, aldaketaren eragile eta beren esparruaren eta administrazioaren arteko bitartekari izan daitezkeen. - Emakumezko immigrantez bestelako irudia erakustea, ez subjektu pasiboak eta mendekoei dagokiena. - Minusbalotasuna duten emakumeekiko sentsibilizazioa jasotzea programan, eta materialak egokitzea eta estereotipoak aldatzea.
<p>Proiektua gauzatzearekin zerikusia duten eragileak</p>	<p>Etengabe lan egiten ari da zenbait elkarerekin 2008. urteaz geroztik. Bilerak baliatu egiten dira indarkeria-egoeretan nola jokatu argi adierazteko, Bilboko Udaltzaingoak eta Gizarte Larrialdietarako Udal Zerbitzuak batera egiten baitute lan haietan, indarkeriaren biktimei behar bezala laguntzeko.</p>
<p>Esku hartzeko metodologiaren deskribapena</p>	<p>Osasun-agenteak prestatzeko ikastaroak, gehienez ere 20 ordukoak. Agente horiek aniztu egiten dituzte prestakuntza ikasitako ezagutzak eta trebetasunak. Programaren faseak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Aldez aurreko prestakuntza eta programaren hedapena. - Immigranteen elkarrekin zein haiei laguntzeko elkarrekin haurren. - Gizarte-zerbitzuen eta komunikabideen bidezko hedapena. - Programari buruzko artikulak egitea Berdintasun eta Lankidetzarako Sailean, eta indarkeriari nahiz sexualitateari buruzko funtsezko esaldiak eta gidoiak egitea irratiko spotetan erabiltzeko. - Prestakuntza: 30 emakumeeko talde bat aukeratzea. - Emakumea, Osasuna eta Sexualitatea gida eleaniztuna egitea eta inprimatzea (argitaratutako lehenengoaren jarraipen moduan).

Ekimenaren edukiak	Jatorri-talde bakoitzari egokitutako tailerrak. Osasun-agente bakoitzak topaketak eta guneak antolatu beharko ditu, sexu- eta ugalketa-autogestioa handitzeko. Osasunaren mikrobehakokiak: osasun-guneak dira, "arlotu ez-formal" batean antolatutak; hala ere, baliagarriak dira, hartzaileak behar dituen eta administrazioek erantzuterik ez duten leku/orduetara egokitzen direlako. Ahozko transmisioa: oinarriko tresna gisa emakumeen errealitatea nolakoa den jakiteko.
Ekimenaren hartzaile diren herritarren ezaugarriak	Lehentasunez, 17 eta 35 urte bitarteko emakume gazteak. Lehentasunez hartzaile diren kolektiboak: Jatorria Magreben duten emakumeak. Lekurik ez zutelako aurreko programan esku hartzerik izan ez zuten emakumeak.
Ekimenerako baliabideak	- Giza baliabideak: Berdintasun, Lankidetzeta eta Immigrazio Saila arduratzen da programa kudeatu eta koordinatzeaz. 19 osasun-agentek parte hartu dute. - Finantza-baliabideak: Lan eta Immigrazio Ministerioak emandako diru-laguntza eta baliabide propioak dauzka proiektuak.
Ekimenaren jarraipen-/ebaluazio-sistemaren deskribapen laburra	Jardueren memoria dago. Datuak Berdintasun, Lankidetzeta eta Herritartasun Sailak egindako urteko memoriatik atera dira.
Lortutako emaitzak, proposamena egitea ekarri zuen diskriminazio-egoera desagertzeari/hobetzeari dagokionez	2009. urtean, 18 sentsibilizatzeko-ekintza egin dira guztira, eta ekintza horiek 2008. urteko azken hiruhilekoan prestakuntza jaso zuten agenteen arteko 19 osasun-agentek gauzatu dituzte. Sentsibilizatzeko-dinamiketan parte hartu duten herritar hartzaile gehienak emakumezkoak izan dira, baina taldeetakoren batean (hartzaile nerabeentzat) talde mistoekin lan egin da. Bai jardunaldiak prestatu bitartean bai haiek iraun bitartean egindako materialak oinarritzat hartuta, "Emakumeen Gida" argitaratu zen urrian, zortzi hizkuntzatarara itzulita, ahalik eta emakume-kopuru handienera iristeko, eta gai garrantzitsu batzuek sentsibilizatzeko (sexu-osasunaz eta emakumeek bikote-harremanetan jasaten duten indarkeriaren prebentzioaz). Gida hori hiriko emakume guztientzat interesgarriak diren informazioak zabaltzen laguntzeko tresna da, bai eta programa barruko osasun-agenteei informazio hori ahoz zabaltzeko tresna ere. Urteko azken hiruhilekoan, aurreko ekitaldian bezala, 15 nazionalitateetako 35 emakume prestatu dira osasun-agente izateko, aurreko ekitaldiko helburu bera izanik.
Genero-eragina	Sentsibilizatzeko-dinamiketan parte hartu duten herritar hartzaile gehienak emakumezkoak izan dira (guztira, 228 pertsona ziren), baina taldeetakoren batean (hartzaile nerabeentzat) talde mistoekin lan egin da. Gidak egin dira zortzi hizkuntzatarara itzulita, ahalik eta emakume gehienengana iristeko. 2009. urtean, 15 nazionalitateetako 35 emakume prestatu dira osasun-agente izateko, aurreko ekitaldiko helburu berarekin.
Herritarren inplikazioa	Programa immigranteen elkarte eta gizarte-entitate batzuekin koordinatzen da: batez beste, 60 elkarte eta 35 osasun-agentek esku hartu dute; horiek, gero, mobilizatzailerik bihurtzen dira.

Zer ikas daiteke ekimen honetatik?

Genero-ikuspuntua: Programak bete egiten du emakumeak aldaketaren eragile gisa eta indarkeriaren prebentzioari, osasunari eta administrazioari lotutako esparruko bitartekari gisa ahalduz laguntzeko helburuarekin. Gainera, genero-ikuspuntuak emakume eta gizon gazte osatutako talde mistoek parte hartzea ekarri du.

Berrikuntza eta sormena: Programaren metodologia berria da, aukera ematen baitu emakumezko immigranteek parte-hartzea izan dezaten programaren xede diren prebentzio-ekintzen eragina areagotzeko agente gisa. Abiarazitako lan-metodologiari esker, jarduerak erraz zabal daitezke eta proiektuaren prebentzio-xedea bermatzen da.

Aldagarritasuna: esku hartzeko garatutako metodologiari esker, bai eta “Emakumeen Gida” argitaratu izanari esker ere –zortzi hizkuntzara itzuli da–, esperientzia berriz gauza daiteke, sexu-osasunaz eta indarkeriaren prebentzioaz kulturarteko ikuspuntu batetik sensibilizatzeko, gai horiek oso garrantzitsuak izaki.

Lidergoa: Berdintasun, Lankidetzeta eta Herritartasun Sailak proiektuaren lidergo- eta koordinazio-eginkizuna betetzen du, eta immigranteen elkarteetan nahiz gizarte-entitateen parte-hartzea handia izatea bermatzen du; era berean, toki-mailako beste jarduera-esparru batzuen inplikazioa ere bermatzen du, eta programaren zeharkakotasuna eta iraunkortasuna ziurtatzen ditu.

■ VI. KULTURARTEKO ASTEA. Valladolideko Udala

Valladolidek –izen bereko probintziako hiriburua eta, aldi berean, Gaztela eta Leon autonomia-erkidegoko hiriburua– 317.864 biztanle ditu, 2009ko erroldako datuen arabera. Hiriko biztanleen %6 atzerritar jatorrikoa da; azken bost urteetan, atzerritar jatorrikoen kopurua hiru aldiz handiagoa egin da: 2004. urtean horrelako 9.347 pertsona zeuden; 2009an, berriz, ia 20.000.

Espainiarren kopurua jaitsi izana ere lagungarria izan da fenomeno hori gertatzeko; izan ere, aipatu aldi horretan bertan ia 15.000 pertsonako jaitsiera gertatu da, hau da, %4,50eko jaitsiera erlatiboa.

Udal-erroldako datuen arabera, eta jatorriko nazionalitatea kontuan hartuta, Valladoliden, 2009an, Bulgariako 3.881 pertsona bizi ziren, eta errumaniar jatorriko 2.490 pertsona; horien guztien artean, atzerritar jatorriko biztanleen %32,73 dira. Marokoar jatorriko biztanleak %10,9 dira. Latinoamerikari dagokionez, brasildarrena da multzorik garrantzitsuen (atzerritar guztien %8,05), eta atzetik kolonbiarrak (%7) eta ekuadortarrak (%6,3) datoz. Sensibilizatzeko eta diskriminazioaren nahiz xenofobiaren aurkako borroka-arloko jarduerak Immigranteen Integrazioarako 2005-2008ko I. Udal Planak (<http://www.aytovalladolid.net/inmigracion/plan.php>) izandako garapenari lotuta egon dira. Plan horren ebaluazioa eginda dago eta, gaur egun, Integrazioarako II. Udal Plana onartua izateko fasean dago.

Zergatik da garrantzitsua ekimena?

Proiektua Valladolideko Udaleko Gizarte Ongizate, Enplegu eta Familia Sailak gidatzen du, eta duela sei urtetik etengabe gauzatzen ari da; gainera, hiriko gizarte-erakundeen parte-hartzea handia da, eta handia da, halaber, herritarrek proiektuaren barruko jardueretan duten parte-hartzea. Esperientziak eragin nabarmena du hiriko aniztasuna ezagutarazteari dagokionez. Haren garapena Immigranteei Laguntzeko Zentroak eta Gizarte Jardueretarako Udal Zerbitzuak immigrazio-esparruan urtero egiten dituzten jardueren agendan sartu da, eta horrek eragin erabakigarria dauka bai esperientziaren iraunkortasunean bai valladolidtarren artean duen oihartzunean.

Zertan datza esperientzia?

<p>Ekimenaren deskribapen laburra</p>	<p><i>Valladolideko Udalaren Kulturarteko Asteak</i> Valladolideko herritar guztientzako hainbat jarduera biltzen ditu, herritarrak sensibilizatzeko eta kulturarteko bizikidetzeta sustatzeko xede dutenak. Proiektuak ikuspuntu ludikoa, parte-hartezkoa dauka, gizartearen sentimenduetan aldekoa, harrerako gizarteak eta herritar berriek elkar ezagutzea dakarten esperientziak partekatzea oinarri hartuta. <i>Kulturarteko VI Astea</i> 2009ko irailaren 21etik 28ra bitartean egin zen; <i>VII. Astea</i>, berriz, 2010eko irailaren 25etik urriaren 5era bitartean egin da. Parte-hartzaileak immigranteen kolektiboak eta hiriko gainerako herritarrak dira. Jarduera Immigranteak Integratzeko I. Udal Planaren barruan (2005-2008) dago; gainera, 2009. urtean, immigrazio-arloko urteko planifikazioan sartu dute.</p>
--	--

Helburu orokorra	Kulturarteko bizikidetzaren sustatzea ikuspuntu ludiko, parte-hartzaile eta gizartea sentsibilizatzearen aldeko batetik.
Helburu espezifikoak	<ol style="list-style-type: none"> 1- Giza taldeen aberastasuna hautematea eta balioestea. 2- Aniztasuna balioztat hartzea. 3- Beste kultura batzuen ezaugarriak testuinguruetara egokitzeko bide gisa ulertzea, errespetatzea eta balioestea. 4- Elkarrekiko errespetua eta elkarriketa sustatzea nazionalitate desberdinak dituzten pertsonen artean. 5- Taldeak elkartzeko guneak sortzea. 6- Herritarrek sentsibilizatzea kulturartekotasunaren ekarpen kultural, sozialez, ekonomikoez eta gainerako bestelakoez. 7- Ezagutzak partekatzea eta jardunbide onak sortzea.
Proiektua gauzatzearekin zerikusia duten eragileak	<ul style="list-style-type: none"> - Valladolideko Udaleko Gizarte Ongizate, Enplegu eta Familia Saila. Kudeaketa Gizarte Jardueretarako Udal Zerbitzuari dagokio, eta Immigranteei Laguntzeko Zentroa haren mende dago; bigarren horretako talde teknikoaren ardura da udal-planifikazioa gauzatzea immigrazio- eta bizikidetzaren esparruan. - Gizarte Jardueretarako Zerbitzua, gazteentzako ekimenen programa, Udaleko Enplegu Institutua. - Kultura, Merkataritza eta Turismo Zinegotzigoa. - Herritarren Partaidetzarako Zinegotzigo Berezia. <p>Gaztela eta Leongo Junta; finantzatzailea, Lan eta Immigratio Ministerioarekin batera.</p> <p>Zerikusia duten beste eragile batzuk: Hiriko immigrante-elkarteak, gizarte-erakundeak (GKEak, sindikatuak...), kultura-erakundeak (Indiaren Etxea, Gaztelaniaren Fundazioa, Kultura-etxe txinatarra, musikariak, antzerki-konpainiak...), hezkuntza-zentroak, adinekoen zentroak, gizarte-etxeak, udal-liburutegiak...</p>
Esku hartzeko metodologiaren deskribapena	Zerikusia duten eragileen parte-hartzeari ematen zaio lehentasuna erabilitako metodologian; izan ere, programazioak hiriko Immigranteen Kontseiluari aurkezten zaizkio (organo horretan hainbat eragile daude ordezkaturik: immigranteen elkarteak, immigranteei laguntzeko GKEak, sindikatuak, administrazioak...). Aldian behin bilerak egiten dira aipatu astearen barruko jarduerak prestatzeko, jardura horiekin zerikusia duten eragileekin egin ere, elkarriketa berrelkatu egiten da, eta teknikoki nahiz ekonomikoki bideragarriak diren proposamenak jaso. Gainera, kudeaketan Immigranteei Laguntzeko Zentroko lantaldearen sistematizazioari jarraitzen zaio, haren ardura baita jarduerari bultzada ematea.
Ekimenaren edukiak	Kulturarteko asteetan askotariko jarduerak izan dira bertako biztanleentzat bezala immigranteentzat ere. VI. Kulturarteko Asteko egitarauan kontzertuak, kultura-ibilbideak, Latinoamerikako herrialdeen independentzien berrehugarren urteurreneko ospakizuna, herritarren mahai-inguruak eta abar egon dira.
Ekimenaren hartzaile diren herritarren ezaugarriak	Valladolideko haur, adineko, gazte eta heldu guztientzako proiektua da.
Ekimenaren jarraipen-/ebaluazio-sistemaren deskribapen laburra	Proiektu honetako jardura guztiak ebaluatu egiten dira. Prozesuaren ebaluazioa egiten da, bai eta amaierakoa ere; azken horretan, egindako jardueren eragina jasotzen da. Prozesuaren ebaluazioa kuantitatiboa da, eta udal-teknikarien zein jarduerekin zerikusia duten eragileen ekarpenetan oinarritzen da. Amaierako ebaluazioaren xedea egindako jardueraren eraginari erreparatzea da; horretarako, ebaluazioa egiteko galdera-sortak helarazten zaizkie jardunaldi teknikoan esku hartzen dutenei, eta, horregatik, ebaluazioa kuantitatiboa (parte-hartzaileen kopurua) eta kualitatiboa (jardueraren beraren ebaluazioa) da. Gainerako jardueretan ebaluazio kuantitatiboa egiten da parte-hartzaileen kopuruaren bidez, hala nola kuantitatiboa profesionalak (elkargoetako profesionalak, adinekoen zentroetako

	profesionalak), jardueretako parte-hartzaileak eta udal-teknikariak kontuan hartuz.
Herritarren inplikazioa	Hiriko kolektiboek –adinekoak, gazteak, elkarteak eta abar– eta gizarte-erakundeek inplikazio handia dute kulturarteko astearen plangintzan eta garapenean.

Zer ikas daiteke ekimen honetatik?

Ikuspuntu osoa. Kulturarteko asteak ikuspegi osoa biltzen du hiru aldeetatik, gutxienez: lehenik, hiriko udal-sail askok inplikazio aktiboa dutelako; bigarrenik, Integrazioarako Udal Planean sartu zenetik Immigrazio Departamentuaren urteroko jardueraren agendan jasotzen delako; eta, hirugarrenik, astean zehar egiteko programaturako jardueraren bidez, aniztasunaren esparruan esku hartzen duten teknikari eta adituentzako prestakuntza- eta gogoeta-jarduerak ere izaten direlako.

Iraunkortasuna. Kulturarteko Astea etenik gabe egin da duela zazpi urtetik, eta valladolidtarren parte-hartze handia izan du. Horrekin batera, azpimarratzekoa da astea Immigrazio Departamentuaren urteko agendan sartu izana, mesedegarria baita, dudarik gabe, esperientziaren iraunkortasun tekniko eta ekonomikoarentzat.

Herritarren inplikazioa. Kulturarteko Astearen garapena urteko programazioaren diseinu parte-hartzailean oinarrituta dago. Horretarako, eta betiere Immigranteei Laguntzeko Zentroaren gidaritzapean, urteko lan-proposamena Hiriko Immigranteen Kontseiluan eztabaidatzen da, hori baita Valladoliden migrazio-esparruan diharduten gizarte-erakundeak eta instituzioak biltzen dituen immigrazio-kontseilu sektoriala. Horretara, Kulturarteko Astearen diseinuan metodologia parte-hartzailea sustatzeaz gain, Kontseiluaren jardueraren bultzatu eta legitimatu egiten da.

Kulturarteko ikuspuntua. Kulturarteko asteak beste kulturak ulertzea, errespetatzea eta balioestea sustatzen du, kulturen arteko errespetua eta elkarriketa bultzatzearen bidez.

Gainera, programaturako jardueren diseinuan lehentasuna ematen zaio gizarte-entitateen eta eragileen parte-hartzeari, eta hiriko Immigranteen Kontseiluaren esku-hartzea garrantzitsua da, zenbait immigrante-elkarte, laguntza ematen duten GKE, sindikatu eta toki-administrazioa biltzen baititu.

■ “KONTATU ZUK” PROIEKTUA: HERRITARRAK ELKARTZEKO, HERRITARREK PARTE HARTZEKO KULTURARTEKO GUNEA. Torre-Pachecoko Udala, Murtzia

Torre-Pacheco Murtzia eskualdeko herri bat da, Campo de Cartagenan kokatua. Guztira 189,4 kilometro koadroko hedadura dauka; hau da, eskualde osoaren %1,6 hartzen du. Muga hauek ditu: iparraldean, Murtzia hiria; mendebaldean, aipatu hiri hori eta Fuente Álamo herria; hegoaldean, Cartagena; eta ekialdean, San Javier eta Los Alcázares herriak.

2009ko Udal Erroldako datuek diote Torre-Pachecok 31.495 biztanle dituela, eta haietatik %28 atzerritar jatorrikoa dela, azken urteetan atzerritar jatorriko biztanleen kopurua nabarmen igo ondoren: 5.500 pertsona 2004an; ia 9.000 gaur egun.

Herrian bizi diren 8.772 atzerritarretatik 3.969 marokoar jatorrikoak dira eta 2.207 ekuadortar jatorrikoak; bi horiek dira atzerritar jatorriko biztanle-multzo handienak (%45,25 eta %25,16, hurrenez hurren). Azpimarratzekoa da Erresuma Batuko 761 pertsona bizi direla herrian; horrenbestez, haiena da presentzia handieneko hirugarren nazionalitatea (%8,61).

Herrian ez dago integrazio-, kulturarteko bizikidetzaren edo herritartasun-planik; hala ere, tokiko integrazio-plan bat prestatzea aurreikusten da 2011. urterako. Sentsibilizazio-esparruan egiten diren jarduerak Gizarteratze Programaren bidez koordinatzen eta kudeatzen dira.

Proiektuak Udaleko Gizarte Ekintzarako Zerbitzu Institutuak koordinatzen ditu; institutu hori Torre Pachecoko Udalaren mendeko erakunde autonomoa da, eta Gizarteratze Programa garatzen du. Programa horren bidez, halaber, Gizabanako eta Familia Immigranteen Harrera eta Integrazioa

Proiektu horrek hainbat proiektu hartzen ditu barruan esparru hauetan: etxebizitza, hezkuntza, osasuna, enplegua eta gizartean parte-hartzea. Urtero, proiektu espezifikoak gauzatzen dira; adibidez, “Kontatu zuk” (herritarrak elkartzeko, herritarrek parte hartzeko gunea) eta “Irudi bat baino gehiago”; proiektu espezifiko horiek immigrante-jatorriko herritarren integrazioa lortzeko ekimen berritzaile batzuen barruan daude.

Zergatik da garrantzitsua ekimena?

Irudia eta ikus-entzunezko komunikazioa Torre-Pachecoko gazteen parte-hartzea bultzatzeko eta haien artean kulturarteko trukea egiteko eta balioak sustatzeko tresna gisa erabiltzeak kreatibitate-eta berrikuntza-maila handia ematen dio ekimen honi sentsibilizatzeko-ekintzen garapenaren ikuspuntutik.

Esku hartzeko metodologiarekin batera, jarduerak herritar asko eta askorengana zabalduta izan da aukera eman du aldaketak sustatzeko herrian bizi diren atzerritar jatorriko biztanleenganako jarreretan.

Zertan datza esperientzia?

Ekimenaren deskribapen laburra	Sentsibilizatzeko eta gazteen nahiz adingabeen partaidetza bultzatzeko helburu dituen proiektua da, eta, horretarako, gazteen arteko kultura-trukea eta parte-hartze aktiboa sustatzen dira Torre-Pachecoren, eduki teknologikoa eta ikus-entzunezkoa duten jarduerak erabiliz.
Helburu orokorra	Torre-Pachecoren bizi diren gazte eta emakume immigranteen arteko kultura-trukea eta parte-hartze aktiboa sustatzea.
Helburu espezifikoak	Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien erabilera abiaraztea Torre-Pacheco ikastetxeetako gizarte- eta hezkuntza-erloto txertatze-estrategietan. Immigranteek herriko bizitzan parte-hartze aktiboa izan dezaten sustatzea ikus-entzunezko hizkuntza erabiliz. Jarrera, jokaera eta aldaketa sozial positiboak sustatzea, hirugarren herrialdeetako parte-hartzea bultzatzeko.
Proiektua gauzatzearik zerikusia duten eragileak	Gizarte Ongizate, Osasun eta Immigratio Zinegotzigoa, Hezkuntza Zinegotzigoa, herriko ikastetxeak, herriko irratia, telebista autonomikoa.
Esku hartzeko metodologiaren deskribapena	Irudiaren eta ikus-entzunezko komunikazioaren erabilerrari esker, arte-diziplina asko txertatu ahal izan dira proiektuko jardueretako bakoitzean, eta, horrenbestez, gazteek elkarguneak izan dituzte, elkar hobeto ezagutzeko, beren ahalmen sortzailea adierazteko, esperientziak partekatzeko, beren nahiak besterenganatzeko edo ekimen bateratuak planteatzeko zenbait proiekturen bidez: bideo-klipa, iragarki soziala eta abar. Web honetan informazio gehiago lor daiteke: http://www.andoenredando.es/cuentastu .
Ekimenaren edukiak	Jarduera hauek egin ziren Torre-Pachecoko Lehen Hezkuntzako bi ikastetxe publikotan: - “Gela birtuala”. Gela horren xedea izan zen gaurkotatzearen zenbait kontu sozialekin (besteak beste, bizikidetzaren, adiskidetasunaren, kulturartekotasunaren, adierazpide eta abarrekin) zerikusia duten gaiak sustatzea Torre-Pachecoko Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan. Jarduera honi buruzko informazio gehiago izateko, jo honetara: http://www.andoenredando.es/aula . - Tele-Dima. Jarduera honen xedea izan zen gune berritzaile bat eskaintzea (espazio-ontzi bat simulatzen duen stand bat), adingabeek beren mezuak erregistratu eta zer nahi duten Dimari adierazteko; izan ere, Dima estralurtar bat da, lurrera iritsi eta gazteekin harremanetan jartzen dena, gure ohituren, izateko eren

	<p>eta abarren berri izateko. Jarduera hau aipatu gela birtualarekin batera egin zen.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Stop motion-eko bi tailer, "Virgen del Pasico" ikastetxe itunduan. Bigarren jarduera honen xedea aniztasun kulturala, komunikazioa eta balioetan oinarritutako heziketa integratzea izan zen, ikus-entzunezko proiektu txikien bidez. Jardueraren ondorioz, ikus-entzunezko hiru klip grabatu ziren, gazteek berek sortutako hiru istorio abiapuntutzat hartuta. - Hip-hop musika sortzeko tailerra eta spot sozialak sortzekoa. Bi jarduera horien ondorioz bideoklip bat eta spot sozial bat egin ziren, eta tailerretan aritutako ikasleek haietan parte hartu zuten. Gazteek letra musikalak, mezu sozialak eta abar egin zituzten jarduerotan, oso alderdi garrantzitsuak kontuan hartuz: jokabide arrazisten eta xenofoboaren prebentzioa, kulturarteko bizikidetzaren parte-hartzea eta abar. - Programa barruko jarduerak sustatzeko DVDa. Irudi- eta soinu-teknikariak programako jarduerak sustatzeko DVD bat egin zuen, programako jarduerak laburtzen dituzten irudi eta dokumentu grafiko guztiak biltzen dituena.
Ekimenaren hartzailerik diren herritarren ezaugarriak	Torre-Pachecoren bizi diren haurrak eta gazteak, bertan jaioak zein etorkinak (batez ere ekuadortarrak eta marokoarrak). 785 bat onuradun zuzen; hala ere, hedatze-jarduerak 35.000 pertsonarengana baino gehiagorengana iritsi dira.
Ekimenerako baliabideak	<p>Giza baliabideak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Txertatze-teknikari bat. - Irudi- eta soinu-teknikari bat. - 2 gizarte-bitartekari. Baliabide teknikoak: - Ikus-entzunezkoen sektorean espezializatutako zenbait enpresaren zerbitzua kontratatu zen. <p>Baliabide ekonomikoak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Jarduera honako hauek finantzatu dute: Europako Integrazio Funtzak, Lan eta Immigrazio Ministerioak (Immigranteen Integrazioarako Zuzendaritza Nagusiaren bidez) eta Torre-Pachecoko Udalak.
Ekimenaren jarraipen-/ebaluazio-sistemaren deskribapen laburra	Jardueren ebaluazioa egitean kontuan hartu ziren bai programako profesionalen eta teknikarien iritzi subjektiboa bai gazteena; izan ere, gazteek, galdera-sorten bidez, irakasleak, materiala eta jarduerak egin ziren zentro eta institutu etako zuzendaritza-taldeak ebaluatu ahal izan zituzten.
Lortutako emaitzak, proposamena egitea ekarri zuen diskriminazio-egoera desagertzeari/hobetzeari dagokionez	<p>Programaren bidez egindako jardueren berritzailetasuna dela eta, programaren hartzailerik parte-hartze handia izan dute, parte hartu dutenen kopurua handiak erakutsi bezala.</p> <p>Programako jarduerari esker, hirugarren herrialdeetako parte-hartze aktiboa handitzeaz gain, gizarte-sareak sortu ahal izan ditugu (hau da, elkartze-mugimenduen iturria) eta, era berean, eduki teknologikoko jarduera berrien eskaria ere areagotu ahal izan da, gazteak guztiz identifikatzen baitira haiekin.</p>
Herritarren inplikazioa	Herritar hartzaileak jardueraren hasieratik inplikatu dira, eta parte-hartze aktiboa izan dute, bai banan-banan, bai gazte-elkarteen, ikastetxeen eta abarren bidez.

Zer ikas daiteke ekimen honetatik?

Berrikuntza. Torre-Pachecoko Udalaren ekimena batez ere berrikuntzagatik eta daukan ahalmen sortzaileagatik nabarmentzen da, irudiaz eta ikus-entzunezko komunikazioaz baliatzen baita parte-hartzea, kulturen arteko trukea eta herriko gazteek balioak berenganatzea sustatzeko. Metodologiaren eta esperientzian erabilitako tresnen ahalmen sortzailea dela eta, gazteek parte hartzeko motibazio handia izan dute, eta horren emaitza argiena atzerritar gazteen kopurua handitzea

izan da, bai eta elkartze-mugimenduak eta Gizarteratze Programak gidatutako jarduera berriak sortzea ere.

Ikuspegi osoa. Ekimenaren garapenak oinarri hauek ditu: alde batetik, hainbat udal-esparrutako eragile instituzional publikoen arteko lankidetzak; bestetik, sentsibilizatzeko-ekintzetan maiz esku-hartze aktiborik ez duten eragile pribatuak biltzea (besteak beste, toki-irratia eta Murtziako eskualdeko telebista autonomikoa).

Eraginkortasuna. Metodologia eta tresna berritzaile nahiz ahalmen sortzaile handikoen garapenak berekin ekarri du parte-hartzaile gazteen kopuruak gora egin izana, batez ere atzeritar jatorrikoenak; horregatik, proiektuaren helburuak neurri handian lortu dira.

Adin-ikuspuntua. Jardueren hartzaile ziren herritarrak proiektuaren hasieratik inplikatu dira haien garapenean, ekintzen diseinuan bezala haiek iraun bitartean ere, gazte-elkarteen zein ikastetxeen bidez; gainera, proiektua ebaluatzeko prozesuan ere parte hartu dute.

■ DONOSTIA "ELKARREKIN" KOMUNIKAZIO-PROIEKTUA. Donostiako Udala

Donostia (San Sebastián erdaraz; Donostia-San Sebastián da izen ofiziala) Gipuzkoa probintziako hiriburua da, eta Euskal Autonomia Erkidegoan dago. Hiriak 185.510 biztanle ditu, eta horietatik 12.018 pertsona atzeritar jatorrikoak dira; hau da, biztanle guztien %6,5. Azken bost urteetan, atzeritar jatorriko biztanleen kopurua bikoiztu egin da hirian. Nazionalitateen arabera banaketari dagokionez, ekuadortarrena eta kolonbiarrena dira multzorik handienak Donostian (%10,33 eta %8,63, hurrenez hurren) eta atzetik errumaniarrak, marokoarrak eta portugesak datoz.

2005ean, immigrazio-plan bat abiarazi zen 2005-2007 aldirako, *Donostia Elkarrekin* izenekoa eta bere lanaren xedetzat esparru hauek hartu zituen: harrera, etxebizitza, enplegua, hezkuntza, osasuna eta sentsibilizatzeko. Udala, 2004-2005ean, Eusko Jaurlaritzak immigrazio-esparruan antolatutako harrera-sarera bildu eta immigrazio-plana gauzatu zen, eta orduz geroztik *Gizarte-bitartekotzako eta kultura arteko bitartekotzako programa* garatzen hasi ziren. Sentsibilizatzeko da programa horretako lan-esparru nagusietako bat. Programan jarduera hauek garatzen dira:

- Jardunaldiak auzoetan, immigrazioari buruzko datuak, bizitzeko moduak, etor-tzeko arazoak eta abar jakinarazteko.
- Immigranteen kolektiboari buruzko azterketak/diagnostikoak
- Bitartekotza gatazken konponketan
- Zenbat argitalpen egitea
- "Auzotarren hiria" komunikazio-plana

Zergatik da garrantzitsua ekimena?

Donostiako Udalaren komunikazio-proiektuak *"Donostiarrek immigrazioarekiko dituzten pertzepzio, balio eta jarrerari buruzko azterlana* du oinarri. Diagnostiko horretatik abiatuta, immigranteekiko zenbait diskurtso negatibo zehaztu ziren, Udalak egin beharrekoak prestatzeko aukera eman zutenak.

Bestalde, azterlana/diagnostikoa bai Eusko Jaurlaritzarekin (Ikuspegiren bidez, hau da, immigrazioarako euskal behatokiaren bidez) bai Euskal Herriko Unibertsitatearekin izandako lankidetzak instituzionalean oinarritu zen; izan ere, horri esker, erakunde bakoitzak eskaini zitzaizkeen baliabideak optimizatu egin ziren. Horren guztiaren ondorioz, immigranteekiko pertzepzioak eta jarrerak ondo atzemanda zeudelako berme handiagoarekin planifikatu ahal izan ziren garatu beharreko jarduerak.

Zertan datza esperientzia?

Ekimenaren deskribapen laburra	Donostiako Udalak Immigrazioko Jardun Plana dauka. Donostiarrei zuzendutako komunikazio- eta sentsibilizatzeko-ekintzak egiteko beharra jasotzen da planean, helburu hauekin: donostiarrek
---------------------------------------	--

	<p>immigrazioaren fenomenoaz dituzten pertzepzioa, jarrerak eta jokabideak hobetzea eta bertako zein atzerriko kolektibo batzuek hirian egon daitezkeen aurreiritzi eta estereotipo negatiboak borrokatzea eta zuzentzea.</p> <p>“Donostiarrek immigrazioarekiko dituzten pertzepzioaz, balioez eta jarreraz” (Planeko 43. jarduera) egindako azterlana sentsibilizatzeko eta kulturartekotasun-esparruan kokatzen da, eta lan horretan honako hauek parte hartu dute: Donostiako Udalak berak (erakunde horrek gidatzen eta diruz laguntzen du), Euskal Herriko Unibertsitateak, Ikuspegik (Immigrazioarako Euskal Behatokiak) eta migrazioaren errealitateari lotutako hiriko elkarte eta erakundeetako ordezkariak.</p> <p>Azterlanaren xedea da zehaztea zer ardatz, gako eta komunikazio-estrategia erabiltzen ari den Donostiako Udala hiriko bizilagun guztiak integra daitezten hurbil dauzkaten guneetan (familia, lana, arlo ekonomikoa, soziala...), kultura anitzeko hiri barne-hartzailea egin, sendotu eta garatzeko, gure garaiari dagokion moduan.</p>
Helburua orokorra	Komunikazio-ardatzak azpimarratzea, oinarri izan daitezen donostiarrek sentsibilizatzeko komunikazio-kanpaina eta -ekintza egokiak egiteko eta, horrenbestez, errealitatea faltsutzen duten eta gizarte-hipokrisia justifika dezaketen diskurtsoak agerian uzteko.
Helburu espezifikoak	<ol style="list-style-type: none"> 1. Jarrera negatiboak aldatzea eta positiboak finkatzea. 2. Jarrerak zehaztu gabe dituzten pertsonengana iritsi eta haiek pertzepzio positiboa izan dezaten lortzea. 3. Gizarte-eragin handieneko biztanle-taldeetara iristea, haien jarrera positiboak finkatzeko (edo aldatzeko, negatiboak edo zehaztugabeak badira), eta, horrenbestez, immigrazioaren aldeko iritzi-lidergoa ziurtatzeko.
Proiektua gauzatzearekin zerikusia duten eragileak	Donostiako Udala Komunikabideak.
Esku hartzeko metodologiaren deskribapena	<p>Pertzepzio-azterketak oso datu zehatzak eman zituen taldeei lotutako aldagaiei buruz, zeinak immigranteekiko ezinikusi-mailaren eta tolerantzia edo intolerantzia gertatzen zen esparruen arabera zehaztu baitziren.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Biztanle-sektore handienak “irekitasunezko anibalentea” deritzon jarrera dauka (%70). - Zenbat eta gizarte- eta hezkuntza-maila handiagoa izan, orduan eta txikiagoa ezinikusia; eta alderantziz: zenbat eta txikiagoa, orduan eta handiagoa. <p>Jendearen aukeraketak komunikabideen kontsumoa zenbatesteko aukera eman zuen, eta, beraz, jendearengana ongien iristeko komunikabideak hautatu ahal izan ziren.</p> <p>Immigranteekiko errefus-taldeen ezaugarriak eta komunikabideak kontsumitzean haiek dauzkaten profilak oinarritzat hartuta, Donostiako Udalak irratitari eman zion lehentasuna zabalkunde handiko hedabideen artean, baina jardun jakin batzuetan beharrezkoa izan zen beste hedabide osagarri batzuk erabiltzea.</p> <p>Osagarritzko bitarteko horiek aukeratzeko arrazoiak hauek izan ziren: toki-esparrukoak izatea; edo datu-base batera edo zehaztutako kolektibo batera (irakasleak, eskola-umeak, finken administratzaileak...) jotzen duten zuzeneko bitartekoak izatea. Toki-esparruari kanpoko guztiak dagozkio, hala nola: Dvbusak, markesinak, kartelak, autobusen errotulazioa. Bai eta toki-estaldura kontratatzeko aukera ematen dutenak ere; adibidez: tartekoak egunkarian edizioa Donostian izanez gero, tokiko telebistak... Zuzeneko bitartekoei dagokienez, pertsona jakin batzuentzat dira,</p>

	edo pertsona horiek dauden esparruetan banatzen dira, eta, gehienbat, inprimatu edo grabatu egiten dira: foiletoak, koaderno informatiboak, dokumentuak, <i>merchandisinga</i> , DVDak...
Ekimenaren edukiak	Komunikazio-proiektuko jarduerak 2008. eta 2010. urteen artean gauzatzen dira, eta hileko programazioa dute epe horretan.
Ekimenaren hartzaile diren herritarren ezaugarriak	Donostiar guztiak.

Zer ikas daiteke ekimen honetatik?

Planifikazioa. Donostiako proiektuaren ezaugarria da planifikazio-lan ona egin dela egoeraren diagnostiko-fasetik. Donostiarrek immigrazioarekiko dituzten pertzepzioaz, jokabideez eta jarreraz egindako azterlanari esker, immigranteekiko diskurtsoak eta jarrerak identifikatu ahal izan ziren, hala nola biztanle-taldeak bereizi, mezuak talde bakoitzari modu espezifikoan helarazteko.

Berrikuntza. Ekimena ahalmen sortzaile eta berritzaile handikoa da, oinarritzat dituen komunikazio-jarduerak abiapuntu hauek dituztelako: alde batetik, donostiarrak taldetan banatzea, immigranteekiko dauzkaten pertzepzioen eta jarreraren arabera; bestetik, jarduera bereziak prestatzea, bai mezuen edukiei dagokienez, bai jarduera-motari dagokionez.

Iraunkortasuna. Proiektua 2007tik gaur egun arte garatu da, jardueren eta esku hartu beharreko guneen programazioa oso zehatza izan da eta kulturarteko bizikidetzari buruzko mezuak zabaldu dira.

Eragin positiboa. Proiektuak aurreikusitako jarduerak ondorio zuzena dute immigranteekiko diskurtso negatiboetan, eta, horrenbestez, eragin garrantzitsua herritarren pertzepzioetan eta jarreretan; hortaz, sentsibilizatzeko arloko esperientzia azpimarragarria da.

5 JARDUTE-ESPARRUAK

Aurkezpena

Lau jarduera-esparruen aukeraketak zerikusia dauka ESCII eta II proiektuen emaitzekin. Proiektu horiek 2008an eta 2009an gauzatu ziren eta, amaieran, tokiko sentsibilizatze-planak egiteko gida argitaratu zen, non diskriminazio-kausa ohikoenak zein diren jaso baitzen, eta aditzera eman baitzen toki-gobernuek zer esparrutan esku hartu behar duten jarduera eraginkorrak gauzatzeko tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren esparruan.

Horrela, proiektuko lan-prozesu osoa aipatu lau jarduera-esparru horiek bideratu dute, bai toki-entitate parte-hartzaileen identifikazioan, bai tokian-tokian egindako esperientzien eta ekimenen aukeraketan. Aditu-taldean esku hartu duten pertsonak aukeratzean, halaber, eragina izan zuen aipatu jarduera-esparruei lotutako ibilbideak eta esperientziak dituzten pertsonak izan beharrak. Horren adierazgarri, aditu-taldean parte hartu duten pertsonetako bakoitzak harreman zuzena du proiektuko jarduera-esparruetako bakoitzarekin:

Waltraud Müllauer aditua da gune publikoetako esku-hartzeetan.

Macarena Vallejo, berriz, gazteentzako interbentzio-proiektu eta -programetan..

José M. Batlles (Almeríako Diputaziokoa) eta Marta Solé (Bartzelonako Diputaziokoa) toki-mailako zerbitzu publikoetarako sarrera-arloko aditu moduan aritu ziren.

Rosa Bada aditua da diskriminazioaren aurkako eta giza eskubideen aldeko araugintzan, eta bide profesional luzea egin du toki-administrazioan.

Carmen Cárdenas, azkenik, aditua da genero- eta lanean txertatze-esparruan.

Pertsona horiei eskatu diegu gogoeta egiteko kapitulu honetan jasotzen diren ESCI III Proiektuko jarduera-esparruetako bakoitzari buruz. Jarraian aurkezten ditugun ekarpenetako bakoitzean gogoeta labur bat egiten da, adituak aipatu esparru horietan dituen ikuspuntuak jasotzen dituena, arrazagatiko eta/edo etniagatiko diskriminazioarekin eta sentsibilizatze-jardunarekin erlazionatuta; gainera, toki-gobernuek jarduera-esparru bakoitzean sentsibilizatze-jarduerak abiaraz ditzaten dauden arrazoiez teorizatzen da.

Waltraud Müllauerren sarrera orokorrak ematen dio hasiera kapituluari; bertan argi adierazten da zeinen garrantzitsua den sentsibilizatzea toki-entitateetan –haitan kokatu behar baitira jarduera-esparruak– tratu-berdintasunari eta diskriminaziorik ezari dagokienez. Gero, adituen ekarpenak jasotzen dira: Carmen Cárdenasena genero-arlokoa da; Macarena Vallejorena gazteei buruzkoa; Rosa Badak bizikidetzaz eta gune publikoez dihardu; eta Marta Solék nahiz José Batllesek zerbitzu publikoetarako sarbideaz. Esparru honetan dauden bi ikuspegiei eustea hautatu da, gizarte- eta lurralde-testuinguru desberdinetatik baitatoz –Bartzelonako eta Almeríako diputazioak– eta, horrenbestez, jarduera-esparru honi buruzko eztabaida eta gogoeta aberasten baitituzte.

5.1 Diskriminazioaren prebentzioa eta tokiko gobernuek sentsibilizazioa zabaltzen betetzen duten eginkizuna

Waltraud Müllauer

Diskriminazioaren prebentzio-politikak

Diskriminazioa eta, ondorio gisa, gizarte-desberdintasuna gizarte-bazterkeriaren oinarrian daude, baina gizarte-prozesu anomiko guztiei bezala, diskriminazioari ere aurrea har daskioke kontsidero hauetatik abiatuta:

1. Aniztasuna ez da desberdintasunaren sinonimoa. Lehendabizikoa errealitatearen ezaugarri empirikoa da; bigarrena, berriz, gizarte-fenomenoa, pertsona eta kolektibo jakin batzuei, beste batzuen aldean, zenbait kondizio, eskubide eta sarbide ukatzen dizkieten giza adierazpen, diskurtso eta jardunbide jakin batzuetatik ondorioztatua. Aniztasuna aitortzeak ez dakar nahitaez desberdintasuna, azken hori oso jardunbide politiko, ekonomiko, ideologiko eta kultural jakin batzuen emaitza baita, eta jardunbide horiek beti alda baitaitezke, eta bestelakoak izan (Ramirez Goicoechea: 2010). Aukera horretan datza politika sozial eta jarrera zibil jakin batzuk aldatzeko, berriz definitzeko, hobetzeko eta abiarazteko ahala. Azkenik, desberdintasuna eta diskriminazioa elkar osatzen duten bi prozesu dira. Desberdintasuna, gauzatu, diskriminatzen delako gauzatzen da; eta diskriminatzen denean, desberdintasuna zertzen da.
2. “Gehiengoaren” gizartetzat, gizarte “autoktonotzat”... hartzen denaren barne-aniztasunaren onarpena oinarritzko printzipioa da, bertan behera utzi nahi bada desberdina dena “Bestea” nolakoa den eta nor den zehazteko baliatzen den gizartetik kanpo dagoelako hipotesia. Aniztasuna ez dator “kanpotik”; berezkoa du pertsonen eta taldeen arteko harreman orok.
3. Ezin zaie aurre egin diskriminazioari eta desberdintasunari ezagutza kulturalaren esparruko politika liberalak soilik erabiliz. Gizarte-bazterketa eta -ezinikusia dakarten faktore politiko, ekonomiko eta ideologikoetan sakondu behar da, eta inplikaturako agentzia, erakunde eta arlo guztiekin batera lan egin (Dietz: 2003).
4. Aniztasuna administratzean eta arautzean (haren ondorio ekonomiko, sozial eta kulturaleri dagokienez), gizarteko kide guztien giza eskubideak bermatu behar dira, kolektiboan artean gizarte-hausturarik eta baliabideak eskuratzeko lehiarik eragin gabe. Horregatik, ezinbestekoa da guztiek kooptatzea aniztasuna errespetatuko duen bizikidetzazuzena izateko proiektu batean, eta horretarako, aldi berean, komun dugun guztia sustatzea.
5. Prebentzioa ondo planifikatuko bada, aniztasuna negatiboa, mehatxagarria, ezegonkortzailea den zerbaitekin lotzen duten gizarte-pertzepzioak aurkitu, neutralizatu eta berriz definitu beharko dira. Aurreiritzietan, uste okerretan eta ezjakintasunean oinarritutako diskurtso eta irudi publiko eta pribatuak desegitea nahitaezko lana da eraginkorki aurrera eramateko diskriminazioaren eta desberdintasunaren aurkako edozein prebentzio-politika. Askotarikotasun kulturala, soziala, pertsonala eta kolektiboa nahiz giza askotarikotasuna ez dira konpondu beharreko arazoa, trukerako, prestakuntzarako, bizikidetzarako aukera baizik. Bestelakoari ezezaguna delako lotzen zaion estigmak eta hari buruzko aurreiritziak ez ulertzea, beldurra, arbuioa eta indarkeria ekartzen dituzte, hau da, kontu negatiboak, edozein kolektibitateko kideen garapen pertsonal eta sozialaren ikuspuntutik.
6. Besteek ez zaie erreparatu behar arazoa balira bezala, eta besteak ez dira ezinbestean lotu behar marjinazioarekin edo gizartetik desagerraraztearekin. Bestalde, haiek biktima bihurtzeak beren ingurunean parte-hartze aktiboa eta osoa izatea zailtzen du. Gizarteratuko badira, halaber, beharrezkoa izango da haiei ahots eta agentzia autonomoa ematea, haiek horiez jabetzea (García Canclini: 2005).

7. Ezinbestekoa da agerian jartzea ezkutuko eta isileko diskriminazio-prozesu eta -leku sozialak. Horrela baino ezingo dira abiarazi jardun orokor eta espezifikokoak, hala nola herritarrak kontzientziarazi haiek aldatzeko aukeraz.
8. Funtsezkoa da herritar guzti-guztiak inplikatzeko gizarte zuzenagoa eta orekatuagoa lortzeko ahaleginean, gizartearen ezaugarritzen duen giza aniztasunaren aberastasun eta aukera guztiak aprobetxatzeko.
9. Beharrezkoa da gizarte-aniztasun sozial orokorraren mapa zehatz eta sakon ezagutzeko maila hierarkikoan, bizikidetzari eta kasuan kasuko antolaketa politiko eta administratiboari dagokionez: herria, probintzia, autonomia-erkidegoa, Estatua. Diskriminazio-egoerei eta -jardunbideei aurrea hartzeko jarduerak diseinatu eta planifikatzean, funtsezkoa da informazio kuantitatiboa eta kualitatiboa (hau da, etnografikoa) izatea, kasuan kasuko giza errealitate soziala ezagutzeko.
10. Sistema adituek (administrazioek, erakunde akademikoek, ikerketa-arlokoek eta abarrek) emandako informazioa ez da nahikoa gizarte-aniztasunaren azterketarako. Ezagutza ez da informazioa soilik. Beharrezkoa da inplikazio zuzena dutenen ahotsak integratzea, besteekiko jarrerak, errepresentazioak eta jardunbideak berregituratuko dituen mapa semantikoa eratzeko.
11. Informazioa eta ezagutza ez dira aski prebentzioa egiteko. Diskriminazio-jardunbideak eta -errepresentazioak ekoizten eta objektibatzen diren esparru nagusiak aurkitzeaz gain, beharrezkoa da gizarte-harremana, esanahia eta ebaluazio afektiboa ekoizten dituzten esparru eta agentzia guztiak inplikatzeko. Soil-soilik horrela prestatu ahal izango dira diskriminazioaren aurkako sentsibilizazio- eta jardute-politika eraginkorrak.

Udalak eta toki-gobernuak

Udalak eta toki-gobernuak funtsezkoak dira diskriminazioaren eta desberdintasunaren prebentzioan, herritarrak sentsibilizatu nahi direnean eta beren herritarren eguneroko bizitza-esparru gehienetan politika eta jardun espezifikokoak abiarazteko ahaleginean. Udalak eta toki-gobernuak, halaber, EBren balioekin eta jarraibideekin bat etorrituz, funtsezko tresna dira Europar Erkidegoko erakundeek gizarte-ongizatearen eta bizi-kalitatearen esparruan sustatutako helburuak abiarazi nahi direnean.

Partekatutako gune urbano publikoa gizarte-aniztasunerako eta kulturarteko harremanetarako jokaleku nagusi eta hurbilenetako bat da. Argi dago gune hori esparru pribilegiatua dela berdintasunean eta errespetuan oinarritutako herritarren arteko gizarte-trinkotasuna sendotzea xede duten jarduerak abiarazteko.

Globalizazio-prozesuen garai honetan, toki-esparrua oso garrantzitsua da, erabakigarria izan baita herritarraren esperientziari esanahia ematean.

- A. Lan-esparrua.** Enplegua sustatzeko politika espezifikoen bidez, bertakoentzat bezala kanpo-entzate ere, generoagatik, adinagatik, sexu-orientazioagatik, bizitza-estiloengatik bereizketarik egin gabe, enprekin eta lantokiarekin lotura estua izanik, bai eta autonomia-erkidegoko eta Estatuko agintariekin ere, eta haien arauak kontuan harturik, hala nola, lanpostuaren eta lan-esparruaren barruan, erlijio- eta kultura-aniztasunaren errespetuaren sustapena.
- B. Hezkuntza-esparrua.** Jarrera arrazistei, xenofobei, homofobei, patriarkalei eta bestelakoei aurrea hartzeko politiken bidez, eskola-erakundeekiko koordinazio estuan jardunez. Bai gizarte-etxe partekatu eta espezifikoetan egindako curriculumez kanpoko prestakuntza-jardueren bidez ere; horien barruan, hizkuntzen irakaskuntza (gaztelania atzerritarrentzat; atzerritarren hizkuntzak espainolentzat), trebetasun sozialak, trebetasun instituzionalak eta abar daude.
- C. Egoitza-esparrua.** Udalek eta toki-gobernuek planak eta proiektuak egin ditzakete tokiko lurralde-integrazioa lortzeko, herritar guztiak egoitza izatea sustatzeko, ongizatea, osasun-egoera eta bizi-kalitatea hobetzea jarraibidetzat izanik, ezinbesteko baldintza baita tokian-tokian gizarteratzea eta herritarren bizikidetzaren erdiesteko. Etxebizitza sustatzeko politikak, hiri-ekipamendurakoak, hezkuntza-, merkataritza-, paisaia-arlokoak eta bestelakoak, eta herritar guztiak haiek guztiak berenganatu ahal izatea, harreman positiboek ekarpen erabakigarria eginez, biztanle guztien artean desberdintasunik egon gabe.

- D. Aisialdiaren esparrua eta balio hauen sustapena:** aniztasunaren eta elkartasunaren errespetua, aitortpena eta ebaluazio positiboa; adin guztientzako trukeen, topaketen eta jarduera-programen bidez.
- E. Tokiko esparru administratiboa, politikoa eta zibila.** Ez bakarrik erroldatzearen eta tokian-tokian boto-eskubidea baliatzearen bidez; bai eta pertsonak eta kolektiboak toki-bizitzako zerbitzuetan eta kudeaketa-jardueretan integratzearen bidez ere.
- F. Herriko giza ondarearen dinamizazioa** da toki-administrazioak mende honetan gizarte zuzenagoa, berdintasunezkoagoa, askeagoa eta askotarikoagoa lortzeko bete ditzakeen ezinbesteko roletako bat.

Gizarte moderno oro bizikidetzatza- eta berdintasun-printzipioetan oinarritu behar da, ingurune bakezko, seguru eta ongizatezkoa izan nahi badu; hau da, ingurune egokia epe luzeko garapen iraunkorra izateko ez ezik, beste gizarte guztientzat ere.

5.2 Genero-ikuspuntua tratu-berdintasunaz eta diskriminaziorik ezaz sentsibilizatzean

Carmen Cárdenas

Sarrera

Gizartean esku hartzeko beste ildo batzuetan gertatzen den bezala, tratu-berdintasunaz eta diskriminaziorik ezaz sentsibilizatzeke lanean kontuan hartu behar da gizon eta emakumeen arteko berdintasuna zeregin horretarako jarduera-ardatzetako bat dela. Berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren sustapenari helduz, arrazoi asko daude gizon-emakumeen arteko berdintasuna ez ahazteko; orain, arrazoi horietan nabarienetakoak direnetako bi aipatuko ditugu:

- a) Gizon eta emakumeen arteko egiazko berdintasuna oraindik oso urruti dago. Herritarren erdiek baino gehiagok diskriminazio-motaren bat jasan dezakete emakume izate hutsagatik. Soldata-aldea da diskriminazio zabalduenetako bat (gizon eta emakumeek balio berekoa edo baliokidea den lan batengatik jasotzen duten ordainsarian dagoen aldea, alegia, horretarako arrazoi bakarra sexu-desberdintasuna izanik), eta munduko herrialde guztietan gertatzen da⁵. Baina era berean: emakume gutxiagok dute enplegu ordaindua, lan-baldintza txarragoak dituzte; presentzia txikiagoa dute erabakigune politiko eta ekonomikoetan; gutxiago baliatzen dituzte baliabide publikoak, garraioak, gizarte-zerbitzuak; auzoan eta komunitatean gutxiago aritzen dira... Beti ageriko moduan ez bada ere, gure iruditeria kolektiboko elementu eta mezu askok oraindik lotzen dute emakumea pribatutasunaren esparruarekin. Are gehiago, gure gizartean gertatu den bezala, emakumeak esparru publikora, lan-mundura salto egin duenean ere, bere buruaren lepotik izan dela esan genezake, eta horren adierazgarri dira honako hauek onartu izana dudarik egin gabe: lanaldi bikoitza edo are batzuetan hirukoitza ere; bizitza pertsonala eta profesionala bateratzeak batez ere emakumeekin duela zerikusia; norbaitek, seme-alabak edo gurasoak zaintzeko, lana utzi behar badu, hori emakumea izatea.
- b) Emakume izateak areagotu edo larritu egiten ditu beste arrazoi batzuegatik sortutako diskriminazio-prozesuak edo -egoerak; horri "diskriminazio bikoitza" esan ohi zaio. Immigranteek edo minusbaliotasunen bat duten pertsonak, bi adibide soilik aipatzearen, askotan aurre egin behar dieten oztopoak oraindik handiagoak dira emakumeen kasuan. Era berean, gizarte-zailtasuneko egoeran dauden emakumeak egoera berean dauden gizonak baino zaugarriagoak dira, erakunde asko aspalditik egiaztatzen ari diren bezala; izan ere, pobrezia feminizazioa aspalditik datorren fenomeno da.

⁵ Berdintasun Ministerioa – Lan eta Immigrazio Ministerioa.- (2010) "La brecha salarial: realidades y desafíos: las desigualdades salariales entre mujeres y hombres. España 2.009". EME bilduma (ekonomia, emakumea –mujer–, enpresa).

Hitz batean, ezinezkoa da tratu-berdintasunaren alde eta diskriminazioaren aurka lan egitea ahazten badugu gure gizartean sexu batekin edo bestearekin jaiotzeak oraindik erabakitzen duela neurri handi batean zer aukera eta gorabehera egokituko zaizkion bizitzan pertsona bati. Argi dago gizartea gero eta zuzenagoa eta berdintasunezkoagoa izatea lortzeko lanean behar-beharrezkoa dela administrazioek, gizarte-eragilek eta herritarrek ahalegin bateratua egitea, eta batera egin beharreko ahalegin eta bide horretan udal-erakundeek funtsezko eginkizuna bete behar dute. Tokiko administrazioa dago hurbilen herritarrengandik, eta zuzenean kudeatzen ditu gure bizitzak gertatzen diren ingurunea eta gure gizartean berdintasuna zer neurritan dagoen ezarrita erakusten diguten adierazpenak gauzatzen diren guneak. Herritarrekiko hurbiltasun horren ondorioz, tokiko administrazioak haien errealitatearen ezagutza zehatzagoa dauka, eta ezagutza hori funtsezkoa da estrategia eraginkorrak prestatu eta bultzatzeko gizarte-interbentzioaren esparruan, sentsibilizatzelana barne.

Orientazio metodologiko batzuk⁶

Tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren aldeko sentsibilizatzelaren kasuan, gizonen eta emakumeen errealitate desberdinari bi aldetatik heldu behar zaio, Europako Batasunak, aspaldi, gizonen eta emakumeen arteko berdintasun-printzipioa gauzatzeko erabaki bezala:

- a). Printzipio hori⁷ zeharka kontuan hartuz udal-ekimen guztietan.
- b). Gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren aldeko sentsibilizazio-ekimenak garatuz (genero-berdintasuna, aukera-berdintasuna, tratu-berdintasuna⁸), bai gai honi espezifikoki heltzen dioten proiektuen kasuan, bai proiektu zabalagoetan jasotako ekimen espezifikoen kasuan.

Ondoren, sentsibilizatzeko-ekimenen garapenari buruzko pista batzuk emango dira oso modu eskematikoan, proiektuaren faseen arabera antolatuta.

1 Proiektuaren sorreran eta hasierako definizioan:

- Kontuan izatea ez dagoela gizarte-interbentzio neutrorik: edo nahita sustatzen da emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, edo, nahi gabe bada ere, egoera finkatu egiten da eta, horrenbestez, dauden desberdintasunak betikotu.
- Estrategia integrala prestatzea, eta horretan ez bakarrik heltzea emakumeen arazo espezifikoei, bai eta lan egitea ere desberdintasun hori nola edo hala sortzen ari diren eragileekin.
- Ez ahaztu emakume izateak diskriminazio-prozesuaren ondorioak areagotzen dituela.
- Ahal den guztietan kontrastea egitea eta lankidetzan aritzea herrian lan egiten duten berdintasunaren aldeko erakunde ofizialekin, emakume-elkarteekin eta generoan espezialista diren erakundeekin.

2 Errealitatearen azterketa edo diagnostikoa: Abiapuntua izan behar du edozein sentsibilizatzeko-proiektutan, eta beharrezkoa da arreta berezia jartzea elkarrekin erlacionatutako hiru kontu hauetan:

- Datuak sexuaren arabera bereiztea.
- Datuek azaleratutako aldeak genero-ikuspuntutik aztertzea. Horretarako, beharrezkoa da prestakuntza espezifikoa izatea; bestela, lortu ditugun datuen interpretazio okerra egiteko arriskua dago.
- Gure lanaren xede diren emakumeen eta gizonen beharrak aztertzea.

3 Gure lanaren xede izango diren taldeak identifikatzea:

- Emakumeak gure jardueraren benetako protagonistak direla pentsatzea, eta ez "hartzaille" hutsak; eta horren arabera jokatzeko.

⁶ Hau oinarritzat hartuta eginga: Espainiako Gurutze Gorria(2.007). "Orientaciones para incorporar la perspectiva de género en los proyectos de Empleo". Bulego Nagusia Barne-dokumentua.

⁷ Batzuetan, genero-berdintasunaren printzipioa ere esaten zaio printzipio horri. Genero kontzeptuak honako hauek guztiak barnebiltzen ditu: gizarte bakoitzak sortu eta gizon-emakumeei esleitzen dizkien jokabide, jarduera eta ezaugarri egokiak, estereotipoak, gizarte-rolak, egoera eta lortutako posizioa. Gizarte-interbentzioaren ikuspuntutik, garrantzitsua da kontuan hartzea ezaugarri horiek alda daitezkeela denboran zehar; hierarkikoak direla eta jokaeraredu desberdinak finkatzen dituztela gizon-emakumeentzat.

⁸ Kontzeptu horiek sinonimoak balira bezala erabiltzen dira askotan, baina ez dira baliokideak. Europako Batzordeak baliagarriak izan daitezkeen zenbait dokumentu argitaratu ditu; adibidez, "Berdintasunerako 100 hitz. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko hitzen glosarioa".

- Ez pentsatzea guztiz dakigula zer espero duten, zer behar eta arazo dituzten; aitzitik, guneak prestatzea, beraiek adieraz ditzaten haiek guztiak, eta esaten dutena gure jarduerarako abiapuntutzat hartzea.

4 Helburuak jartzea.

Egindako diagnostikoaren eta atzemandako beharren arabera, gure xedeek gizon-emakumeen arteko tratua- eta/edo aukera-berdintasuna sustatu behar dute eta, horrenbestez, emakumeen egoera hobetu behar dute lantzea erabaki dugun ardatzetan. Garrantzitsua da hauek kontuan hartzea:

- Ez dago helburu neutrorik; horregatik, ondorio positiboak zehaztu behar dira, helburu bakoitzarekin lortzea espero den berdintasunaren sustapenari dagokionez.
- Ezin da aurrez pentsatu zerbait egite hutsak berdintasuna sustatuko duenik; beharrezkoa da espezializatu zehaztea zertan esku hartu nahi den berdintasuna bultzatzeko.
- Edozein helburuk koherentea izan behar du errealitatearen azterketarekin, hala nola argia eta errealista.

5 Jardueren definizioa:

- Proiektuaren ardatzaren, haren edukien eta dauzkan indar-ideien arabera, beharrezkoa da emakumeak esparru horretan daukan egoera espezifikoki helduko dioten eta, ahal den neurrian, aldaketarako orientazioak ekarriko dituzten jarduerak barne hartzea.
- Posible den guztietan, espezifikoki emakumeen errealitatea eta garapen kolektiboari nahiz gure egunerokotasunari egiten dioten ekarpena agerian jartzea eta gure gizarte-diskurtsoan oraindik hain ezkatututa dagoen ekarpen hori balioestea xede duten guneak jasoko ditugu.
- Ez dugu besterik gabe pentsatu behar jarduera batzuk gehiago interesatzen zaizkiela gizonei, edo emakumei. Ahalegina egin behar dugu gure estereotipoek baldintza ez ditzaten, adibidez, gure jarduerak zabaltzeko aukeratutako estrategiak.
- Ahalegina egin behar dugu gure jarduerak iraunaraz ez ditzaten estereotipatutako rolak.
- Emakumeek proposatzen ditugun ekimenetan benetan sarrera izan dezaten bultzatu behar dugu. Adibidez, ez dugu ahaztu behar emakumeen gainean erori ohi dela kontziliazioaren zama, eta hori ez da beti kontuan hartzen jarduera askoren planifikazioan.
- Tratu-berdintasunaz sentsibilizatzeko proiektu askoren barruan prestakuntza-ekimenak izaten dira, gehienetan esparru ez-formalean (tailerrak, mintegiak...). Alde horretatik, oso garrantzitsua da emakumeek gizartean parte hartzea sustatu nahi duten elkarteak indartzeko eta ahalduntzeko prestakuntza-jardueri tokia egitea, eta bereziki azpimarratzea emakumeen eskubideez sentsibilizatzean giza eskubide batzuk bultzatu nahi direla.
- Era berean, ez da ezohikoa sentsibilizatzeko-proiektuen barruan azterlanen edo ikerketaren bat egotea. Garrantzitsua da ikerketan ez bakarrik deskribatzea errealitatea, bai eta, bereziki, gizon-emakumei modu desberdinean eragiten dieten kausak eta prozesuak aztertzea ere.

6 Zabalkunderako materialetan eta euskarrietan:

- Beharrezkoa da emakumei eta gizonei egokitu ohi zaizkien rolak eta jarrerak finkatzen dituzten irudiak baztertea.
- Egingarria denean, estereotipo horiek hausten dituzten eta emakumeak gure gizartearen garapenari egindako ekarpena adierazten duten irudiak erabiliko dira. Kontu hau garrantzitsua da; izan ere, "politikoki zuzena" den ahozko eta idatzizko hizkuntza erabiltzen ohi gara, baina ez da gauza bera gertatzen gure ikono-hizkuntzarekin. Ez da arraroa lelo edo eslogan batean zabaltzen den mezuarekin kontraesanetan dauden irudiak ikustea.

7 Baliabideetan:

- Esan den bezala, garrantzitsua da proiektuak, gutxienez, genero-arloan adituak diren pertsonekin egiaztatzeko aukera jasotzea, proiektuaren ardura duen taldean horrelakorik egon ezean.
- Aurrekontuetan adierazi egin behar da zenbat diru erabiliko den berdintasuna sustatzean eta berdintasun-printzipioa ezartzean bereziki garrantzitsuak diren jarduerak egiteko; aurrekontu horri "berdintasunerako aurrekontu espezifikoa" esan diezaiokegu. Berdintasun-esparruko tailer bati lotutako gastuak dira horren adibidea.

8 Jarraipenean eta ebaluazioan:

Proiektua planteatutako helburuen arabera ebaluatzeko (gauzatu bitarteko ebaluazioa, emaitza-ebaluazioa eta eragin-ebaluazioa) aurreikusitako ditugun adierazleen artean jaso egin behar dira emakumeen egoeran aldaketaren bat benetan gertatzen ari den jakiteko lagungarriak izan daitezkeen hainbat adierazle.

- Testuinguru-adierazleak: gizon-emakumeen errealitate desberdina diagnostikatzeko balio izan zutenak.
- Gauzatzeko-adierazleak: adibidez, jardueretan parte hartu duten gizonak eta emakumeak.
- Emaizta-adierazleak: proiektuak gizonengan eta emakumeengan zuzenean eta zeharka izandako ondorioak neurtzen dituzte.
- Eragin-adierazleak: proiektuak, testuinguru-adierazleek den bezainbatean (gizon-emakumeen arteko desberdintasunak deskribatu zizkiguten diagnostikoan), zer ondorio izan dituen neurtzen dute.

Orientazio horiek gauzatzearekin batera, oso garrantzitsua da kontuan hartzea ez gairela berdintasun-printzipioa ezartzen ari baldin eta:

- Uste badugu berdintasuna gizon eta emakumeen zenbakizko parte-hartze berdinen ondorio dela.
- Gure diskurtsoan emakume, sexu, genero, berdintasun... hitzak behin eta berriz esan besterik ez badugu egiten. Beharrezkoa da jakitea zer den berdintasun-printzipioa eta nola aplikatu behar den proiektuetan, eta hori jaso beharrezkoa da egiten ditugun proposamenetan eta haien gauzapenean, jarraipenean eta ebaluazioan.
- Gure datuak sexuen arabera bereizi baino ez badugu egiten: gure jardueretan parte har dezaten nahi dugun taldeen eta gizonen egoera eta jarrera aztertu behar ditugu.
- Emakumeak "kolektibo" homogeneousat hartzen jarraitzen badugu: emakumeak biztanleen erdiak gara, eta gure artean gizonen artean bezain zabala da aniztasuna, baina gizonez, bitxia bada ere, inoiz ez da esaten kolektibo bat osatzen dutenik. Beharrezkoa da jakitea zer berezitasun dituzten gure lanaren xedea diren emakume-taldeak.
- Emakumeekin edo haien zatik soilik lan egiten badugu, kontuan hartu gabe haiek jasaten dituzten diskriminazio-prozesuetan beste askok parte hartzen dutela.
- Ahazten badugu berdintasun-printzipioa aplikatzeko beharrezkoa dela aplikazio horren ardura duten profesionalak kualifikatuta eta prestatuta egotea.

5.3 Gazteak eta immigrazioa

Macarena Vallejo

Espainiako gizartean aldaketa handiak gertatu dira azken hamarkadetan, emigrazio-herrialdea izatetik immigrazioarentzako xede-herrialdea izatera aldatu baita. Migrazio-joeraren aldaketa horrek zerikusi zuzena du gure herrialdean azken urteetan izandako garapen politiko, ekonomiko eta sozialarekin. Horrenbestez, esan genezake migrazio-fluxuak izan direla gure gizartea gehien aldatu duten prozesuetako bat, eta hurrengo urteetan ere hala izango da; gainera, apustu handietako bat da, garapen sozial eta ekonomikorako elementu estrategikoa den aldetik.

Espainiak, azken hamarkadetan, zenbait etapa izan ditu migrazio-fluxuei dagokienez, eta aldaketak izan dira atzerritar jatorriko biztanleen kopuruan eta haiek datozen herrialdeez den bezainbatean. Baina herritar horien oso ehuneko handi bat gazteak dira, immigratzeko erabakia egonkortzearen hasierak ezaugarritu behar duen bizitza-zikloko adinetan hartzen dutenak. Bestalde, jatorriko herrialdea gorabehera, hainbat profil daude atzerritar jatorriko herritar gazteen artean. Batzuetan, pertsonak berak hartzen du immigratzeko erabakia, aukera berriak nahi dituelako, edo arrazoi ekonomikoek eraginda; besteetan, kideen migrazio-prozesuak bultzatuta dator.

Migrazio-prozesua inoiz ez da hasiko pobrezia gorriaren eraginez; aitzitik, ongien prestatuta dauden eta baldintza onenak betetzen dituzten pertsonak erabakiko dute "abenturari" ekitea, hori baita dena uztea bizitza beste nonbait berregiteko. Beraz, immigrinteak pertsona gazteak dira, profil sendokoak, ekimendunak eta gaitasun nahiz prestakuntza egokia dutenak azkar eta erraz integratzeko harrerako gizartean. Bestalde, migrazio-proiektua ez da gizabanakoarena izaten gehienetan, familiara edo kolektiboa baizik, eta jatorriko gizartearen zati batek irauteko balioko du, kolektiboak berak talde-inbertsioa egiten baitu proiektu horretan. Horrenbestez, migrazioa egiten duen

pertsona kolektiboaren ustez "gaitasun handiena" daukana izango da; normalean, pertsona hori gaztea izaten da, eta aipatu gaitasunak izaten ditu.

Migratutako pertsona gaztea bizi den egoera edo lekua edozein izanda ere, uniformetasunaren eta desberdintasunaren arteko tentsioa esperimentaraziko dioten baldintza kultural eta sozial batzuk izango dira batera. Harrerako gizartean bere adin bereko pertsonak ikusiko ditu, eta haien pareko izatea ere nahi izango du, baina zaila izango da integratzea alde ekonomiko, sozial eta kulturalen ondorioz. Hain zuzen ere, aniztasun kulturalaren aberastasunak kontrakoa ekarri beharko lukeen arren, alde horiek eragiten dituzte kolektiboaren diskriminazio-egoerak integrazio-prozesuan zehar.

Bestalde, azken garaiotan eta krisi ekonomikoaren ondorioz, immigrazioarekiko beldurra sustatzen duen diskurtso politiko eta sozial bat sortu da; horren arabera, immigrazioa delinkuentzia-iturria da, herritarren artean segurtasunik eza areagotzen du, zerbitzu publikoetarako sarbidea murrizten du, eta lanpostuak lortzeko lehia handitzen. Diskurtso hori zenbait gizarte-geruzatan sustraitu da, eta immigrazioa azken urteetan Espainiako gizartearen kezka nagusietako bat izatea ekarri du; gainera, horrekin batera, jarrera arrazistak eta xenofoboak areagotu egiten dira batzuetan.

Alde ekonomikoak, sozialak eta kulturalak nabarmenagoak egin daitezke toki-esparruan, pertsona izatez bizi eta aritzen den gunean. Hortaz, toki-administrazioak arreta bereziarekin zaindu behar ditu tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren alde abiarazten diren politikak. Kontua ez da kolektibo migratzailearentzako politika espezifikoak bultzatzea, baina kulturarteko ikuspuntua kontuan hartzea planifikatzen eta gauzatzen diren politika guztietan. Era berean, sentsibilizatzea funtsezkoa da gatazkei aurrea hartzeko eta gizartea osatzen duten pertsona eta kolektibo guztiak benetan integratzeko. Hori bereziki garrantzitsua da gazteen kasuan, gizartearen etorkizuna batera gauzatu behar dutelako hura osatzen duten alde eta pertsona guztiek.

Aurrekoa esanda, gazte migratzaileei dagokienez, diskriminazioa arreta handiagoa jarri beharko zaien funtsezko hiru esparrutan gertatzen da:

1 Hezkuntza-sistema

Hezkuntza-sistema sozializazio-eragilea da, eta, horrenbestez, integrazio-eginkizuna betetzen du. Gazte migratzaileek ez dute nortasun-ezaugarri homogeneous; haien kulturak, erlijioak, ohiturak eta helburuak bertako herritarrenak bezain heterogeneoak dira. Hala ere, hezkuntza-sistemak herritar migratzaileen beharrak homogeneousizatera jotzen du denbora-irizpide batzuetara mugatuz. Alde batera utzi ohi da hezkuntzaren erronka garrantzitsuenetako bat aukera-berdintasunerako premisei erantzungo dien kalitateko sistema bat lortzea dela, aniztasunaren errespetuan eta herritartasun-balioen arloko prestakuntzan oinarrituta. Apustu hori den-denon lana da, baina nagusiki administrazio publikoena, gizartea aldatzeko bidea egitea baita xedea, erabateko herritartasunerantz aldatu ere. Horretarako, funtsezkoa da balioetan hezte, errespetu-jarrera bultzatzea, bizikidetzaren ildoak ezartzea, gatazka-egoerak bakez konpontzeko modua hitz egitea dela azpimarratzea ... Hitz batean, funtsezkoa da hezkuntza formala eta ez-formala kulturarteko ikuspuntuan oinarrituta egotea. Kulturarteko hezkuntzari eta, horrenbestez, bizikidetzaren hobekuntzari ekarpena egiteko apustua eta erronka horretan, estatu- eta toki-mailerako administrazio publikoek sentsibilizatzeko-esparruan lan egin behar dute. Herritarrak eta berdinen taldea sentsibilizatzea bermea da aurrera egiteko gizarte integratzaile eta kulturarteko bat eraikitze ahaleginean.

2 Lan-merkatua

Gazte etorkinek, bertako herritarrek bezala, zailtasun handia dute lan-merkatuan sartzeko, baina, gainera, diskriminazio bikoitza jasaten dute, jatorri desberdina dutelako. Eta hala, orokorrean, bertakoek ez dituzte hartzen edo alde batera uzten dituzte nahi ez dituzten lanpostuak, baina etorkinek bete egiten dituzte behar horiek, aldezturik daukaten prestakuntza eta lan-ibilbidea kontuan hartzen ez zaiela. Gainera, haien lan-baldintzak kaskarragoak izaten dira, eta batzuetan abusuzko jardunbideak ere jasaten dituzte. Bestalde, egungo krisi-egoera eragin handia izaten ari da etorkinen artean; bereziki, gazteen artean.

Horrenbestez, eskuarki etorkinek diharduten sektoreetan (eraikuntza, ostalaritza eta zerbitzu-sektoreko beste arlo batzuk) enplegu-eskaintzarik ez izateari gehitu egin behar zaio handitu dela sektore horietan lanetik kaleratutako atzeritar langileen kopurua. Gainera, normalean beranduago

sartu dira lan-merkatuan, eta behin-behinekotasun handiagoa dute enpleguetan, horiek kualifikazio txikikoak izateaz gain. Horren guztiaren ondorioz, egungo krisi-egoeran beharrezkoa da administrazio publikoek (bereziki tokian tokikoek) ahalegina egitea lan-merkatuaren beharrei buruzko ikuspegi utilitarista gainditu eta aukera-berdintasuna bermatzen duen ikuspegi globala izateko herritartasunari buruz.

3 Aisialdia, denbora librea

Aisialdia, denbora librea funtsezko elementua da gazte etorkinak integratzeko prozesuetan. Gazte etorkinek ere, bertakoek bezala, beharrezkoa dute denbora libre astitsua izatea. Hala ere, haien gizarte-, lan-, familia- nahiz kultura-baldintzapenen ondorioz, zaila dute bertako gazteekin guneak partekatzea, azken horiek aisialdia kontsumo-kulturaren oinarritzen baitute. Hala, kultura desberdinaren eta gizarte-bazterketaren ondorioz, sozializazio-gune propioak eta bereiziak sortzen dituzte, beren berdinegandik desberdintzen dituztenak. Gainera, etnia eta kulturaren ikuspuntutik desberdinak diren gune horiek, harrerako gizaritari aurre egitea ekarri gabe ere, gehienetan nolabaiteko susmoak pizten dituzte bertan jaiotako herritarren artean, eta horiek etorkinen jardunbideak "susmagarritzat" jotzera eraman ditzakete. Horrenbestez, gazte etorkin horiei lotutako aurreiritzi eta estereotipo berriak zabal daitezke. Alde horretatik, guztizko herritartasuna garatzeko eta, beraz, gazte etorkinak harrerako gizaritean integratzeko eta ez diskriminatzeke, parte-hartzea funtsezko elementua da. Parte-hartze hori maila eta esparru guzti-guztietan gertatu behar da; bestela integrazioa eta berdintasuna ez dira erabatekoak izango. Modu bakarra dago gizarte bateko kide zarela sentitzeko: hartan parte-hartze aktiboa izanez eta gizartea besteekin batera itxuratuz eta eraikiz.

Hitz batean, gure auzoetako eta hirietako kultura-aniztasun gero eta handiagoa proban jartzen ari da zer gaitasun duten tokiko erakundeek eta komunitateek bizilagun berriak eta, bereziki, gazte etorkinak integratzeko. Erronka horiei sensibilizatzeko-esparruetatik heldu behar zaie, aldaketak eragiteko gazte etorkinek betetzen duten eginkizunari buruzko iruditeria kolektiboetan. Baina kulturen arteko bizikidetzak, halaber, inplizituki dakar berekin komunitateko kide diren pertsonen eta kolektiboen bizi-baldintzak hobetzeko eta gizarteratzea sustatzeko beharra. Hortaz, funtsezkoa da tokiko erakunde publikoek gizarte-errealitate berria jasotzea beren programetan eta jardunetan eta, horren bidez, herritar guztien beharrei erantzutea.

Esku-hartzeari buruzko zenbait gogoeta

Migrazio-prozesuei eta gizarte-aniztasunari buruzko toki-politika publiko gehienek kultura anitzeko gizartea dagoela erakustea eta aitortzea dute xede. Aniztasun hori aitortzeak berezko balioa dauka, ezin baita kudeatu aitortzen ez den zerbait, baina komenigarria eta beharrezkoa da bide horretan aurrera egitea, tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren aldeko mekanismoak eta prozesuak sortzeko. Alde horretatik, toki-politiken xedeak, azken batean, tokian tokiko biztanleak ahalduntzea izan behar du, berme guztiekin eta osorik balia dezaten beren herritartasuna. Eta hori premia-koagoa da funtsezkoagoa da bizilagun berrien kasuan.

Bestalde, gizaritean uste oker bat dago zabaldua gazteei buruz; ez omen dira gauza eskubideak erabiltzeko, ardurak hartzeko eta tokiko garapenean esku-hartzaile aktiboak izateko. Baina pertzepzio hori larriagoa da nazionalen maila berean hartzen ez diren pertsonen kasuan. Horregatik, herri batean tratu-berdintasunaz eta diskriminaziorik ezaz sensibilizatzeko proposatutako jarduna, metodologia, jarduera edo programa edozein izanda ere, horretan elkarren osagarri diren bi elementu kontuan hartu beharko liriateke: alde batetik, gazte etorkina erabateko bermeak dituen herritar gisa onartzea, gizariteko kide baita, eta izaten jarraituko baitu; bestetik, pertsona hori subjektu aktibo gisa hartzea, bai gizartea eraikitzeke, bai tokiko politikez den bezainbatean. Eta, hala, gazte immigranteek tokiko garapenean eta tokiko politiken eta neurrien formulazioan parte hartzea lagungarria izango da integrazioa lortzeko. Gainera, aipatu bi elementu horiek ez ezik, beste batzuk ere nabarmendu behar dira:

- Gazte immigranteak bertakoak bezain heterogeneoak dira. Esku-hartze batean askotarikotasun hori aintzat ez hartzea hura ukatzea da; eta, beraz, ahaztea desberdinak direla beharrak, ikuspuntuak, lehentasunak, gizarite-ildoak eta -rolak, sensibilitateak eta abar.
- Toki-administrazioek kulturarteko ikuspuntua, belaunaldiartekoa eta genero-arlokoa osorik jasoko dituzten politika publikoak integratu eta garatu behar dituzte.

- Toki-politika horiek ez ditu administrazioak soilik abiarazi behar; aitzitik, erakunde zibilek, kolektibo sozialek eta ahalik eta eragile-sorta zabalenak ere esku hartu behar dute.
- Gazte etorkina herrian bere herritartasuna baliatzen duen eta eskubideak nahiz betebeharrak dituen subjektu gisa onartu behar da.
- Mekanismoak bideratu eta ezarri behar dira gazte immigranteek, beren integrazioaren eta kulturarteko gizartearen eraikuntzaren barruan, beren gain har dezaten eginkizun protagonista eta estrategikoa, herriaren garapenean parte hartuz.
- Gazte-erakundeak antolatzeko eta sendotzeko prozesuak sustatu behar dira, herritarrek parte hartzeko guneak izan daitezzen.
- Komunitatea garatzea eta kolektiboa ahalduntzea oinarri duten ekimenak gauzatu behar dira. Dударik gabe, horrelako ekimenek ez dute ondorio zuzenik, eta berekin dakartena epe ertainean eta luzean da garrantzitsua, baina gazte etorkinak gaitzen dituen ikasketa-mota bat da.
- Estrategia bereziak prestatu behar dira baztertutako taldeentzat, ikuspuntu barne-biltzaile batetik eta belaunaldiarteko jardunbideen bidez.
- Ebaluatzeko mekanismo, adierazle eta helburu argiak izan behar dira, politikak doitzeko, diskriminaziorik ezaren esparruko aurrerapenak ebaluatzeko eta informazioa hobeto transmititzeko.

5.4 Bizikidetzeta eta gune publikoa

Rosa Bada

Hiria, egun, elkartzeko guztien gunea da; eta, horrenbestez, aukera guztiena. Era berean, kontraesan guztien eremua da, eta arrisku guztiena: hiri-espazioan, muga zehaztugabeak baititu, diskriminazio guztiak agertzen dira (...) aldi berean, elkartasunezko jardunbide zibikoak eta sozialak zirriborrotzen eta ugaritzen dira. Hirian Giza Eskubideak Zaintzeko Europar Gutuneko Aitzinsolasa

(Saint-Denis, 2000)

Hiria, lehenik eta behin, gune publiko bat da, herritartasun-gune bat, eta tokiko gobernuek, Giza Eskubideetarako eragile aktibo izaki, hain erabileraren berdintasuna bermatu behar dute. Gune publikoa hiriaren nortasuna da. Hartako kale-plazetan batetik bestera ibiltzen gara, bizi egiten gara, lan egiten dugu, ikusgai jartzen dugu geure burua, anonimotasunean desagertzen gara... batzuetan bultza egiten digute, bultza egiten dugu bestetuetan... Bertan elkarren artean nahasten eta gurutzatzen diren ezin konta ahala jardunbide egiten ditugu, eta kalea, urratsez urrats, topagune eta gatazken gune bihurtzen da: onena eta txarrena aldi berean!

Gure lurraldeetan, haien neurria edo kokapen geografikoa gorabehera, galdera berak sortzen dira: norena da kalea? Nork erabakitzen du? Nork kontrolatzen? Eta zaintzen? Nola bateratu biztanle guztien beharrak, iritsi berrienak, iragaitzaz daudenenak, dendariak? Nola erraztu gune publikoaren erabilera?... Hitz batean: nola partekatu kalea?

Kaleak batera bizitzeko guneak dira, nortasun-guneak, komunitate-guneak, elkartzeko eta trakerako guneak, gatazken eta itunen guneak, eta haietako egoerak egokia izan beharko luke elkarrekin, seguru bizitzeko, den-denek erabilia izateko, edozein bereizketa-adierazpen saihestuz, bizikidetzeta bermatuz.

Gutako bakoitzak geure burua hiri-gunean ezagutzeko modua izan behar dugu, hurbiltasunezko gune moduan bizi behar dugu, bestearekiko erlazioan bizitzeaz bat. Kalea gurea da... Denona!!

“Gizaki guztiak jaiotzatik dira askeak eta berdinak duintasunari eta eskubideei dagokienez...”. Gizabanako eta erakunde guztien ardura da funtsezko eskubideen eta askatasunen errespetu unibertsala eta benetakoa zaintzea, eta gune publikoak gune publiko izateari uzten dio ez bada eskubideen gune.

Giza eskubideek eduki politikoa hartzen dutenean baino ez daukate zentzurik: ez dira gizakien eskubideak haiek izadian daudela, gizartean daudela baizik, kideekiko erlazioan, eta eskubide horiek beharrezkoa dute haien jabe direnen parte-hartzea.

Giza eskubideen ikuspuntutik, erabakigarria da gutako bakoitzak haiek banan-banan baliatzea, bai eta gainerako guztiek ere eskubideak dituztela onartzea ere. Esperientziak erakusten du ez

genukeela herritartasun pasiboaren moduko "luxurik" izan behar, eta eskubiderik gabeko pertsona herritar pasiboa da...; herritartasuna ez da bakarrik agintariek ematen duten zerbait, norberak konkistatu beharreko zerbait baizik.

Herritartasun aktiboa parte hartzeko bideak baliatuz gauzatzen da, eta bide horien artean erakunde publikoen eta elkarte-sarearen arteko lan itundua nabarmentzen da. Sarean, lankidetzan eta tokiko gobernuek bultzatuta egindako lanaren adibide ugari daude; adibidez, Gijóngoa (arrazakeriaren aurkako urteroko jardunaldiak) eta Castellókoa (erlijioen arteko elkarriketa-esparruan gidatzen duen ekimena).

Gure lurraldeetako bazter guztietan errealitate bihurtu behar ditugu herritar guzti-guztien duintasun- eta berdintasun-printzipioak, inolako bereizketarik egin gabe arrazagatik, jatorri etnikoagatik, generoagatik, adinagatik, sinesmenengatik, sexu-orientazioagatik edo egoera fisikoarengatik nahiz psikikoarengatik.

Hiria gune kolektiboa da, hartan bizi diren guztiena dena: gune publikoko diskriminaziorik eza eskubide aitortu horretan oinarritzen da. Baina, nola bermatu hobeto?, nola jokatu hobeto?, nola gobernatu lurralde barne-biltzaileak sortzeko?

2009ko abenduan, Europar Batasuneko Funtsezko Eskubideetarako Agentziak (FRA) etnia- edo arraza-gutxiengoetakoak eta immigranteak ziren Europar Batasuneko 23.5000 herritarri egindako inkesta baten emaitzak aurkeztu zituen. Emaitzak direla eta, beharrezkoa da gogoeta sakona egitea berdintasunaren aldeko gure politikak bideratzeko: inkestatutako pertsonen %12k zioen diskriminaziozko delitu baten biktima izan zela azken hamabi hilabeteetan, eta %37k diskriminazio-egoeraren bat jasan zuela. Baina kopuru horiek, oso larriak izan arren, beharbada ez dira kezagarrienak: inkestatuen %46k ez zekien badaudela hainbat lege, leku publikoetan (dendak, jatetxeak eta abar) arrazagatik edo etniagatik edozein diskriminazio debekatzen dutenak, eta diskriminazioa jasan zutela esan zuten pertsonen %82k egin gabe zuten gertatutakoaren salaketa (haisetako %64k salaketak ezer ere zuela aldatuko pentsatzen zuelako). Erantzunen %80an, inkestatuek adierazi zuten ez zutela inolako berririk diskriminazioaren biktimei laguntza edo aholkularitza ematen dieten erakundeei edo zerbitzuei buruz.

Kolektiboen arabera, ijitoek jasaten zituzten diskriminaziorik larrienak, eta haien atzetik Ipar Afrikakoak eta Saharaz hegoaldekoak zeuden: guztiak ere gure hirietako biztanleak.

Errealitate hori dela eta, ezin dugu ezikusiarrena egin, eta toki-gobernuek dagoeneko urte batzuk daramatzagu geure gain hartzen eskubideen sustapenean eta bermatze-lanean dagokigun erantzukizuna.

Zaila izaten da benetan gauzatzea nazioarteko hainbat tresnaren bidez onartutako eskubideak, eta hori ez ezik, pertsonen eguneroko bizitzatik dugun hurbiltasuna ere kontuan hartuta, funtsezkoa da gure eginkizuna.

Udalok ezin gara axolarik gabe egon giza eskubideetarako politika publikoei dagokienez, eta, era berean, ezin gara egon Estatuaren nahiz autonomia- eta eskualde-gobernuen mende, eskubide horien urraketetako asko, diskriminazioa barne, gure lurraldeetan gertatzen direlako, eta beharrezkoa delako guk esku-hartze aktiboa eta ausarta izatea.

Arazagatik diskriminazioa ez da gauza abstraktua, pertsona askori eguneroko bizitzan eragiten dien gizarte-arazo bat baizik. Gure herrikideetako askori urratu egiten zaizkie dauzkaten eskubideak, herrikideok diskriminatu egiten dira eta daukaten duintasunari eraso egiten zaio jatorriagatik, larruazalaren koloreagatik, etniagatik, kulturagatik edo erlijioagatik. Eta egoera horiek eguneroko bizitzan maiz egoten diren guneetan errepikatzen dira: lanean, bizilagunen komunitatean, eskolan, aisialdirako guneetan, kalean... Diskriminazio-adierazpen horiek bizikidetzaren aurkakoak dira, eta arriskuan jartzen dute gure lurraldeen etorkizun kolektiboa.

Eztabaidaezina da gure hiriek azken urteetan aurrera egin dutela arrazakeriaren eta diskriminazioaren aurkako borrokan (politikak, programak, planak, jarduerak, nazioarteko sareak – Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurkako Hirien Koalizioa, adibidez– eta abar), baina, aurreratutako guztia gorabehera, diskriminazioa –hau da, berdintasunari lotutako funtsezko balioaren ukapena– nahi baino maizago gertatzen da oraindik ere.

Gure lurraldeek leku egokiak izan behar dute, haietan bizi den pertsona bakoitzak bere burua osorik eta modu integratuan osa eta gara dezan, kontuan hartzen dutela, barruan dagoela senti dezan, bai eta kolektibo bateko kide dela ere, bere muin-muineko nortasunari uko egin gabe. Baina, herritar guztiek aukera bera dute zer pentsatzen duten gune publikoan adierazteko? Gure kaleak neurri berean dira seguruak guzti-guztientzat? Lasaitasun berarekin adieraz ditzakegu gure lehentasunak, gure afektibitatea? Guztiek irisgarritasuna eta mugikortasuna neurri berean dauzkate bermatuta?

Beharrezkoa dugu aurrera jarraitzea kalitateko gune publiko baten eraikuntzan; gune horrek – konturatzen gara– diseinu urbanistikotik, zerbitzuetatik haragokoa izan behar du, eta aniztasuna gizarte-faktore positibo moduan errespetatzen eta onartzen duen herritartasun-giro jakin batean du oinarria (“hiriko aireak askeago egingo zaituzte”). Zehazki, etniagatiko arrazakeriaren eta diskriminazioaren aurka borrokatzeko estrategia izan behar dugu, administrazioko maila guztiak inplikaraziko dituen eta herritarren errealitateari erantzungo diona: giza eskubideak gure tresnarik onena izan daitezke.

Estrategia horretan, guztiz funtsezkoa da sentsibilizatzeko-lanaren eta herritartasun-alorrean, eskubideetan heztearen eginkizuna. Ikasi dugu diskriminazioaz hitz egitean gutako bakoitzak bere interpretazioa egiten duela, izan dituen bizipenetan oinarrituta egin ere: zuzen-zuzenean esperimenta dezakegu gure eskubideen urraketa, edo norbait desberdintzat jotzen dugunean (hori definitzen dugu “diskriminazio” moduan) gertatzen den tratu-desberdintasuna; izan ere, den-denok diskrimina dezakegu, bai eta diskriminazioa jasan ere.

Horregatik, bizikidetzarako hezkuntzak (eskubideen, herritartasunaren esparruko hezkuntza) nahitaezkoa du herritar guztiei (administrazioko kideei barne) eragingo dieten jarduerak egitea, nahiz eta, jakina, onuradunen ezaugarrien arabera prestatu beharko diren. Bizikidetzarako hezkuntza ezin da izan kolektibo eta belaunaldi jakin batzuetarako baino ez den helburu bat. Askotarikotasun- eta desberdintasun-testuinguruetan gizarte barne-biltzaile baterantz aurrera egiteko, ez da nahikoa beren eskubideen alde borrokatuko diren herritarrek soilik prestatzea; beharrezkoa da, halaber, herritar horiek onartzea bestelakotasuna –eta ez desberdintasuna– aurrerapen-faktorea dela, eta haiek, era berean, prest egotea gainerakoen eskubideen alde borrokatzeko, diskriminazioa kostatzen ahala kostatzen saihestearren.

Dagoeneko toki-gobernu askok hartu dute beren gain esparru honetan daukaten erantzukizuna – batzuetan ohiko eskumenetatik harago–, eta jarduerak abiarazi dituzte. Adibidez, Ávilako Udalak “Elkarrekin hazten gara, tolerante hazten gara” izeneko programa dauka; Valentiakoak zenbait jarduerara prestatzen ditu eskola-esparrutik berdintasunaren alde egiteko; Málaga, gizartean eta lan-munduan txertatzeko programak dauzkate; Tarragonan, bizilagun-komunitateen hurbiltasunaren alde egiten dute, inguru egiazki barne-biltzaileen sorreran aurrera egiteko.

Arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka eta, oro har, diskriminaziorik ezaren alde sentsibilizatzeko eta/edo hezteko politikek bitartekoak eskaini beharko lituzkete eskubideen ezagutzari eta eskaerari lotuta, bai eta gaitasuna ere norberaren betebeharrak onartzeko eta, horrenbestez, komunitatean parte-hartze aktiboa izateko, bestea (askotan bestelakoa) ezagutzuz solaskide baliagarri gisa, bizikidetzarako irtenbide zuzenak bilatzeko orduan.

Hirietan beharrezkoak dira salaketa- eta elkartasun-ekintzak, hala nola berme-zerbitzuak (tokiko defendatzaileak, hurbiltasuneko justizia, prebentzio-programak, gatazkak bestela konpontzeko mekanismoak eta abar), baina, batez ere, funtsezkoa da herritarrek sustatzen dituzten gobernuak eta politikak gauza izatea ausardiaz egiteko justiziaren, zuzentasunaren eta diskriminaziorik ezaren alde aniztasunean oinarritutako bizikidetzaren testuinguruan. Tratu- eta aukera-berdintasuna balio etikoa da gure eremuetan, eta diskriminaziorik ezaren promesa (Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean jasoa) ukatu, bertan behera utzi egin daiteke, edo besterik gabe ez betetzen jarraitu, baina ez da hiltzen... XXI. mendeko gobernuok, bai eta toki-gobernuok ere, ezin dugu geure burua zuritu herritarren aurrean zerbitzuen hornitzaile soil moduan; izan ere, ezinbestekoa da funtsezko eskubideak bermatzeko gaitasuna dugula erakustea.

5.5 Zerbitzu publikoetara sarbide hobea izateko sentsibilizatzea

José M. Batlles

Hurrengo lerroetan planteatzen diren gogoetetan ez dago inolako sistematizazio-asmorik, zientzia egiteko ahaleginik; onenean ere, gure xedea da nolabait argi egitea gure eguneroko kontuetan, batzuetan, denbora faltagatik edo beste arrazoi batzuegatik, ezin baititugu aztertu.

Terapeutek diote arazo bat konpontzeko lehen urratsa arazoa dugula onartzea dela. Kezkatzen gaituzten gaiak dagokienez –gai sozialei dagokienez, alegia–, beste edozein esparrutan bezala, jarrera kritikoa izan behar dugu beti; jarrera autokritikoa bereziki. Erakunde publikoak jendearen zerbitzura diharduten neurrian dira publiko. Enplegatu publikoek –eta hor, administrazioko langileak ez ezik, hautetsiak ere sartzen ditut bereziki– ahalegina egin behar dute, ez bakarrik gizartean arazorik ez gertatzeko, bai eta gizarteari ahalik eta ongien laguntzeko ere.

Badirudi argi dagoela, are gehiago arazoak daudenean, beharrezkoa dela arazoak konpontzeko bitartekoak antolatzeko gaitasuna izatea. Gaitasun hori bi faktorek erabakitzen dute nagusiki: inplikazio-mailak eta erabakiak hartzeko maniobra-tarte politikoak, alde batetik; egoera arazotsuak konpontzeko neurriak hartzeko ardura duten teknikarien legitimazioak, bestetik. Hori guztia beharrezko bitartekoen eta baliabideen esleipenak berretsita.

Bigarren urratsa tratamendua izango da. Horretarako, gabeziei edo arazoei aurrea hartzeko presta daitezkeen neurriak gorabehera, konponbideari oinarritik heldu behar diogu.

Oinarri hori, gestio publikoak ez ezik (zeina, jakina, zuzenagoa edo okerragoa izan baitaiteke), herritargoak ere taxutzen du. Jakina, batak besteari eragiten dio, eta alderantziz; elkarren mendeko dira. Nolanahi ere, eta aipatu bi horiei eragiten diela, kultura politikoaren maila oso elementu baldintzatzailea da bere zentzu etimologikoan (polis); hau da, hiri-kultura, herritar- eta herritartasun-kultura, partaidetza- eta inplikazio-kultura, herritarrek sortzen eta hautetsiek ordezkatzeko duten gizartea hobetzeko gaitasuna elkarri aitortzea dakarren kultura. Ez da segizio-zaletasunean oinarritutako politika, elkarrekiko errespetua eta legitimazioa aitortzea baizik, elkarrekiko *feed-back* edo berrelikadura, herritarrei dauzkaten beharren konponketa bermatzen diena, eta politikariari herritarren konfiantza.

Bestalde, egia da, halaber, tratamendu batzuk oso zailak, garestiak eta zalantzarriak direla emaitzei dagokienez. Problematika sozial batzuk oso “errotuta” daude, laguntza berezia eta oso arretatsua behar dute, eta haietan arrakasta izateko aukera, neurri handi batean, ukitutako pertsonaren edo pertsonen araberakoa izango da.

Beharrezkoa da bai hautetsiek, bai teknikariek, bai herritarrek onartzea atzerritar jatorriko biztanleak diskriminatuta daudela zerbitzu publikoetarako sarbideaz den bezainbatean, onarpen hori tratamenduaren atariko benetan izango bada. Hala gertatuz gero baino ez da sendoa izango jarduteko oinarria. Elementu horietakoren batek edo batzuek ez badiote erreparatzen arazoari arazo den neurrian, zailagoa izango da konpontzea.

Jarduteko arazoak

Immigranteek zerbitzu publikoetarako sarbidean jasaten duten diskriminazioa, beraz, gorago aipatutako elementuetako baten edo batzuen ondorio izan daiteke, eta, jakina, egiteagatik nahiz ez egiteagatik gerta daiteke.

Nahita edo nahi gabe kontrako iritziak eta/edo gertaerak bultzatzen dituzten pertsonak, edo, bestela, arazoak konpontzeko beharrezkoak diren egintzak gauzatzen ez dituztenek (hainbat arazorengatik, baina, batez ere, prestakuntzari lotutako zioengatik), herritarrak edo besteen “zerbitzura” diharduten langile publikoak izanagatik ere, egoera horiek sortzen, iraunarazten, are okertzen ere laguntzen dute.

Jardutea, beraz, beharrezkoa da, eta elementu horietako edozeinek jardun dezake, baina, aukeratzen hasiz gero, arazoa aitortzean eta hura konpontzeko neurriak erabaki, gauzatu eta

ebaluatzean guztiak bat etortzea da egokiena politikoki, teknikoki eta sozialki. Nolanahi ere, administrazioak herritarrak hartu beharko ditu erreferentzia moduan, bai haiengandik sortzen denari bai helarazi nahi zaienari dagokienez. Haien inplikazioak iraunkorra, etengabea izan beharko du, bereziki konpontzen zailenak diren eta ondorio larrienak dituzten kasuetan.

Aztertutako esperientziei dagokienez, egia da ez dagoela zerbitzu publikoetarako sarbidea sustatzeko berariazko planteamendurik. Horrek oso argi adierazten du zer egoeratan dauden herritarrak, tokiko administrazioak eta tokiz gaindikoak. Zerbitzu publikoen hornidura ez da beti toki-administrazioari dagokion eginkizuna, eta argi dagoela ematen du hori, askotan, oztopoa (edo aitzakia) izan daitekeela.

Batzuetan, herritarrei irudi dakieke ez dutela jarduten edo, bestela, immigranteen alde baino ez direla aritzen.

Hortaz, oraindik ere ez dago informaziorik, prestakuntzarik eta, jakina, interpretazio okerrak agertzen dira, bai eta, horrenbestez, immigranteen eskubideak aitortzeko gogorik ez izatea ere, bertako herritarrekin partekatu beharreko baliabideak eskuratzeko aukerari dagokienez. Begi-bistakoa da herritarren kopuru osoa handitu dela, baina horrekin batera ez dira beti neurri berean handitu zuzkidura publikoak.

Etorkinek boto-eskubidea erabiltzeko aukera da azpimarratu beharreko beste kontu bat. Prozesu luzea, zaila eta muga handiak dituena da oraindik ere. Aztertutako ekimenetatik, bi azpimarra daitezke. Bata Cambrilskoa da, eta gazte laguntzaileen inguruan egin duten proiektua. Bestea, berriz, Terrassakoa, lan handia egin baitute herritarrak irekiagoak izan daitezen immigranteek zerbitzu publikoetara sarbidea izateaz eta hautetsiek esparru honetan modu zeharrean lan egiten "ikasteaz" den bezainbatean. Hala ere, Cambrilsek planteatzen duen metodologiaren arabera, laguntzen duten gazte ikasleak bitartekari dira (ikusuntu komunitarioa) iritsi berrien eta hiriko bitartekoen artean, horiek publikoak izan zein pribatuak (hiriko erakunde laguntzaileak, ezagunak izan daitezten).

Prestakuntza- eta gidatze-prozesu hori (ikasleentzako ikastaro espezifikoak) lagungarria da hizkuntza hobeto ikasteko, bai eta jakiteko ere hirian zer zerbitzu eta zentro dauden, batzuetan ia modu "behartuan" gainera, eta ikasle-bikoteari aukera ematen zaio (ez badute besterik erabakitzen) bitarteko batzuk hautatzeko planteatutako beste zenbaiten artean. Esperientzia horretatik lan-ildo posible eta beharrezko bat estrapola liteke erakunde pribatuak eta, bereziki, publikoak gogoan izanda.

Erakundeen eta haietan lan egiten dugunon asmoa da gizarteak ontzat jotzea zenbait kulturaren artean bizitzea eta lan egitea, baina administrazioaren beraren ereduak ez dago inola ere orokortuta bere kultura anitzeko osaerari dagokienez. Taldeek hainbat nazio- eta/edo prestakuntza-jatorritako eta, jakina, hainbat erakundetako kidez osatuta egon behar dute, herritarrek ondo hauteman dezaten eredu horren balio erantsia.

Sentsibilizatzeko-lanaren garrantzia

Administrazio Publikoak sentsibilizatzeko edozein neurri-mota hartzea pentsatzen duen unetik (egoki dituen helburuekin batera), behingoz eta konplexurik gabe onartu behar du neurri hori, egin beharreko lanaren ezaugarri politikoa eta teknikoa gorabehera, askoz parametro gizatiaragoekin edo "gizatiartuagoekin" prestatu eta abiarazi behar dela. Helburu jakin batzuk bai herritarrekiko bai haien arteko interakzioetik abiatuta lortu nahi baditugu, helburuok denok abiapuntuko, garapeneko eta amaierako baldintza beretan gauden neurrian izango dituzte lortu nahi diren ondorioak.

Espainiako Hizkuntzaren Errege Akademiaren arabera, sentsibilizatzeko besteak sentibera bihurtzea da. Sentiberatasuna ematea edo sentimendu moralak piztea...

Herritar guztiei dagokienez (ez bakarrik gizabanakoari), sentsibilizazioaz hitz egitea talde bat beste batekiko sentibera bihurtzeaz aritzea da (administrazioetik bada, gizarte-talde bat baino egoera hobean dagoen beste bat sentiberatzea normalean). Batzuk beste batzuekiko betetzen duten eginkizunaren jakitun eginaraztea (are erantzukizunari dagokienez ere). Horrek nahikotasun bat dakar berekin, helburu bat. Jakina, bai eta arazo bat ere. Are haren barnekotasuna onartzea ere, baina bai eta haren kanpokotasuna ere: daukana begira duenaren aurrean.

“Sentsibilitateaz” hitz egiten ari gara. “Besteei” eragiten dieten gauzekiko sentiberatasunaz. Gizabanakoa kolektiboaren, gizartearen, herritarren aurrean beste bihurtzea da. Bai eta alderantziz ere: gizabanako bakoitzaren besteekiko irekitasunak sentsibilizazio-erloto jardueren jomuga bihurtzen dute. Denok gara pertsona. Horregatik “sentiberak” eta, beraz, sentsibilizagarriak.

Horrenbestez, bestetzuen araberrako batzuen “erlazio” horrek elkarrekiko mendekotasun biuniboko eta iraukorrak batera garamatza, batzuen eginkizunean beste batzuei eragin diezaieten egin ditzakegun aldaketek guztiengan aldatzeko eta etengabe doitzeko behar berriak sorrarazten dituztelako.

Bakoitzaren eginkizunari dagokionez, bai arazo jakin batek eragindako herritarren ikuspuntutik, bai arazo horrekin zerikusirik ez duen herritarren, gizarte-erloto edo zerikusia duten beste arlo batzuetako profesionalaren nahiz, bereziki, hautetsien ikuspuntutik, bidezkoa ematen du pentsatzea ezinbestean egongo dela hurrengo hiru faseetako batean, “sentsibilizazioaz” hitz egiten jarraitu nahi badugu:

- Arazo, behar edo gabezia bat dagoela jakitea.
- Haren garrantziaren jakinaren gainean egotea: hura modu aktiboagoan ezagutzeko interesa izatea.
- Guztion inplikazioa eta parte-hartzea posiblea eta beharrezkoa dela jakitea: gizabanako edo talde baten arazoak gizarte-eragina daukanean, konponbidea gizabanakoaren esku egon beharrean, gizartearen eta gizarte-ordezkarien esku egongo da.

Sentsibilizazioari “errespetu” esanahia ere eman diezaiokegu, gure xedea herritarra bera aldatzea baita, gauzak alda ditzan, nola berari lotutakoak, hala besteekin zerikusia dutenak. Konfiantza dugu harengan. Konfiantza dugu gudan. Herritarrak ahalduntze-bide bat egiten du (prestakuntza, autoprestakuntza...) eta, horren ondorioz, bere gizartean rol aktiboa (berrelkadura) eta boluntarioa betetzeko gauza da, gai dela “sentitzen” du. Baina legitimitatea behar du, aintzat har dezaten.

Idea horretatik parte-hartze kontzeptura aldatzen gara zuzenean. Sentsibilizazio-neurriak abiarazteko ekimenak, logika hutsez, parte-hartze bilakatzen dira; “berezko bizia” hartzen dute. Lehen asmoa taldeen eta pertsonen arteko harremana eta interakzioa sustatzea da. Aldaketak sorrarazten ditu, eta betiere komeni da aldaketa horiek ezagutzea, ulertzea eta onartzea; gainera, jakina, guztiei eragiten diete, eta guztien mendekoak dira.

Toki-gobernuen inplikazioa

Nahiz eta, adibidez, Andaluziako Toki Autonomiari buruzko lege berriak (5/2010 Legeak) toki-autonomiaren bermea handitu (eta, horrenbestez, eskumen gehiago ekarri) eta, gainera, aurrekontua kudeatzeko ahalmen handiagoa onartu, toki-erakundeak (askotan) oraindik daude gutxienez araudi autonomikoen mende hainbat konturi dagokienez (gizarte-zerbitzuak, immigrazioa, berdintasuna eta abar). Horregatik, udalek oraindik ez dute mugimendu-tarte handiegirik gai honetan.

Hala ere, egia da herritarrengandik hurbilen dagoen administrazioa esku hartzeko aukera handiena duena dela dioen esaldi ezaguna. Horregatik, garrantzitsua da jakitea administrazio horrek, nahiz eta, behar bada, behar adina ahalmen edo eskumenik ez izan arazo hauek konpontzeko, behar adina ahalmen, behintzat, baduela bitartekari legitimoa izateko goragoko mailako beste administrazio batzuen aurrean, akordioen, hitzarmenen, diru-laguntzen edo baterako finantzaketan bidezko hornidura ekonomikoari dagokienez.

Erakundearen arteko lankidetzak-hitzarmen horiek honako hauetarako, behintzat, balio behar dute:

- Zerbitzu publikoen neurria berriz egokitzeko, eta zerbitzuoi behar adina bitarteko eta baliabide emateko eskari eta behar berrien arabera. Bai eta teknikarien eta hautetsien kualifikazioa pixkanaka hobetzeko ere, funtzionamendua hobea izan dadin.
- Egoera gatazkatsuak eboluzionarazteko beharrezko informazioa eta prestakuntza emateko herritarrei; izan ere, egoera horiek, askotan, baldintzatuta egoten dira ezjakintasunaren eta, beraz, bizikidetzak-egoera egokietan aurreiritziak agertzearen ondorioz. Baina, horretarako, beharrezkoa da herritarrak administrazioaren aurrean legitimitatea, baina ez jardueren hartzaile huts moduan, bai eta haien sustatzaile eta erantzunkide moduan ere. Krisi-garaiotan bereziki, egoera arazotsuak muturrera iristen baitira.

Hitz batean eta laburtzearen: sentsibilizazio-ekintzak prestatu behar ditugula erabakitzean, helburu jakin batzuk lortzeko bitartekotzat hartu behar dira, baina, era berean, balio finalista egokitu behar diogu sentsibilizazioari berari. Batez ere prozesu horrek, hartzaileak, denboralizazioa, helburuak, metodologia, bitarteko teknikoak eta ekonomikoak eta giza baliabideak gorabehera, berezko balioa duelako: pertsonen balioen defentsa plazaratzea, hala nola interesen partekamendua. Beharrezkoa da irekiak izatea, erakunde publikoen eta pribatuen jardunbide egokiak ezagutu, balioetsi, ebaluatu, transferitu eta abiarazteko. Herritarrek horrelakotzat jotako, administrazioak sustatu edo babestutako eta, beraz, partekatutako jarrerak eta balioak lortu behar ditugu, sozialki iraunkortzat har daitezten.

5.6 Zerbitzu publikoetarako sarbidea

Marta Solé

Toki-administrazioak tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren arloan sentsibilizazio-ekintzak gauzatzeaz gogoetatu baino lehen, garrantzitsua da bereiztea, alde batetik, zein diren gizarte-aldaketarako faktoreak eta, bestetik, adieraztea zein diren herritarren pertzepzioen osaeran eragina duten eragile nagusiak.

Azken urteetan, Espainian immigranteen kopurua handitzearekin batera, administrazio publikoek jarduera-sorta handia ehundu dute, esparru legegilean bezala betearazlean ere.

Izan ere, gaia ez da garrantzirik gabekoa: historian zehar migrazioak populazioa aldatzeko lehen mailako faktorea izan badira ere, azken hogeitaz urteotan eta, oso bereziki, 2000. urtetik aurrera gertatu den migrazio-fluxuen nazioartekotzeak funtsezko eragina izan du herrien eta hirien egungo gizarte-eta biztanle-osaeran.

Populazio berriek hiri-paisaiari egungo itxura ematen lagundu dute: denda berriak edo zeudenen ordezkioak ireki dira; sinesmenak eta erlijioetasuna adierazteko beste era batzuk zabaldu dira; gune publikoak okupatzeko bestelako ereduak hartu dira; harreman-modu berriak sortu; eta abar eta abar. Eta aldaketa horiekin batera beste batzuk ere gertatu dira: individualizazioaren hedapena, familia-egitura berriak, bizitegi-eredu berriak...; hitz batean, aldaketa horien guztien ondorioz, eguneroko erreferentziatzko gunearekiko arrotasun-sentimendua zabaldu da hainbat eta hainbat herritarren artean. Hedaturaz, aldaketa horiek administrazioetan ere izan dute eragina, tokian tokikoetan bereziki, herritarrengandik hurbil daudelako; horrenbestez, bitartekoak eta zerbitzuak herritarren eskari berrietara nola egokitu pentsatu behar izan da.

Era berean, izandako bizipenen edo ikasitakoaren emaitza diren pertzepzioekin batera, badaude komunikazioen bidez iristen zaizkigun beste batzuk ere, neurri handian erabakitzen baitute nola interpretatzen dugun pertsonok gure ingurune hurbila.

Toki-administrazioak aniztasunari ematen dion erantzuna

Testuinguru horretan, administrazioek, batez ere toki-administrazioak, aniztasunaren errespetuaren eta nortasuna izango duen toki-gizartearen eraikuntzaren arteko oreka aurkitu behar dute (Serra, A.; Belil, M., 2001), herritar bakoitza identifikatuta eta gainerako herritarrek onartuta senti dadin. Alderdi hori oso garrantzitsua da herrietan bizikidetzaren egokia eta gizarte-kohesioa ziurtatzeko.

Funtsezkoa da zerbitzuak gizarte- eta biztanle-errealitate berrira egokitzea, tratua baldintza beretan jasoko dutela bermatzeko herritar guztiei, eta emandako zerbitzuen kalitatea gutxitzea eta, hedaturaz, bitartekoak eskuratzeko lehia-egoerak sortzea galarazteko⁹. Zerbitzuen doitzeko hori bi maila hauetan egin behar da: kuantitatiboan (zerbitzuak eta denentzat ez diren laguntzak biztanle-

⁹ *Living Together: Ciudadanía Europea contra el Racismo y la Xenofobia*. Decálogo e informe final comparativo y comprensivo. Lan eta Immigrazio Ministerioa. Madril.

errealitate berrira egokituz) eta kuantitatiboan (publiko hartzailearen behar, eskari eta espezifikotasun berrietara egokituz).

Egun, toki-administrazioek etapa berri bati aurre egiten diote migrazioaren kudeaketan. Hasierako fasean abegi-, hartze-jarduerak egin ziren nagusiki, immigranteek udal-baliabideak eta -zerbitzuak modu normalean eskura zituzten bermatzeko; orain, aurreko fase hori oraindik osatu gabe egon arren, garrantzia galtzen ari da, bizikidetzaren, berdintasuna eta herritartasuna sustatzeko ekintzen mesedetan. Aldaketa hori immigranteak bertan finkatu izanari eta iristen direnen tipologia desberdina izateari dago lotuta (bildutako familien kopuruak gora egin du).

Aniztasunarekiko arretak hiriari buruzko ikuspuntu estrategikoa izan behar du oinarri, eta herritar guztientzako jarduerak gauzatu behar dira, berdintasunaren, errespetuaren, prebentzioaren eta gaikuntzaren ikuspuntutik.

Herritartasun-politikek jatorriagatiko, sexuagatiko, adinagatiko.. desberdintze-egoerak zuzendu nahi dituzte. Toki-esparruan berebiziko garrantzia hartzen dute, herritartasuna bizitegiarekin lotzen baitute; izan ere, herritartasun horrek herritar guztiak eskubide eta betebeharrak dituzten herriko edo hiriko biztanle gisa onartzen ditu herritar guztiak.

Gauzatu beharreko jarduerak ikuspuntu integrala izan behar dute, herriko esparru guztiak kontuan hartzen dituenak. Badago funtsezkoa den beste elementu bat, jardueren planifikazioa, bai denboraren ikuspuntutik (epe laburra eta luzea), bai jarduera-motaren ikuspuntutik (plan estrategikoak, zeharkako programak, hitzarmen politikoak...).

Azkenik, estrategia horiek kontuan hartu behar dute abiarazitako jardueren ebaluazioa, helburuak eta planteatutako jarduerak zer neurritan gauzatu diren jakiteko.

Tokiko sentsibilizazio-estrategiak

Funtsezkoa da desberdintasuna sortzen duten ardatzak identifikatzea, diskriminazio-egoeren oinarri-eginkizuna betetzen baitute, jarraitu beharreko jardute-estrategia orientatzeko aukera emateaz gain.

Kulturarteko sentsibilizazioak eragina izan behar du pertsonen pertzepzioetan, eta bi gauza lortu behar ditu. Alde batetik, estereotipoak gutxitzea eta berreraikitzea, immigrazio fenomenoari arazo moduan erreparatzen dion ikuspegia gaituz eta immigranteekiko jarrera positiboak sustatuz. Bestetik, jardunbide diskriminatzaileak daudelako eta gure gizartean jardunbide horiek gutxitu behar direlako kontzientzia harraraztea (Lan eta Immigrazio Ministerioa - Gurutze Gorria, 2007).

Sentsibilizazioaren esparruko jarduerak bi abiapuntu dituzte, hezkuntza-arlokoa bata, prebentzio/proaktiboa bestea, eta toki-administrazioaren harrera-, bizikidetzaren eta integrazio-politikekin batera gauzatzen dira. Era berean, haiek prestatzean beharrezkoa da kontuan hartzea funtsezko bi jarduera-esparru hauek: egintzen gaineko esku-hartze zuzena eta prebentzioaren gaineko esku-hartzea (Arrazakeria eta Xenofobiaren Espainiako Behatokia, 2009).

Sentsibilizazio-estrategiak toki-administrazioen plan, programa eta jarduerekin batera gauzatu behar dira, eta erakundean bertan izan behar dute eragina; gainera, jarduera espezifikoak prestatu behar dira interakzio- eta elkartzeguneetan (gune publikoak, plazak, bizilagunen elkarteak). Gaur egun, toki-mailan, tratu-berdintasunaz eta diskriminaziorik ezaz sentsibilizatzeko toki-planen diseinua eta inplementazioa oso hasieran dagoen jardunbidea da oraindik, baina estrategiak jarduera-plan orokorra goetatik ondorioztatzen dira, eta ez plan espezifikoetatik.

Funtsezko alderdiak eta eragileak

Sentsibilizazio-ekintzak prestatu baino lehen, funtsezko garrantzia du gaiarekin zerikusia duten eragileak zein diren eta zurrumurruren hedapenean nahiz haiek ez zabaltzeko ahaleginean eragina zeinek duten jakitea, bai eta xede-taldeak hazte ere (jakina da biztanle-talde jakin batzuek arbuio edo intolerantzia handiagoa jasaten dutela)¹⁰.

¹⁰ Evolución del Racismo y la Xenofobia en España (informe 2009) txostenean (Cea d'Ancona, Ma Ángeles; Valles, Miguel, S. - 2010), ijitoak European diskriminazio-indize handienak dauzkaten talde etnikoen artean agertzen dira (datuak Giza Eskubideetarako Europako Agentziaren txosten batetik atera dira). Era berean, herritar marokoarrak eta, hedaduraz, musulmanak (eta haien atzetik errumaniar jatorrikoak) espainiarren artean arbuio-indize handienak pizten

Abiarazi beharreko estrategiak askotarikoak izan daitezke. Udal-egituraren beraren barruan, jarduera batzuk toki-administrazioa teknikaiei eta hautetsiei begira gauzatu behar dira. Cea d'Anconak hau dio: "Dudarik gabe, neurri batean diskurtso politikoena eta komunikabideen bidez helarazten dizkiguten mezuen da immigrazioaz dagoen irudiaren erantzukizuna, bai eta, irudi hori negatiboa denean, immigrazioaren arbuioarena ere". Horrenbestez, beharrezkoa da herriko politikariak ados jartzea immigrazioaren erabilera politikoa saihesteko (ordezkatutako indarren arteko itun politikoak).

Udalan dihardutenak (teknikariak eta hautetsiak) prestatzea ere funtsezkoa da; batez ere herritarrei laguntzeko ardura dutenak. Garrantzitsua da erabiltzaileak hobeto ulertzea ekarriko duten komunikazio-estrategien inguruan lan egitea; garrantzitsua da, halaber, herritarrei ematen zaien laguntza egokitzea, hala nola komunikazio-trebetasunak erabiltzea, izan daitezkeen gatazkak kudeatzeko, eta eginkizun aktiboa betetzeko zurrumurruekin prebentzioan eta hedapenean. Udal-ordezkariek betetzen duten legitimazio-eginkizuna kontuan hartzeak berekin dakar erakunde osoak partekatzen dituen komunikazio-diskurtsoetan eta -estrategietan lan egiteko beharra.

Pedagogia- eta sentsibilizazio-egintzak beharrezkoak dira zalantza-uneetan; horrenbestez, indartu egin behar dira herritarrei begirako jarduerak, eta, horretarako, gizarte zibilak parte hartu behar du jarduerak prestatzeko eta abiarazteko zereginetan. Onartu behar da gizarte zibil antolatua (batez ere harremanetarako edo eragina izateko ahalmen handiena duten antolakundeak: dendari-elkarteak, bizilagunen elkarteak eta abar) informazioa zabaltzen eta haren oihartzuna handitzen betetzen duen eginkizuna.

Sentsibilizazio-estrategiak gauzatzeko, ezinbestekoa da prestakuntza-jardun espezifikoak sustatzea, gizarte sentsibilizatzeko jarduerak egitea (tailerrak, erakusketak, elkartze- eta interakzio-guneak) eta abar. Egia da udalbatzak funtsezkoak direla sentsibilizazio-estrategien prestaketan, baina fenomeno honek udal-mugak eta -baliabideak gainditzen ditu. Udalek ezin dute bakarrik lan egin, eta oso garrantzi handikoa da koordinazioa eta lankidetzaren izatea lurraldean elkarri eraginez diharduten administrazio-maila guztien artean (erakundeen artean), bai eta beste eragileen artean ere.

Esperientziak berrikustea

Laburpena egiteko esperientzien identifikazioaren hasieran, ustekabeen harrapatu gintuen sentsibilizazio-esperientzia espezifikorik ez egoteak zerbitzu publikoetarako sarbide-esparruan. Luze eztabaidatu ondoren, talde teknikoan ondorioztatu zen hori gai honetan toki-plan espezifikorik ez egotearen ondorio izan zitekeela, sentsibilizazio-estrategiak modu zeharrean lantzen direlako udal-planetan (berdintasuna, bizikidetzaren, gazteak...). Kontu horrek zaildu egiten du gauzatutako estrategiez ikuspuntu osoa izatea, lan-esparru espezifikoa eta desberdinetatik heltzen zaielako.

Era berean, gauzatutako estrategiak ataletan banakatzearen ondorioz, zeharo gutxitzen da esparru espezifikoa honen eragina, haiek bizikidetzaren eta gune publikoen esparruari lotuta daude eta.

Azterketan zehar agerian gelditzen da beharrezkoa dela ikuspegi integral batetik planifikatutako sentsibilizazio-estrategiak garatzea, aztertutako esperientziak plan espezifikoa batzuetatik ondorioztatzen direlako, eta ez dutelako hiri-ikuspegi osorik.

6 PROPOSAMENAK ETA GOMENDIOAK

ESCI III Proiektuari esker, hogeita zazpi toki-entitatek (hemezortzi probintziatakoak eta hamabi autonomia-erkidegotakoak) gauzatutako ia ekimen eta esperientzia guztiak bereizi ahal izan dira.

Hitz batean, ESCI III Proiektuaren barruko toki-entitate eta sentsibilizazio-esperientzia guztiekin ezinezkoa bada ere ondorioak ateratzea Espainiako herri eta hiri guztientzat, hori bezain egia da informazio garrantzitsua eta adierazgarria dagoela toki-entitateen multzo garrantzitsu bati buruz, eta multzo horretako entitate horiek, beren lurralde- eta biztanle-ezaugarriengatik, atzerritar jatorriko biztanleak izateagatik, integrazio-plan eta -programetan egindako bideagatik eta abarregatik, baliagarriak izan daitezke elementu batzuk eman eta horietatik abiatua gogoeta egiteko Espainian, toki-mailan, gauzatutako sentsibilizazio-jardueri buruz, hala nola sentsibilizazioaren esparruko tokiko dinamiketan agertzen diren joera komun batzuk bereizteko.

Atal honetan berriz heltzen zaie proiektuen ebaluazioan ateratako ondorio nagusiei eta, haiek abiapuntutzat hartuta, proposamen eta gomendio praktikoak egiten dira, erabakiak hartzean nondik jo jakiteko. Helburu nagusia da toki-mailako sentsibilizazio-jarduerak gauzatzearekin zerikusia duten alderdi batzuen garapenean hobetzea ikuspuntu eraikitzaile eta praktiko batetik.

Horretarako, bi premisa ditugu abiapuntu:

- a) Parte hartu duten toki-entitate gehien-gehienetan, sentsibilizazioa funtsezko jarduera-estrategia gisa agertzen da, aniztasunaren kudeaketaren esparruan egindako jarduera guztien artean integratuta.
- b) Giza kapitala da edozein ekimen gauzatzeko faktore nagusietako bat. Alde horretatik, ESCI III Proiektuak bereziki nabarmendu nahi du lankide izan dituen lantaldeen ekarpen handia, eta haien profesionaltasuna ez ezik, egungo testuinguru sozial eta ekonomiko zailean izan duten konpromiso eta inplikazio handia ere azpimarratu nahi du.

Bi faktoreak berebiziko eta ezinbesteko oinarriak dira oraindik ere eta ahal bada gogo handiagoz lan egiten jarraitzeko sentsibilizazio-ekimenen esparruan. Alde horretatik, eta etorkizun hurbilean nola jardun daitekeen argitzeko balio dezaketelakoan, bost gomendio hauek egin nahi ditugu:

1. Sentsibilizazio-ekimenetan tratu-berdintasunari eta diskriminaziorik ezari lotutako diskurtsoa eta ekinbidea jasotzea. Uste dugu oso garrantzitsua dela ez bakarrik lurralde berean dauden kolektiboen arteko ezagutzan sakontzea, bai eta giza eskubideen eta aukera-berdintasunaren aitortzean aurrera egitea ere, hala nola toki-mailako sentsibilizazio-ekimenetan diskriminazioaren aurkako ikuspuntua jasotzea.
2. Toki-entitateen arteko sare-lana bultzatzea hauek lortzeko:
 - Gizarte- eta lurralde-testuinguru desberdinetan gauzatzen diren ekimen eta esperientziei buruzko informazioa lortzeko modua hobetzea.
 - Ekimen eta esperientzia horien gaineko ezagutza zabaltzea eta handitzea.
3. Tresnen eta tekniken aplikazioan sakontzea; bereziki funtsezko bi alderdiotan:
 - Toki-mailako diagnostikoen garapenean, hala nola sentiberatze-jardueren plangintza handiagoan eta hobean, litezkeen diskriminazio-egoeretan eragina duten faktoreak kontuan hartuta. Alde horretatik, prestakuntza garrantzi handikoa da, toki-mailako lantaldeen jarduerak indartzeko aukera ematen duelako. Jarduera horietan gomendagarria da e-learning deritzona erabiltzea,

lagungarria baita prestakuntzaren jarraipena egiteko, bai eta prestakuntza zabaltzeko ere toki-entitate parte-hartzaileen eremu zabalago batean.

- Sentsibilizazio-jardueren jarraipen- eta ebaluazio-metodologia egoki baten sustapenean, gauzatutako jardueren eragina neurtu ahal izateko, eta toki-politikak orientatzeko, haien aplikazioaren emaitzei dagokienez.

ESCI III Proiektua gauzatzeari esker, sentsibilizazio-jarduerak ebaluatzeko metodo, irizpide eta adierazleei buruzko eztabaida hau hasi ahal izan da. Esparru bereziki konplexu honetan sakontzen jarraitzea proposatzen da, ikuspuntua zabaltzeko eta sentsibilizazioaren alorrean diharduten toki-entitate guztientzat erreferentzia izan daitekeen jarraipen- eta ebaluazio-eredu bat proposatzeko.

4. Herritarrek sentsibilizazio-ekimenetan parte-hartze handiagoa izan dezaten sustatzea. ESCI III Proiektuaren lan-prozesuan, berezko balio moduan nabarmendu da komunitateko gizarte-erakunde eta -instituzioen nahiz herritarren parte-hartzea, eta honako hau adierazi: "... gizarte zibilean parte hartzeko mekanismoak antolatu ezean, politika publikoen eraginkortasuna txikiagoa izan liteke"¹¹.
5. Sentsibilizazio-ekimenetan eta -esperientzietan, genero-ikuspuntua sartzera bultzatzea. ESCI III Proiektuaren prozesuetan ebaluatutako proiektuetako bi soilik ziren argi eta garbi emakumeentzat. Hipotesi moduan, esan dezakegu toki-entitate gehienetan berdintasunerako udal-sail edo -arlo espezifikoak egoteak eragina izan ahal izan duela immigrazio-sail edo -arloek emakumeei begira egindako proiektuen kopuru txikian.

Hala ere, bai ebaluazio-prozesuan, bai zeharkako irizpideetan, genero-ikuspuntua ebaluatu egiten zen proiektu guztietan. Eta oro har lortutako puntuazio txikia behar adina informazio lortu ez izanak azal dezake, baina ekimen gehienetan genero-ikuspuntu argirik atzeman ez izanak ere bai.

Emakumezko immigranteen egoera ahul eta berezia kontuan hartuta, sentsibilizazio-esperientzietan genero-ikuspuntua jasotzea tokiko ekimenen etorkizunean finkatu beharreko alderdia da.

Hitz batean, eta Emaitza Oneko Kasuen Laburpeneko atal hau amaitzeko, toki-agintariei iradokitzen diegu tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren aldeko politika publikoko jarduerak garatu eta jaso behar dituztela tokiko agenda politikoetan, udalen agendetan genero-berdintasunari edo iraunkortasunari lotutako jarduera eta politika publiko zehatzak jaso diren bezala.

¹¹ Ikus *Tokiko Sentsibilizazio Planak Prestatu eta Egiteko Gida*, 67. eta 68. orrialdeak.

7 BIBLIOGRAFIA

- Bartzelona Udala. "Revista Barcelona Societat" 18. zk.a. 2010eko uztaila
- BANDRES, José Manuel. Giza Eskubideen aldeko Europako Hirien VI. Konferentziako hasiera-ekitaldiko hitzaldia. Geneva, 2008ko abendua.
- BORJA, J. Ciudadanía y espacio público (www.laciudadviva.org)
- Giza Eskubideak hirian Zaintzeko Europar Gutuna. Saint-Denis, 2000ko maiatza.
- CEA D'ANCONA, M.A. (2007): Inmigración, racismo y xenofobia en la España del nuevo contexto europeo. Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioa. Madril.
- CEA D'ANCONA, M.A; VALLES, M. (2009). Evolución del racismo y la xenofobia en España (informe 2009). Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioa. Madril.
- ARRAZAKERIAREN ETA INTOLERANTZIAREN AURKAKO EUROPAKO BATZORDEA, ECRI. (2010) Espainiako Estatuaren IV. Monitorizazio Txostenaren Zirriborrea.
- ESPAINIAKO GAZTERIAREN KONTSEILUA. (2005) Bases para una política de juventud. Madril.
- ESPAINIAKO GURUTZE GORRIA (2007). "Orientaciones para incorporar la perspectiva de género en los proyectos de Empleo". Bulego Nagusia Barne-dokumentua.
- DIETZ, G. (2003), Multiculturalismo, interculturalidad y educación: una aproximación antropológica. Granada: Granadako Unibertsitatea.
- EUROPAKO BATZORDEKO JUSTIZIA, ASKATASUN ETA SEGURTASUN ZUZENDARITZA NAGUSIA. (2010) Europar Batasuneko Argitalpen Bulegoa. Manual sobre la integración para responsables de la formulación de políticas y profesionales. Luxenburgo
- "La rue est à nous...tous!" erakusketa. Hiria Mugimenduan Institutua. Paris, 2007ko apirila. 2010eko martxoa-maiatza Kataluniako Arkitektoen Elkargoa, Bartzelona.
- GARCIA CANCLINI, N., (2005) Diferentes, desiguales, y desconectados: mapas de la interculturalidad. Bartzelona: Gedisa
- GLASER, BARNEYG & STRAUSS, ANSELM L., (1967), The Discovery of Grounded Theory. Strategies for Qualitative Research. Chicago.
- HALL, S. & DU GAY, P. (2003), Cuestiones de identidad cultural. Buenos Aires: Amorrortu
- HUNT, Lynn (2009). La invención de los Derechos Humanos. Tusquets, Bartzelona
- 11/2007 *Legea*, ekainaren 22koa, herritarrek zerbitzu publikoetara sarbidea izateari buruzkoa.
- MARTINEZ, L.; LEAL, C. eta BOSCH, S. (2007). El viaje de Ana. Historias de inmigración contadas por jóvenes. Espainiako Gazteriaren Kontseilua. Madril.
- MARTINEZ, L.; TUTS, M. eta POZO, J (2007). Formación en educación intercultural para asociaciones juveniles. Espainiako Gazteriaren Kontseilua. Madril.
- BERDINTASUN MINISTERIOA – LAN ETA IMMIGRAZIO MINISTERIOA.- (2010) "La brecha salarial: realidades y desafíos: las desigualdades salariales entre mujeres y hombres. España 2.009". EME bilduma (ekonomia, emakumea –mujer–, enpresa).
- LAN ETA GIZARTE GAIETARAKO MINISTERIOA - Gurutze Gorria (2007) Pistas metodológicas para la sensibilización intercultural. Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioa. Madril.
- LAN ETA IMMIGRAZIO MINISTERIOA, Immigrazio eta Emigraziorako Estatu Idazkaritza. Plan Estratégico de Ciudadanía e Integración 2007 - 2010. Madril.
- LAN ETA IMMIGRAZIO MINISTERIOA. MTIN/1459/2010 agindua, maiatzaren 28koa, Gizarte Segurantzako Estatu Idazkaritzako Egoitza Elektronikoa sortzen duena.
- LAN ETA IMMIGRAZIO MINISTERIOA. Immigrazio eta Emigraziorako Estatu Idazkaritza. Immigranteen Integraziorako Zuzendaritza Nagusia. (2009) Guía para el diseño y la elaboración de planes locales de sensibilización. Madril.
- LAN ETA IMMIGRAZIO MINISTERIOA. *Living Together: Ciudadanía Europea contra el Racismo y la Xenofobia*. Decálogo e Informe final comparativo y comprensivo. Lan eta Immigrazio Ministerioa. Madril.

MORA CASTRO, A. (2007) "Inmigración, servicios públicos e integración social". *Munduko Medikak. Cuadernos de Trabajo Social* 25. 20. lib., 25-34 or.

PAJARES, M.; PELAEZ, C.; MAS, F.; BENITEZ, J .R.; ARGOTE, R.; HERNANDEZ, R. eta BERDON, J. (2008). Segundo libro Blanco de la Integración Sociolaboral de Refugiadas, Refugiados e Inmigrantes. Herritartasuna eta Eskubideak. Errefuxiatuei Laguntzeko Espainiako Batzordea.

POZO; J. VALTIERRA, B. eta MARTINEZ, L. (2005). Hacia un modelo asociativo intercultural. Espainiako Gazteriaren Kontseilua. Madril.

RAMIREZ GOICOECHEA, E. (2010), Etnicidad, Identidad, Interculturalidad. Teorías, conceptos y procesos de la relacionalidad grupal humana. Madril: Ramón Areces unibertsitate-argitaletxea.

RUBIO GARCIA, J. A. (2007). Ciudamundeando. *Cuadernos* 1 eta 2. Acsur Las Segovias. Madril.

SERRA, A.; BELIL, M. (2001): Món local i diversitat. Estratègies polítiques i serveis municipals per a la integració de persones immigrants no comunitàries. Bartzelonako Diputazioa. Bartzelona.

ZAPATA, R. (2009). Polítiques de ciutadania. Discurs públic sobre la gestió local de la diversitat. Berdintasun eta Herritartasun Saila. Bartzelonako Diputazioa. Bartzelona.